




SEGURA

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

DIAGNOSTIKOA

2026ko ekaina



SEGURAKO UDALA

SEGURAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

Diagnostikoa

Segura 2026ko ekaina

ZUZENDARITZA

Arkitekto hirigileak:

Zaloa Las Hayas Madariaga

Martin Ferran Zubillaga

Haritz Iparraguirre Yarza

Ray Mendiburu Abad

IDAZKETA

Arkitekto hirigileak



HIRIGRAMA

Idazketan zuzendaritza taldeak eta Uxue Oiarbide Gorostiaga arkitektoak hartu dute parte.

Abokatu hirigilea:

Maribi Joaristi Olariaga

LANKIDETZAK

Ingurumen-taldea: Geotech S.L.

Partaidetza prozesuaren aholkularitza: Koldo Telleria

Soziologoa: Dornaku Lanz Solbes

Mugikortasuna: RAZ Digital tools for urban innovation

BKZko ingeniarietza: Endara SL

SUSTAPENA



SEGURAKO UDALA

I.	SARRERA	1
I.1.	AURREKARIAK	1
I.1.1	EGUNGO HIRIGINTZA PLANGINTZAREN JATORRIA	1
I.1.2	PLANGINTZA ALDAKETAK	2
I.2.	PLANA IDAZTEAREN EGOKITASUNA	3
I.3.	PLAN OROKORRAREN METODOLOGIA ETA FASEAK	4
I.3.1	METODOLOGIA	4
I.3.2	PROPOSAMEN METODOLOGIKOAREN PRINTZPIO GIDARIAK	5
I.3.3	PROZESUAREN FASEAK	7
I.4.	PROZESUAREN DESKRIKAPENA	9
I.4.1	KONTRATUAREN SINADURA ETA HPP	9
I.4.2	DIAGNOSTIKO TEKNIKOA	9
I.4.3	HERRITARREK PARTE HARTZEKO BILERAK	9
I.4.4	INKESTAK	10
I.5.	LEGE-ESPARRUA	10
I.5.1	LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-LEGERIA	10
I.5.2	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SUSTATUTAKO ETA INDARREAN DAUDEN LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-XEDAPENAK:	11
I.5.3	INGURUMENARI BURUZKO XEDAPENAK	11
I.5.4	KULTUR ONDAREA	12
I.5.5	URAK	12
I.5.6	LURZORUEN KUTSADURA	13
I.5.7	ERREHABILITAZIOA	13
I.5.8	IRISGARRITASUNA	13
I.5.9	ZARATA	13
I.5.10	BERDINTASUNA	14
I.5.11	AERONAUTIKA	14
I.5.12	TELEKOMUNIKAZIOAK	15
I.5.13	ERAIKINEN DISEINU TEKNIKOA	15
I.5.14	LANDA-INGURUNEA	15
I.5.15	ERREPIDEAK	16
I.5.16	SALTOKIAK	16
I.5.17	BESTE BATZUK	16
I.5.18	INDARREAN DAUDEN LURRALDEA ANTOLATZEKO TRESNAK	17
I.5.19	BESTELAKO PLAN, DOKUMENTU ETA ESTRATEGIAK:	17
I.5.20	NAZIOARTEKO BESTE DIREKTIBA BATZUK	18
II.	DIAGNOSTIKO PARTEKATUA	19
II.1.	KOKAPENA ETA JATORRIA	19
II.2.	INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA	20
II.2.1	KLIMA	21
II.2.2	AIREAREN KALITATEA	23
II.2.3	OROGRAFIA	25
II.2.4	GEOLOGIA	26
II.2.5	EDAFOLOGIA ETA GAITASUN AGROLOGIKOA	32
II.2.6	HIDROGRAFIA	32
II.2.7	LANDAREDIA ETA HABITATAK	45
II.2.8	FAUNA	50

II.2.9	INTERES NATURALISTIKOKO ETA BABESTUTAKO NATURGUNEAK	53
II.2.10	ONURA PUBLIKOKO MENDIAK.....	55
II.2.11	PAISAIA	56
II.2.12	INGURUMEN-ARRISKUAK.....	57
II.3.	DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA	63
II.3.1	SARRERA.....	63
II.3.2	BIZTANLERIA.....	64
II.3.3	ETXEBIZITZA	68
II.3.4	EGOERA SOZIOEKONOMIKOA.....	72
II.3.5	LEHEN SEKTOREA.....	75
II.3.6	HERRITARREN PARTAIDETZA	76
II.3.7	BERDINTASUNA ETA GENERO IKUSPEGIA.....	77
II.3.8	EUSKARA	82
II.3.9	OSASUNA.....	83
II.4.	HIRIGINTZAKO DIAGNOSTIKOA.....	89
II.4.1	SARRERA.....	89
II.4.2	UDALAZ GAINDIKO LURRALDE ANTOLAMENDUA	91
II.4.3	INDARREKO HIRIGINTZA-PLANGINTZA. GARAPEN MAILA	97
II.4.4	HIRI EREDUA ETA OKUPAZIO ESTRATEGIA	98
II.4.5	PLANGINTZA ALDAKETAK:	98
II.4.6	PLANGINTZA XEHAKATUA	100
II.4.7	EGOITZA ERABILERAREN ANTOLAMENDUA	102
II.4.8	INDUSTRIA ERABILEREN ANTOLAMENDUA	104
II.4.9	MUGIKORTASUNA.....	104
II.4.10	EKIPAMENDUAK	106
II.4.11	ESPAZIO LIBREAK.	108
II.4.12	URBANIZAZIOA ETA AZPIEGITURAK.....	110
II.4.13	ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA	112
III.	PLANO ZERRENDA.....	118

I. SARRERA

I.1. AURREKARIAK

I.1.1 EGUNGO HIRIGINTZA PLANGINTZAREN JATORRIA

1996ko otsailaren 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina behin betiko onartu zuen. Akordio honek 1994ko martxoaren 22an onartutako hasierako dokumentuari jarraipena ematen dio, eta Segurako Udalak egindako egokitzapen tekniko eta juridikoak jasotzen ditu. Testu bategina udalaren proposamenaren araberako osatu zen, eta hainbat atal garrantzitsutan sakondu zuen, hala nola lurzoru ez urbanizagarriaren erabilera eta eraikigarritasuna, lurzoru urbanizagarriaren ordenantzak, erabileren definizioa eta plangintzaren garapen-baldintzak.

Dokumentua 1995eko otsailaren 8an onartu zuen hasiera batean Segurako Udalak, eta jendarean jarri ondoren ez zen alegaziorik jaso. Ondorioz, 1995eko maiatzaren 17an eman zitzaion behin-behineko onarpena eta Foru Aldundira igorri zen ebaluaziorako. Aldundiaren zerbitzu teknikoek dokumentua egokia zela iritzi zuten, nahiz eta plano informatibo guztien entrega ez zen osatua izan. Halere, Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordeak ez zuen txosten berri-rik eskatzea egoki jo, eta horrek bide eman zuen behin betiko onarpena emateko.

Azken akordio horren bidez, Segurako Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina indarrean jarri zen, eta udalerriko hirigintza-antolamendua arautzeko oinarri juridiko eta administratibo egonkorra ezarri zen.

I.1.2 PLANGINTZA ALDAKETAK

1) Hiri Antolamenduko Arauen 1. aldaketa puntuala

1999ko ekainaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako Hiri Antolamenduko Arauen 1. aldaketa puntualaren (1., 3., 5., 7., 9. eremuak eta Kaskoko babes-eremua) behin betiko onarpena eman zuen. Aldaketa honek udalerrriaren hirigintza-egitura eta ondarearen babesa egokitzeko hainbat helburu estrategiko jaso zituen.

Aldaketaren xede nagusietako bat izan zen herrigune historikoaren eremua eta babesgunea berrantolatzea, eta horretarako, 1. eremura (hirigune historikoa) beste hiru gune batu ziren: Komentua (9. eremua), Herri Ekipamenduen zatia (5. eremua) eta Zerkalde kalearen luzapena (lehen 3. eremuko Akelarre izeneko). Horrez gain, lurzorua urbanizaezinaren barruan babeserako azpizona bat ezartzea proposatu zen, ingurune historikoaren integrazioa eta babesa sendotzeko.

Bestalde, Erbiola eremuko (7. eremua) etxebizitza-erakigarritasuna handitu zen, eta horrekin batera, saihezbide berriaren trazadura plan dokumentuetan jasota gelditu zen, trafikoaren antolamendu hobea lortzeko.

Azkenik, aldaketak ondarearen babesean ere sakondu zuen, Segurako hirigunea Euskal Ondare Kulturalaren Inbentarioan sartzeko proposamena eginez, eta Magdalenako errota eta San Andres auzoa interes arkeologikoko gisa katalogatuz.

2) Hiri Antolamenduko Arauen 2. aldaketa puntuala

2003ko ekainaren 17an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako Hiri Antolamenduko Arauen 2. aldaketa puntuala behin betiko onartu zuen. Aldaketa horren bidez, Akelarre-Bekosoroa sektore berria sortu zen udalerriko hegoaldean, orain arte "kaskoa babesteko lurzoru urbanizaezin" gisa sailkatuta zegoen eremu batean.

Planteatutako esku-hartzeak 5.045 metro koadroko azalera hartzen du, eta bertan 8 etxebizitza bakarreko eraikin (adosatuak) eraikitzea aurreikusten da, 1.400 metro koadro eraikigarri gehienekoarekin. Bizitegi-garapen honek, berezkoa duen biztanleria-dentsitatearen igoeragatik, udalerrian 144 metro koadroko espazio libre berriak sortzea eskatzen du, hiri-oreka eta erabilera publikoaren bermea zaintzeko asmoz.

3) Hiri Antolamenduko Arauen 3. aldaketa puntuala

2007ko martxoaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako Hiri Antolamenduko Arauen 3. aldaketa puntuala behin betiko onartu zuen, Xesteri inguruko garapena eta 8. Arearen egokitzapena arautzeko.

Aldaketaren helburu nagusia izan zen Xesteri 4. sektorea izeneko eremu berri bat sortzea, aurrez babestutako lurzoru batean kokatua, eta bertan 64 etxebizitza tasatu eraikitzea aurreikusten da. Azaleraren zati bat espazio libre orokor gisa gordeko da, hiri-ehundurarekin jarraikortasuna bermatuz eta hazkunde ordenatua ahalbidetuz.

Horrez gain, 8. Arearen mugaketa zabaldu da, dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzati batean aparkaleku eta gas biltegi komunitario bat egokitzeko. Proiektuak ingurumen-ebaluazioa gainditu du, eta Laiotz errearen ingurumen-inpaktua murrizteko neurriak txertatu dira.

4) Hiri Antolamenduko Arauen 4. aldaketa puntuala

2010eko uztailaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako Hiri Antolamenduko Arauen 4. aldaketa puntuala behin betiko onartu zuen, zehazki 1. Areari eta monumentu-multzoaren babes-eremuari dagokiona. Aldaketa honek helburu argi bat zuen: Zerkalde kale inguruaren antolamendu urbanistikoa hobetu eta ingurune historikoaren irisgarritasuna eta espazio publikoaren kalitatea handitzea.

Horretarako, 12.465 metro koadroko lurzoru urbanizaezina birkalifikatu zen, bi jarduera nagusi aurreikusita. Lehenik, 3.500 metro koadro "1. Areara" gehitu ziren, Zerkalde kalea zabaltzeko eta 6 metro zabaleko bide berri bat eraikitzeko, horrekin batera 120 aparkaleku berri sortuz. Honek, bereziki, barruko kaleak oinezkoentzako bihurtzea ahalbidetuko du, hirigune historikoaren erabilera eta irisgarritasuna nabarmen hobetuz.

Bigarrenik, gainerako lurzsailak, ordura arte baratze pribatu modura erabiltzen zirenak, Espazio Libre Orokor gisa sailkatu ziren, eta hiri-parke bat bihurtzeko asmoa jasotzen da, ingurunearen degradazioa iraultzeko eta erabilera publikoko gune berde berriak sortzeko helburuarekin.

Aldaketak, gainera, ingurumen-neurri osagarriak aurreikusten ditu: baratzeen galera konpentsatzeko eta lurzoruaren nekazaritza-balioa berreskuratzeko ekintzak gauzatuko dira. Azkenik, jarduerak administrazioaren ekimenez gauzatuko dira, eta lurren eskurapena desjabetze bidez egingo da, beharrezkoa izanez gero.

Aldaketa honek Segurako hirigune historikoa berroneratzeko eta irisgarritasun handiagoa eta bizi-kalitate hobea bermatzeko estrategiaren parte da, jasangarritasun-irizpideak eta espazio publikoaren berreskurapena oinarri hartuta.

I.2. PLANA IDAZTEAREN EGOKITASUNA

Hirigintza-plan hau idazteko arrazoien artean honako hauek daude: ingurune fisikoaren erabile-rak behar bezala zonifikatu eta arautu beharra, udalerrian identifikaturiko etxebizitza beharra

asetzeko ezintasuna, eta udal-plangintza orokorra Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen eta lurralde-antolamenduko tresna berrien irizpideen zehaztapenetara egokitu beharra.

Beraz, plana egokitu behar denez eta udalerraren egungo arazoei erantzuna eman nahi zaienez, Segurako Udalak erabaki du behean sinatzen duen taldeari agintzea Udal Arau Subsidiarioak berrikusi eta Hiri Antolamendurako Plan orokorra idaztea.

I.3. PLAN OROKORRAREN METODOLOGIA ETA FASEAK

I.3.1 METODOLOGIA

Kapitulu honetan, Segurako testuinguru espezifikora egokitzeko erabili beharreko metodologia deskribatzen da, eta tratamendu hori zein neurritan ulertzen den azaltzen da, bai ikuspegi tekniko-urbanistikotik, bai herritarren parte-hartzearen ikuspegitik, bai genero-ikuspegia eta ingurumen-, gizarte- eta hizkuntza eta osasun irizpideak sartzeari dagokionez.

Alderdi horiek guztiak, gainerako baldintzatzaile aplikagarriekin batera, hirigintzako prozesu batean erlazionatuko dira. Prozesu horretan eragile sozial, administratibo eta politikoei parte hartuko dute, beraz, idazketa prozesuaren ezaugarri metodologiko nagusia herritarren parte-hartzea izango da. Parte hartzeko prozesua teknikariarengandik bereizterik ez dagoenez, bien arteko kate-harreman bat ezartzen da, norabide batetik bestera doazen materialak sortuz eta ezagutza teknikoak komunitatearekin gurutzatzea ahalbidetuz.



Plan Orokor honen xede nagusietako bat da 2015ean Nazio Batuen Estatu Kideek eta 2030eko Euskal Agendak ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzera bideratutako neurri konkretuak proposatzea. Hori horrela, dokumentu honen ardatz estrategikoak Estatuko eta autonomia-erkidegoetako hiri-agendetan eta Lurralde Antolamenduko Gidalerroetan jasotako orientazioetan oinarrituko dira. Testuinguru horretan, hirigintza-proposamenek hiru dimentsiotan eragingo dute: norbanakoaren ongizatea, komunitatearen kohesioa eta ingurumenaren jasangarritasuna, helburu gisa mundu bidezkoago eta orekatuago baten eraikuntza sustatuz.

I.3.2 PROPOSAMEN METODOLOGIKOAREN PRINTZIPIO GIDARIAK

Historikoki, hirigintza-diziplinak eta arkitektura zein hirigintzako politika publikoek eraikuntza-prozesuetan eta espazio urbanizatuaren konfigurazioan jarri dute arreta, bestelako alderdi sozio-urbanistikoak bigarren mailan utzita. Ikuspegi mugatu hori gainditzeko proposamena egiten da, lurraldearen ikusmolde integrala hartuta, zeinetan ingurune fisikoaren eta giza ingurunearen arteko harremanek elkarrekiko mendekotasun zuzena duten. Interdependentzia horren aitortzak gidatuko du garapen sozio-urbanistikoa, tokiko korporazioak zehaztutako ildo estrategikoekin bat eginez eta ingurumeneko eta gizarteko balioak errespetatuz eta sustatuz.

Hori guztia kontuan hartuta, honako printzipio gidariak ezartzen dira HAPOaren idazketarako:

02

JASANGARRITASUNA

Hiri-garapenaren eta ingurumenaren babesaren arteko orekari lehenetsua ematea. Hor sartzen dira naturaguneak babestea, biodibertsitatea sustatzea eta klima-aldaketaren eraginak arintzeko neurriak ezartzea. Ubide naturalak berreskuratzea eta baso-kudeaketa dibertsifikatua sustatzea dira jardura horren adibide batzuk.

04

MUGIKORTASUNA

Garraibide jasangarrien alde egitea, hala nola garraio publikoa, bizikleta eta oinez ibiltzea. Horrek esan nahi du habetu egin behar dela bizikletaz eta oinez ibiltzeko azpiegitura, eta garraio publikoko sare eraginkorrak eta herritar guztientzat irisgarriak sortu behar direla.

06

IRISGARRITASUNA

Pertsona guztientzat seguruak, irisgarriak eta kalitate handikoak diren espazio publikoak diseinatzea eta mantentzea. Horrek barne hartzen ditu parkeak, lorategiak, oinezkoentzako eremuak eta komunitatearen erabilera eta gozamina sustatzen duten ekipamendu publikoak.

08

BALIABIDEAK

Baliabideak (ura, energia eta hondakinak) kudeatzeko sistema eraginkorrak ezartzea. Horren barruan sartzen dira energia berriztagarrien sustapena, uraren hornidura eta saneamendu sareen hobekuntza, eta biziklatze eta hondakinen kudeaketa sistemen implementazioa.

10

INKLUSIOA

Genero-ikuspegia txertatzea eta baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko berdintasuna sustatzea. Gainera, udalerriko plangintza-prozesuetan eta eguneroko bizitzan euskararen sustapena eta erabilera ziurtatzea, nortasun kulturala eta gizarte-kohesioa indartuz. Horrela ziurtatzen da desberdintasunik ez sortzea eta kolektibo guztiak, haurrak, adinekoak eta mugikortasun murriztua duten pertsonak barne, hirigintza-hobekuntzez baliatzea.

PARTE-HARTZEA

Komunitatea hiri-plangintzaren fase guztietan sartzea, ahots eta ikuspegi desberdinak kontuan hartzen direla ziurtatuz. Hori lortzeko, herritarrek parte hartzeko programa egituratuak egin behar dira, herritarren eta talde idazlearen arteko lankidetzak eta elkarrizketa irekia errazteko.

01

ERAGINKORTASUNA

Lurzoruaren erabilera zentzuzkoa eta eraginkorra sustatzea, hiriguneen alferrikako hedapena mugatuz eta dagoeneko urbanizatuta dauden eremuen birgaitze eta dentsifikazioan arreta jarritz. Horren barruan sartzen da eremu degradatuak leheneratzea eta balio ekologiko handiko lurzorua babestea.

03

DIBERTSIFIKAZIOA

Tokiko ekonomiaren dibertsifikazioa bultzatzea, sektore ekonomiko berriak sustatuz eta tokiko merkataritza eta zaintza-jarduerak indartuz. Honek sektore espezifikoko menpekotasun ekonomikoa murrizten du eta udalerriko erresilientzia ekonomikoa handitzen du.

05

LURRALDEA

Ingurune fisikoaren eta hiri-ingurunearen azterketa integrala egitea, udalerriko ondare eraikiaren eta naturalaren kontserbazioari eta balioespenari helduz. Horretarako, eraikin, egitura eta espazio interesgarriak identifikatu eta babestu behar dira, baita baliabide naturalak modu jasangarrian kudeatu eta hiri- eta landa-ingurunea hobetu ere.

07

OSASUNA

Herritarren osasuna eta ongizatea sustatuko dituen hiri-ingurunea sustatzea. Horren barruan sartzen dira berdeguneak sortzea, ingurumen- eta soinu-kutsadura murriztea, eta jardura fisikoa eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea sustatuko duten azpiegiturak diseinatzea.

09

1.3.3 PROZESUAREN FASEAK

Erabilitako metodologia fase hauetan bereizten da:

1. FASEA: HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMA

Dokumentu honetan ezartzen dira HAPOaren elaborazio-prozesuan herritarrek eta elkarreek parte hartzeko duten eskubidea gauzatzeko beharrezkoak diren helburu orokorrak, jardun-estrategiak eta partaidetza-mekanismoak.

2.FASEA: DIAGNOSTIKO PARTEKATUA (OBJETIBOA + SUBJETIBOA)

Udalerriko HAPOaren diagnostikoa osatzeko planteatzen den metodologia ingurune fisikoaren egungo egoeraren analitika abiatzen da, lurraldea giza jardueren euskarri eta antolamenduaren oinarri gisa ulertuta. Ildo horretan, lurralde-diagnosiak funtsezko eginkizuna izango du; izan ere, haren bidez identifikatuko dira eskualdearen ahalmenak, mugak eta garapen-aukerak, eta elementu horiek guztiek zuzenean baldintzatuko dute etorkizuneko antolamendu-ereduaren bideragarritasuna. Diagnostiko horrek, beraz, lurralde-kapitalaren ezagutza sakontzea ahalbidetuko du, eta horren gainean eraiki ahal izango da garapen jasangarria sustatuko duen plangintza-eredu egokia.

Bestalde, prozesu parte-hartzaile bat garatuko da, herritarren ikuspegi subjektibotik abiatutako diagnostikoa osatzeko helburuarekin; alegia, udalerriko hiri-errealitateari buruz herritarrek duten pertzepzioa jaso, interpretatu eta baloratzea izango du xede. Zehazki, herritarren iritzia bildu nahi da lurzoruaren erabileraren, oinezkoen eta ibilgailuen mugikortasunaren, hiri-egituraren, ekipamendu publikoen egoeraren, etxebizitzaren kalitatearen eta jarduera ekonomikoaren inguruan. Herritarren ikuspegitik eratorritako diagnostiko subjektibo hori ikuspegi teknikoan oinarritutako diagnostiko objektiboarekin alderatuko da, bi ikuspegiak uztartu eta osagarri bihurtzeko asmoz. Helburua da informazio tekniko eta herritarren ekarpenak bateratuz diagnostiko partekatua eta adostu bat eratzea, planaren garapenerako oinarri sendo eta koherente gisa balioko duena.

Plana idazketa fase honetan dago

3. FASEA: HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA ETA PLANGINTZAREN AURRERAPENA

Diagnostiko partekatuen fasea amaitu eta lehen jarduketa-proposamen orokorrak formulatu ondoren, alternatiba horiek jaso dira HAPOaren Aurrerapen Dokumentuan, plangintzaren lehen zirriborro gisa ulertzen den testuan. Ondorioz, dokumentu horren gainean eraikitzen da Hasierako Dokumentu Estrategikoa (HDE), non planteatutako alternatiben ingurumen-ikuspegitik egindako ebaluazioa jasotzen den, ingurumen-irizpideak planaren garapen-prozesuan modu integratuan txertatzeko asmoz.

4. FASEA: IRADOKIZUNEN TXOSTENA ETA IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK HARTZEA

Aurrerapen Dokumentua eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa jendaurrean jartzen dira, herritarrek eta administrazio interesdunek iradokizunak eta ekarpenak aurkezteko aukera izan dezaten. Jasotako ekarpen guztiak talde idazleak txosten batean sistematizatzen ditu, eta horren bidez biltzen dira partaidetza-fase horretan jasotako iritzi, hausnarketa eta proposamenak.

Bildutako informazioa xehetasunez aztertu eta haren ondorioak baloratu ondoren, talde idazleak dokumentu proposamen bat helarazten dio Udalari; dokumentu horretan HAPOaren helburu estrategikoak, plangintza-irizpide nagusiak eta irtenbide orokorrak jasotzen dira. Ondoren, Udaleko organo eskudunak –osoko bilkura bidez– proposamen horiek aztertu eta onartzen ditu, eta, behin onartuta, dokumentazio osoa plangintzaren idazketaz arduratzen den lan-taldeari bidaltzen zaio, onartutako jarraibideak oinarri hartuta dokumentu teknikoa garatu dezan.

5. FASEA: HASIERAKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA

Behin helburu estrategikoak, plangintza-irizpideak eta irtenbide orokorrak zehaztuta, HAPOan garatuko den alternatiba bakarra hautatu beharko da. Alternatiben balorazio-prozesuan herritarren ekarpenak jaso ondoren, azken hautaketaren ardura Udalbatzari dagokio. Udalbatzak hartutako erabakia talde idazleari jakinaraziko zaio, eta horrek Plan Orokorraren Proiektua osatzeko beharrezko dokumentazio osoa prestatuko du, bai testu-idazkietan bai plano eta irudikapen grafikoetan, betiere hautatutako garapen-eredua arau-formatura egokituta.

Proiektuaren dokumentazioarekin batera, Ingurumen Azterketa Estrategikoa idatziko da, eta era berean, generoaren, euskararen eta haur zein nerabeengan izan ditzakeen eraginei buruzko ebaluazio espezifikoak burutuko dira. Azterketa horiek plangintza-dokumentuan eragina izango dute eta, beharrezkoa denean, neurri zuzentzaile egokiak ezarriko dituzte, ikuspegi integratzaile eta jasangarria bermatzeko.

6. FASEA: JENDAURREAN JARTZEA ETA ALEGAZIOEI ERANTZUTEA

Hasierako onespenerako dokumentazioa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean jarriko dira, herritarrek eta gainerako interesdunek egokituz jotzen dituzten alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Behin epe horretan jasotako alegazioak eta iruzkinak bilduta, talde idazleak erantzun xehatua emango duen txosten teknikoa landuko du, bai aurkeztutako alegazioei bai organo sektorial eskudunek igorritako txostenek jasotako iradokizunei erantzunez.

7. FASEA: BEHIN-BEHINEKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA

Behin-behineko onarpenerako dokumentazioa idazteko prozesuan, hasierako jendaurreko epean onartutako alegazioetatik eta jasotako txosten sektorial lotesleetatik eratorritako aldaketa guztiak integratuko dira. Hala ere, aldaketa horiek funtsezko izaera badute, eta, bereziki, lurraldearen egitura orokorrean eragina badute,, espedienteak atzera egin beharko du, eta hasierako onarpenaren eta jendaurreko erakusketaren faseak berriro garatu beharko dira, lege-esparruak ezarritako prozedura eta bermeak betez.

8. FASEA: BEHIN BETIKO ONARTZEKO DOKUMENTUA

Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoa jaso ondoren, talde idazleak, hala dagokionean, bi dokumentu horietan ezarritako baldintza eta irizpideak beteko ditu, eta horien arabera egokitutako behin betiko onarpenerako dokumentazioa osatuko du.

9. FASEA: TESTU BATEGINA

HAPO behin betiko onartu ondoren, plangintza-dokumentuan aldaketaren bat txertatu edo egokitzapen zehatzik egin behar bada, testu bategina prestatu eta idatziko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren onespena beharko du horrek indarra hartzeko.

I.4. PROZESUAREN DESKRIBAPENA

I.4.1 KONTRATUAREN SINADURA ETA HPP

- 2026ko urtarrilaren 8an sinatu zen Segurako HAPOko erredakzio-zerbitzuen kontratua.
- Herritarren Partaidetzarako Programa aurkeztu zen 2026ko otsailaren 04an.

I.4.2 DIAGNOSTIKO TEKNIKOA

Aurretik, diagnostiko tekniko bat egin da, indarrean dagoen hirigintza- eta lurralde-plangintza eta udalerriri eragiten dioten ingurumen- eta soziologia-alderdiak aztertuz, eta, ondoren, parte-hartze publikoko saioetan bildutako informazioarekin osatu da.

I.4.3 HERRITARREK PARTE HARTZEKO BILERAK

- Udalarekin partekatutako diagnostikorako saioa. (S0)
Udaleko arduradun tekniko eta politikoekin bilera bat egin da (2026/01/15) diagnostiko teknikoaren eta herritarren parte-hartze saio irekien aurretiko informazioa jasotzeko.
- Saio irekian partekatutako diagnostikorako saioa. (S1)
Plan Orokorra aurkezteko deialdia egiten da (2026/04/15), eta prozesuaren formari eta edukiari eta dokumentuaren izapidetzeari buruzko informazioa ematen da. Pertzepzio-diagnostikoa egiteko, planoaren gaineko adjektibo-dinamika erabiltzen da. Horri esker, mapeatzea eta balorazio kolektiboa egin daitezke, eta udalerriko ingurune fisikoari, urbanoari eta sozialari buruzko bi inkesta ere bai.

Saioa 13 pertsonak jarraitu zuten, horietatik 6 emakumeak ziren.

- Udalerriko hurrekin lan saioa (S2)

Lan-saio baterako deia egiten da (2026/05/13) haur talde batekin, eta planoen gaineko dinamika diagnostiko bat egiten da, 9 eta 12 urte bitarteko 8 haur bertaratuz, 4 neska eta 4 mutil.

- Plan Orokorrean genero-ikuspegia sartzeko lan-saioa (S3)

Lan-saio baterako deia egin da (2026/05/19) udalerriko 6 emakumerekin.

I.4.4 INKESTAK

- Segurako egunerokotasunaren inguruko inkesta

Herritarrek ingurune fisikoari zein hiri-inguruneari lotutako hainbat alderdi baloratzeko galdetegi bat bete zuten, biztanleriaren pertzepzio orokorra ezagutzeko xedez. Guztira 81 lagunek erantzun zuten, on line egindako inkestaren bidez. (2026ko martxoaren 9tik 31ra)

- Segurako etxebizitza beharraren inguruko inkesta

Une honetan udalerriko etxebizitza-premiaren egoera zein den eta eskari horren ezaugarri nagusiak identifikatzeko helburuz, berariazko inkesta bat gauzatu zen. Inkesta hori guztira 69 pertsonak bete zuten. (2026ko apirilaren 16tik 30era)

I.5. **LEGE-ESPARRUA**

Udal-plangintza orokorraren berrikuspena barne hartzen duen lege-eremua, oinarrizko izaeraz Estatutik eta autonomia-erkidegoetatik eratorritako hirigintza-legeria orokorraz eta bereziaz gain, espazioari eta lurzoruari eragiten dioten alderdi guztiei buruzko sektore-legeriaz eta lurralde-antolamenduko dokumentuez osatzen da. Horiek LAGetatik hasi dira, eta eskualdeko LPPtik jarraitzen dute, udalerrinari eta udalerrinari aplikatzen zaizkion alderdi sektorial guztiei dagokienez.

I.5.1 LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-LEGERIA

- Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan komunitateak duen partaidetza aldatzen duena.
- 2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen duena.
- 7/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

- Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onartua (1492/2011 Errege Dekretua).
- 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenari buruzkoa.
- 6/2025 Legea, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza, Lurzoru eta Hirigintzaren Arloko Presako Neurriena (2025eko abenduaren 29ko EHAAan argitaratua)

I.5.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SUSTATUTAKO ETA INDARREAN DAUDEN LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-XEDAPENAK:

- 45/2025 Dekretua, otsailaren 18koa, hirigintzako estandarrak arautzekoa
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- 3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, lurzoruaren araubideari eta hiri-antolamenduari buruzko legea garatu eta aplikatzeko hirigintza-kudeaketako erregelamendua onartzen duena.
- 2187/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta aplikatzeko hirigintza-diziplinaren erregelamendua onartzen duena.
- 2159/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko plangintza-erregelamendua onartzen duena.
- Martxoaren 5eko 635/1964 Dekretua, nahitaezko eraikuntzaren araudia eta orubeen udal erregistroa onartzen dituena.

I.5.3 INGURUMENARI BURUZKO XEDAPENAK

- Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzkoa.
- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen testu bategina (apirilaren 15eko 1/2014 Lege Dekretua).
- Arlo horretan aplikagarriak diren Europako zuzentarauen multzoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

- 1998ko uztailearen 10eko Agindua, Baso eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan Euskal Autonomia Erkidegoko flora baskularreko 130 taxon eta 6 populazio sartzen dituena.
- Ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua, Mendiei eta Naturgune Babestuen Administrazioari buruzkoa
- Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura:
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa. 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, honako hauek aldatua:
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa.

I.5.4 KULTUR ONDAREA

- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa. Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailearen 3ko 7/1990 Legea.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dauden katalogoak.
- Ondare arkitektonikoa (kultur ondasun kalifikatuak eta inbentariatuak) eta arkeologikoa (eremu arkeologikoak eta ustezko arkeologikoak) ireki eta tratatzeko prozedurari buruzko foru dekretuak eta aginduak.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.

I.5.5 URAK

- 2000/60/EE Zuzentaraua, uren politikaren arloan Erkidegoko eremua ezartzen duena.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailearen 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.
- 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen I., IV., V., VI. eta VII. atariko tituluak garatuz.
- 35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, Kantauri Mendebaldeko Demarkazio hidrografikoen plan hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.

- 435/2004 Errege Dekretua, martxoaren 12koa, Hezeguneen Inbentario Nazionala arautzen duena (hala badagokio).
- 1085/2024 Errege Dekretua, urriaren 22koa, Ura Berrerabiltzeko Erregelamendua onartzen duena eta uraren kudeaketa arautzen duten zenbait errege-dekretu aldatzen dituena.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografi-koaren Espainiako zatian uholde-arriskua kudeatzeko plana berrikustea eta eguneratzea onartzen duena.

I.5.6 LURZORUEN KUTSADURA

- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa
- 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 legea.
- 7/2022 Legea (Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatze-koa).
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak zabortegean utzita ezabatzea eta betelanak egitea arautzen duena.

I.5.7 ERREHABILITAZIOA

- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardue-
ra babestuei buruzkoa.
- Ondare historikoa kontserbatzeko eta birgaitzeko finantza-neurriak garatzen eta artikulatzen dituzten Dekretuak eta Aginduak.

I.5.8 IRISGARRITASUNA

- Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta in-
formazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onar-
tzen dituena.

I.5.9 ZARATA

- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari
buruzkoa.

- 2003ko azaroaren 17ko Zarataren Legea, eta 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez hura garatzen duena, lehenengoa, eta zonakatze akustikoa, kalitate-helburuak eta emisio akustikoak, bigarrena.

I.5.10 BERDINTASUNA

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzkoa.
- 40/2012 Legea, abuztuaren 21ekoa, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dituena.

I.5.11 AERONAUTIKA

- 297/2013 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, Aeronautikako Zortasunari buruzkoa.
- 21/2013 Legea, aireko segurtasunari buruzkoa, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerrako zehaztapenak.
- 369/2023 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, aireko nabigazioa babesteko zortasun aeronautikoak arautzen dituena, eta interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu-eremuaren antolamenduari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua aldatzen duena, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluan xedatutakoa betez.
- 48/60 Legea, uztailaren 21ekoa (BOE) 176. zk., uztailaren 23koa), Aireko Nabigazioari buruzkoa, abenduaren 29ko Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko 55/99 Legeak aldatua (E.A.O. 310. zk., abenduaren 30ekoa).
- Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea (uztailaren 8ko BOE, 162. zk.).
- Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikulua (E.A.O. 315 zk., abenduaren 31koa).
- 369/2023 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, aire-nabigazioa babesteko zortasun aeronautikoak arautzen dituena eta abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua (interes orokorreko aireportuak eta haien zerbitzugunea antolatzeari buruzkoa) aldatzen duena, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluan xedatutakoa betez. 131. zk., ekainaren 2koa).
- 2591/1998 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, Interes Orokorreko Aireportuen eta horien Zerbitzuguneen Antolamenduari buruzkoa (BOE). 292. zk., abenduaren 7koa), gaur egungo idazketan.

- 521/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Donostiako (Gipuzkoa) aireportuaren zortasun aeronautikoak aldatzen dituena (E.A.O. 141 zk., ekainaren 14koa).
- FOM/2617/2006 Agindua, Sustapen Ministerioarena, uztailaren 13koa, Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzen duena (E.A.O. 189 zk., abuztuaren 9koa).

I.5.12 TELEKOMUNIKAZIOAK

- 11/2022 Legea, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa
- 1/1998 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa, telekomunikazio-zerbitzuetara sartzeko eraikinetako azpiegitura komunei buruzkoa.
- Martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretuaren bidez onartutako Araudia; ekainaren 10eko ITC/1644/2011 Agindua.
- 1066/2001 Errege Dekretua, irailaren 28koa, jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak, emisio erradioelektrikoen murrizketak eta emisio erradioelektrikoen aurkako osasun-babeseko neurriak ezartzen dituen Erregelamendua onartzen duena. Erregelamendu hori otsailaren 24ko 123/2017 Errege Dekretuak, jabari publiko erradioelektrikoa erabiltzeari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, eta urtarrilaren 11ko CTE/23/2002 Aginduak, zenbait telekomunikazio-operadoreen eta telekomunikazio-operadoreen ziurtagiriak aurkezteko baldintzak ezartzen dituenak, aldatu zuten.
- 330/2016 Errege Dekretua, irailaren 9koa, abiadura handiko komunikazio elektronikoen sareak hedatzearen kostua murrizteko neurriei buruzkoa.

I.5.12.1 TRENBIDEA

- 38/2015 Legea, irailaren 29koa, tren-sektoreari buruzkoa.
- 26/2022 Legea, abenduaren 19koa, Trenbide Sektorari buruzko Legea eta haren Araudia aldatzen dituena (abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

I.5.13 ERAIKINEN DISEINU TEKNIKOAK

- Eraikuntzaren Kode Teknikoa), 2006ko martxoaren 17koa, eta gerora egindako aldaketak.
- 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, EAeko gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta bizitoki dotazionalak diseinatzeko arauak arautzen dituena. (EHAA 168.1.09.2022 zk.).

I.5.14 LANDA-INGURUNEA

- 45/2007 Legea, abenduaren 13koa, landa-ingurunearen garapen jasangarriari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.

- 168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategiak arautu eta EAeko Lurralde Historiko eta Eskualdeetako gutxieneko laborantza-unitateak zehazten dituen.
- 50/2025 Dekretua, otsailaren 25ekoa, EAeko abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen.

I.5.15 ERREPIDEAK

- 1/2006 Foru Araua, ekainaren 6koa, Gipuzkoako errepideei buruzkoa.

I.5.16 SALTOKIAK

- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.

I.5.17 BESTE BATZUK

- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzkoa
- 254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
- 11/2023 Legea, azaroaren 9koa, Euskadiko mugikortasun jasangarriarena
- 9/2025 Legea, mugikortasun jasangarriari buruzkoa
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.
- ED 1372/1986, ekainaren 13koa, Toki Korporazioen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen Legea, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.
- Osasunari, hezkuntzari, gizarte-ongizateari eta lurralde-administrazioen berezko eskumeneko beste gai batzuei buruzko araudia eta legeria (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza)
- R130/2017 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, Lehergaien Erregelamendua Onartzen duena.
- 8/2023 Legea, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gurtzarako eta erlijio-aniztasunerako toki edo zentroei buruzkoa.

I.5.18 INDARREAN DAUDEN LURRALDEA ANTOLATZEKO TRESNAK

- Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak, uztailaren 30eko 128/20'19 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zirenak.
- 534/2009 DEKRETUA, irailaren 29koa, Besain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onartzen duena..
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Arlokako Lurralde Plana. Behin betiko onarpena: 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreken ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana (Kantauriko isurialdea). Behin betiko onespina: 1998ko abenduaren 22a eta ondorengo aldaketak.
- Trenbide-sarearen Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespina: 2001eko otsailaren 27a eta ondorengo aldaketak.
- Energia eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespina: 2002ko maiatzaren 14a.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespina: 2004ko uztailaren 27a.
- Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua publikoki sortzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespina: 2004ko abenduaren 21a.
- 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena

I.5.19 BESTELAKO PLAN, DOKUMENTU ETA ESTRATEGIAK:

- Arau-mailarik ez duten baina Plan Orokorrek kontuan hartu beharreko gaiak garatzen dituzten erreferentziatzko dokumentu batzuk.
- Udalerriko Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana.
- Biodibertsitateari buruzko Europako estrategia 2030
- Euskadiko 2030 Agenda.
- Natura 2000 Sarea eta Naturguneen Euskal Sarea
- Euskal Baso Plana (1994-2030)
- Euskadiko Ingurumeneko Esparru Programa 2030
- Landa Garapenerako Euskal Estrategia 2030
- Garraio Iraunkorraren Gidaplana.
- EAEko Geodibertsitate Estrategia 2020.
- 2030eko Euskadiko Biodibertsitate Estrategia.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030.
- Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2050.

- Klima Aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia 2050
- 2015eko maiatzaren 26an onartutako Landa Garapeneko Programa (2015- 2020).
- EAEko Lurzoru Poluituen Plan Orokorra.
- Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrologikoa, 2000/60/EE Europako Zuzentaraua garatuz sustatua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integrala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fauna Interesekeo Eremuen Katalogoa.
- EAEn poluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa eguneratzea, IHOBek egina.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra

1.5.20 NAZIOARTEKO BESTE DIREKTIBA BATZUK

- Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994).
- Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi-bilera (1995).
- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda (NBE 2015).
- 2016ko maiatzeko Munduko Goi-bilera Humanitarioa, Istanbulen.
- Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioa (2015), COP22 (Marrakech) eta COP23 (Bonn).
- 2015-2030erako Hondamendi Arriskua Murrizteko Sendaiko Eremua.
- Hiri-agenda berria (III. Habitat Konferentzia - Quito 2016), hiriak hurrengo 20 urteetan planifikatzeko.
- 2016ko Euskal Adierazpena, Europako hiri eta herrietarako ibilbide-orri berria, Iclei-Iraunkortasunerako hiri eta eskualdeen erakundeak sustatua, "Europa bizigarri eta inklusiborako udalerrri produktibo, jasangarri eta erresilienteen" sorrera definitzen duena.
- Espainiako Hiri Agenda (2019)
- Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050 (2019)

II. DIAGNOSTIKO PARTEKATUA

II.1. KOKAPENA ETA JATORRIA

Segura Gipuzkoako hegoaldean kokatzen da, Goierri eskualdearen barruan, eta Oria ibaiaren goi-bailaran hedatzen da, Aizkorri mendilerroaren magalean. Kokapen geografiko estrategiko honek baldintzatu egin du udalerraren garapen morfologikoa, baita haren egitura sozioekonomikoa ere, espazioaren antolaketan eta hiri-bilakaeran eragina izan duten elementu natural eta topografikoen arabera.

Segurak 29,22 km²-ko azalera administratiboa hartzen du, eta 2025eko Eustaten datuen arabera, 1.499 biztanle ditu erroldatuta. Udalerraren altuera 240 metrokoa da itsas mailarekiko, eta honako mugakide hauek ditu: iparraldean Mutiloa, mendebaldean Zerain eta Zegama, eta ekialdean Idiazabal.

Segura 1256. urtean fundatu zuen Alfontso X.a Jakitunak, helburu estrategiko eta defentsibo zehatzei erantzunez. Bere sorrera beretik, hiribildu gotortu gisa antolatu zen, San Adriango Errege Bidearen kontrola bermatzeko, barnealdea eta kostaldea lotzen dituen komunikazio-ardatz nagusietako bat izanik estrategikoki funtsezkoa baitzen. Toki horrek historian zehar izan duen merkataritza- eta administrazio-eginkizunak bere arrastoa utzi du Erdi Aroko hirigune historikoan, Monumentu Maltzo Historiko-Artistiko izendatua gaur egun, eta herritarren identitate kolektiboan ere irmo irauten du ondare horren presentziak.

Segurako paisaia erabat baldintzatzen du bere lurralde identitatea definitzen duen orografia malkartsuak. Herrigunetik hegoaldera, lurak gora egiten du pixkanaka, Mariñamendi eta Ama-laun bezalako tontorretara iritsi arte, eta Aizkorri mendikatea hurbil dagoela iragartzen duten baso zabalei bide ematen die. Gorantz doan erliebe horrek paisaia- eta ingurumen-balio handiko ingurune naturala osatzen du.

Udalerraren beheko aldeak Oria ibaiaren ibilguaren inguruko haraneko egitura hartzen du, ibaiak Zegamako mugaldeenatik behera egiten duen heinean. Inguru honek egitura fisiko eta funtzionalaren oinarri gisa jarduten du, bai natura-sistemaren antolamenduan, bai erabileren konfigurazioan. Haraneko ardatz horretan kokatzen dira udalerriko nekazaritza-eremu nagusiak, lur emankorren aprobetxamenduan oinarrituta, eta aldi berean, Done Jakue Bidearen trazadura historikoarekin bat egiten duen bide-sarea zeharkatzen du eremua, komunikazio-korridore gisa duen eginkizuna eta lurralde-jarduera egituratzaile gisa duen garrantzia nabarmenduz.

Herrigunea muino baten gaineko gailurrean dago kokatua, Oria ibaiaren haran-ardatz nagusiaren eta Errekaxiki errekaen ibilguaren arteko tartean, ingurune hurbilaren gainean nagusitasunezko posizio topografikoa hartuz. Egitura hori ez da kasualitatez sortua, baizik eta defentsarizpide historikoen emaitza da, eta aldi berean, egungo paisaia-konfigurazioaren eta hiri-egituraren berezitasunari forma ematen dio.

II.2. INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA

Segura Gipuzkoako barnealdean kokatutako udalerrria da, Goierriko eskualdearen barruan. Udalerrriak 935 hektareako azalera du, eta 1.499 biztanle ditu (Eustat, 2025). Itsas mailatik 240 metrora dago, eta honako udalerrri hauekin egiten du muga: iparraldean, Mutiloarekin; mendebaldean, Zerainekin eta Zegamarekin; eta ekialdean, Idiazabalekin.

Udalerrira sartzeko bide nagusia GI-2637 errepidea da; honek Segura Goierriko ibarreko gainerrako udalerriekin eta eskualdeko ardatz komunikatzaile nagusiarekin lotzen du. Errepide horren bidez zuzeneko konexioa dago A-1 autobiarra, Idiazabalgo udalerraren iparraldean, eta Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Madril arteko komunikazio-korridore nagusietako bat osatzen du.

Horrez gain, udalerrriak bigarren mailako sarbideak ere baditu tokiko errepideen bidez; bide horiek Segura inguruko herriekin lotzen dute, hala nola Zegama, Idiazabal eta Mutiloarekin, eta eskualde mailako izaera duen bide-sare bat eratzen dute, inguruko mugikortasunaren egituraketa ahalbidetuz. Errepide nagusia hirigunetik hurbil igarotzen da, baina bertara sartu gabe; horrenbestez, saihestu egiten dira trafikoaren hazkundeak eragin ditzakeen zarata-arazoak, ibilgailu-fluxuaren intentsifikazioa eta airearen kalitatearen narriadura.

Parte-hartze prozesuetan jasotako informazioak erakusten du mugikortasunarekin lotutako azpiegiturek ingurune fisikoaren erabilera sozialean ere zeregin garrantzitsua dutela. Kasu honetan, bereziki baloratzen dira bidegorria eta herrien arteko ibilbideak, natura ingurunearekin lotutako eguneroko erabilera espazio gisa. Herritarren pertzepzioan, bide sare horiek mugikortasun biguna, aisialdia eta natura erabilera uztartzen dituzte, udalerraren bizi kalitatearen osagai garrantzitsu bihurtuz.

Segurako paisaia Oria ibaiaren goi-ibarreko konfigurazioak baldintzatzen du, ibaiak udalerria zeharkatzen baitu eta lurraldearen egitura antolatzen baitu. Erliebeak ibar-hondo estu samarra du, eta bertan pilatzen dira hirigintza- eta nekazaritza-erabilera nagusiak; aldiz, inguruko hegalei jarraikortasunez gora egiten dute mendialdeetara iritsi arte, nagusiki baso-masek estalitako eremuetara.

Ibar hori Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren inguruko mendiguneeekin eta Altzania mendilerroarekin lotutako kota handiagoko erliebeen artean txertatzen da. Ondorioz, paisaia bereizgarri bat eratzen da, non ibar-hondoan kokatutako belardi eta nekazaritza-eremu txikiak txandakatzen diren ibairantz jaisten diren baso-hegalekin. Era berean, tamaina txikiagoko hainbat erreka hegale horietatik jaisten dira eta Oriara isurtzen dira, tokiko sare hidrografikoaren egituraketan lagunduz.

Parte-hartze prozesuan jasotako balorazioek erakusten dute ingurune naturala dela udalerraren aktibo nagusietako bat herritarren ikuspegitik. Ingurune fisikoaren gaineko batez besteko balorazioa 3,32/5 izan da, eta natura ingurunea ez da soilik balio paisajistiko edo ekologikoengatik estimatzen, baizik eta eguneroko bizitzarekin duen lotura zuzenagatik ere. Landa eremuak aisialdi eta atsedeen espazio gisa erabiltzen dira nagusiki, eta horrek ingurune fisikoa ongizatearekin, osasunarekin eta eguneroko deskonexioarekin lotzen du.

Erabilera maiztasuna ertaina bada ere (2,69/5), emaitzek erakusten dute espazio horiek biztanleen eguneroko praktiken parte direla, bereziki 35 eta 50 urte arteko herritarren artean, eta neurri txikiagoan gazteen artean ere. Horrek adierazten du udalerriko ingurune naturalak erabilera sozial aktiboa mantentzen duela, eta ez dela soilik paisaia elementu pasibo gisa hautematen.


Espazio erreferentzialen artean, Madura, Azpilla eta Santa Barbara baselizaren ingurunea identifikatu dira herritarren iruditeria kolektiboan garrantzi handiena duten natura gune gisa. Eremu horiek oinezko aisialdiarekin, pasealeku erabilerekin eta natura ingurunearekiko harremanarekin lotzen dira. Era berean, udalerritik kanpo kokatzen den Kortaberri gunea ere maiz aipatzen da, eta horrek erakusten du biztanleen eguneroko natura erabilerak udal mugatik harago hedatzen direla.

II.2.1 KLIMA

Ikuspuntu klimatologikotik, Segurako udalerria isurialde atlantikoaren barruan kokatzen da. Eremu horretan klima mesotermikoa nagusitzen da, tenperaturei dagokionez izaera epela eta moderatua duena, eta prezipitazio ugari jasotzen dituena. Klima mota hori klima epel heze gisa sailkatzen da, urtaro lehorrik gabekoa, eta klima atlantikoaren ezaugarri bereizgarriak ditu.

Klima honetan Ozeano Atlantikoaren eragina nabarmena da. Ozeanoko ur epelen eraginez leundutako aire-masak kostaldera iristen dira, eta horrek tenperaturen arteko aldakortasuna murrizten du, bai egunaren eta gauaren artean, bai uda eta neguaren artean ere. Ondorioz, oszilazio termikoak ez dira oso handiak izaten urte osoan zehar.


Bestalde, faktore orografikoak azaldu egiten du Euskal Herriko isurialde atlantikoan erregistratzen den prezipitazio-maila handia. Erliebeak eta mendi-sistemek hezetasunez kargatutako aire-masen igoera eragiten dute, eta horrek euri ugari sortzen du. Hori dela eta, urteko batez besteko prezipitazioak 1.200 mm-tik gorakoak izaten dira, zenbait tokitan 2.000 mm baino handiagoak ere izanik.




Iturria: Euskalmet

Tenperaturei dagokienez, nabarmentzekoa da klima honek duen moderazio-maila, bereziki neguen leuntasunean islatzen dena. Uda garaian ere tenperaturak epelak eta neurritsuak izan ohi dira; hala ere, Euskal Herriko kostaldean urteko batez besteko tenperaturarik altuenak erregistratzen dira, 14 °C inguruko balioekin. Nahiz eta udak oro har freskoak izan, tarteka bero handiko episodio laburrak gertatu daitezke, batez ere uda partean, eta tenperaturak 40 °C-ra arte igo daitezke zenbait egunetan.

Euskalmetek 2024. urterako prestatutako parametro meteorologikoen mapen arabera, aztergai den eremuak urteko 1.250 eta 1.500 mm arteko prezipitazio metatua jasotzen du. Urteko prezipitazio-egun kopurua 135 eta 150 egun artekoa da. Bestalde, urteko batez besteko tenperatura 13 eta 14 °C artekoa da, eta izozte-egunak urtean 5 eta 10 egun ingurukoak izaten dira.





Iturria: Euskalmet

II.2.2 AIREAREN KALITATEA

Airearen kalitatearen ebaluazioa giro-airean dauden kutsatzaileen kontzentrazio-mailak aztertze eta baloratzeko prozesua da. Ebaluazio horren bidez, airearen egoera zehazten da, osasunaren babesari lotutako arazko mugak kontuan hartuta.

Osasunaren babeserako ezarritako muga-balioak dituzten kutsatzaile nagusiak honako hauek dira: SO₂ (sufre dioxidoa), NO₂ (nitrogeno dioxidoa), PM10 (10 mikratik beherako diametroa duten partikulak), PM2,5 (2,5 mikratik beherako partikulak), CO (karbono monoxidoa), O₃ (ozonoa), C₆H₆ (bentzenoa), Pb (beruna), As (arsenikoa), Cd (kadmioa), Ni (nikela) eta B(a)P (bentzo(a)pirenoa).

Kutsatzaile gehienak, SO₂, NO₂, PM10, PM2,5, CO eta O₃, lurralde osoko eremu guztietan neurtzen dira. Aldiz, bentzenoaren, metal astunen eta bentzo(a)pirenoaren kasuan, neurketa-estazio gutxiago daude, ebaluazioa Euskal Autonomia Erkidego osorako modu bateratuan egiten baita.

Euskal Autonomia Erkidegoko airearen kalitatea zaintzeko sareak lurraldea zortzi unitatetan banatzen du. Horrez gain, ozonoaren kasuan bost eremuko zonifikazio espezifikoak aplikatzen da, kutsatzaile horrek gainerakoekiko duen portaera berezia dela eta.

Aztergai den eremua Goierri unitatearen barruan kokatzen da (ES1605); unitate horrek 917,9 km²-ko azalera du eta 143.388 biztanle hartzen ditu. Ozonoaren zonifikazio espezifikoari dagokionez, azterketa-eremua Kantauri Haranetako zonan (ES1612) sartzen da; eremu horrek 3.721,44 km²-ko azalera eta 878.218 biztanle ditu.

Azterketa-eremutik hurbilen dagoen airearen kalitatea neurtzeko estazioa "Beasain" da, eta, ondorioz, atal honetan estazio horretako datuak hartzen dira erreferentziatzat. Hala ere, ozonoaren kasuan Beasaingo estazioak ez du erregistrorik; beraz, kutsatzaile hori aztertzeko datuak erregistro erabilgarriak dituen hurbileneko estaziotik hartuko dira, hau da, "Zumarraga" estaziotik.

Airearen kalitatearen helburu mota desberdinak daude:

- **Muga-balioa:** ezagutza zientifikoetan oinarrituta ezarritako maila, ondorio kaltegarriak saihestu, prebenitu edo murrizteko, eta gainditu behar ez dena.
- **Helburu-balioa:** ahal den neurrian gainditu behar ez den maila, ondorio kaltegarriak saihestu, prebenitu edo murrizteko.
- **Epe luzerako helburua:** epe luzera gainditu behar ez den maila, neurri proportzionatuak erabilita hori saihestea ezinezkoa denean izan ezik; helburua ondorio kaltegarrien aurrean babes eraginkorra ematea da.
- **Informazio-ataria:** kutsatzaile baten maila, zeinetatik aurrera iraupen laburreko esposizioak arriskua dakarren bereziki zaurgarriak diren biztanle taldeentzat; kasu horretan, administrazio eskudunek informazio berehalakoa eta egokia eman behar dute.
- **Alerta-ataria:** kutsatzaile baten maila, zeinetatik aurrera iraupen laburreko esposizioak arriskua dakarren biztanleria osoarentzat, eta administrazio eskudunek berehalako neurriak hartu behar dituzten.

Azken airearen kalitateari buruzko txostenaren emaitzak (2024. urtea), aurrez aipatutako neurketa-estazioetan jasotako datuetan oinarrituta, honela laburbiltzen dira:

PM10 partikulen kasuan, $50 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko eguneroko muga-balioa bi alditan gainditu da; araudiak, ordea, urtean gehienez 35 gainditze onartzen ditu. Urteko batez besteko kontzentrazioaren eguneroko balioa $40 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko urteko muga-balioaren azpitik dago nabarmen, $15 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko balioarekin; ondorioz, airearen kalitateari dagokionez "oso ona" gisa sailkatzen da.

PM2,5 partikulen eguneroko balioen batez bestekoak $9,9 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko kontzentrazioa erakusten du, urteko $25 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko muga-balioaren oso azpitik. Horrenbestez, kutsatzaile honi dagokionez ere airearen kalitatearen balorazioa oso ona da.

Sufre dioxidoari (SO_2) dagokionez, ez da $350 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko eguneroko muga-balioa behin ere gainditu, urtean gehienez 35 gainditze baimentzen direlarik,, ezta $125 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko eguneroko muga ere, urtean gehienez 3 gainditze onartzen direlarik,. Izan ere, erregistratutako gehieneko balioak muga horietatik oso urrun geratzen dira, $25 \mu\text{g}/\text{m}^3$ eta $4 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko emaitzekin, hurrenez hurren. Ondorioz, SO_2 -ari lotutako emaitzak "oso onak" gisa baloratzen dira.

Nitrogeno dioxidoaren (NO_2) neurketetan, orduko gehieneko balioa $62 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa izan da, eta urteko batez bestekoa $14 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa. Kontuan hartuta orduko muga-balioa $200 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa dela, urtean gehienez 18 gainditzerekin, eta urteko batez bestekoaren muga $40 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa dela, lortutako emaitzak oro har "oso onak" izan dira; salbuespen bakarra orduko gehieneko balioa da, "ona" gisa sailkatua.

Karbono monoxidoaren (CO) kasuan, zortzi orduko batez besteko mugikorren eguneroko gehieneko balioa hartu da erreferentziatzat, $10 \text{mg}/\text{m}^3$ -ko muga-balioarekin. Erregistratutako gehieneko emaitza $0,91 \text{mg}/\text{m}^3$ -koa izan da; beraz, kutsatzaile horri dagokionez ere airearen kalitatea "oso ona" dela ondorioztatzen da.

Ozonoari (O_3) dagokionez, ez da $240 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko alerta-atalasea gainditu, hiru orduz jarraian neurtua,, ezta biztanleriari informazioa emateko ezarritako $180 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko orduko atalasea ere. Izan ere, erregistratutako orduko gehieneko balioa $127 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa izan da. Osasunaren babese-

rako ezarritako helburu-balioari dagokionez ,120 µg/m³ zortzi orduko batez bestekoan, hiru urteko aldian urtean gehienez 25 gainditzerekin, ez da muga hori behin ere gainditu 2024an; aldiz, 2022-2024 aldian bi gainditze erregistratu ziren. Gehieneko balioa 119 µg/m³-koa izan da.

Azkenik, bentzenoaren (C₆H₆) urteko batez besteko kontzentrazioak baxuak izan dira eta urteko araudiak ezarritako 5 µg/m³-ko mugaren barruan mantendu dira.

Metal astunen eta bentzo(a)pirenoaren [B(a)P] mailak ere oso baxuak izan dira neurketak egin diren lau estazioetan ,M^a Díaz de Haro (Bilbo), Erandio (Erandio), Avda. Tolosa (Donostia) eta Tres de Marzo (Gasteiz),, eta kasu guztietan araudiak ezarritako muga barruan mantendu dira. Azpimarratzekoa da kuantifikazio-mugaren azpitik dauden datuen ehuneko handia, bereziki Avda. Tolosa eta Tres de Marzo estazioetan.

Ondorio gisa, Euskal Autonomia Erkidegorako eskuragarri dagoen airearen kalitateari buruzko azken urteko txostenaren arabera (2024), ez da inolako kutsatzailerentzat ezarritako mugabaliorik gainditu. Oro har, lortutako emaitzek airearen kalitate "ona" edo "oso ona" erakusten dute.

Airearen kalitatearen egoera	SO ₂	NO ₂	O ₃	PM ₁₀	PM _{2,5}
OSO ONA	0-100 µg/m ³	0-40 µg/m ³	0-80 µg/m ³	0-20 µg/m ³	0-10 µg/m ³
ONA	100-200 µg/m ³	40-100 µg/m ³	80-120 µg/m ³	20-35 µg/m ³	10-20 µg/m ³
ERREGULARRA	200-350 µg/m ³	100-200 µg/m ³	120-180 µg/m ³	35-50 µg/m ³	20-25 µg/m ³
TXARRA	350-500 µg/m ³	200-400 µg/m ³	180-240 µg/m ³	50-100 µg/m ³	25-50 µg/m ³
OSO TXARRA	500-1250 µg/m ³	400-1000 µg/m ³	240-600 µg/m ³	100-1200 µg/m ³	50-800 µg/m ³

Kutsatzaile bakoitzerako maila bakoitzean ezarritako balio-tarteak

II.2.3 OROGRAFIA

Udalerriko kotarik baxuenak Oria ibaiaren ibilguari dagozkio, bereziki iparraldeko tartean kokatutako eremuan; bertako altuerak 200 eta 225 metro artekoak dira.

Kotarik altuenak, aldiz, Mariñamendi izeneko katalogatutako tontorrean eta haren inguruan kokatzen dira, 787 metroko garaierarekin. Era berean, nabarmentzekoa da Aitz Leor / Unamendi katalogatutako tontorra ere, 730 metroko altuerarekin.

Dokumentazio grafikoan ikus daitekeen moduan, maldarik txikieneko eremuak Oria ibaiaren ezker aldeko nekazaritza-lurretan kokatzen dira, udalerraren iparraldean. Hala ere, hiriguneak eta haren inguruek ere orografia nahiko laua dute, inguruko gainerako eremuekin alderatuta.

Udalerrian nagusi den malda-tartea %30 eta %50 artekoa da, eta udal azaleraren %46,5 inguru hartzen du. Ondoren, %20 eta %30 arteko maldak dira hedadura handiena dutenak. Jarraian aurkeztzen den taulan Segurako udalerrian identifikatutako malda-tarteen banaketa azaltzen da, azalera-irizpideen arabera sailkatuta.

Ikus E02 Orografia planoa.

Malda tarreak	Azalera (Ha)	%
<3%	26,0311	2,78%
3-5%	22,7804	2,44%
5-10%	42,9637	4,59%
10-20%	113,5680	12,14%
20-30%	172,1992	18,41%
30-50%	434,8538	46,48%
50-100%	123,0928	13,16%
GUZTIRA	935,489	100,00%

II.2.4 GEOLOGIA

II.2.4.1 GEOLOGIA-TESTUINGURUA

Segurako udalerrria Gipuzkoako hegoaldean kokatzen da, Euskal-Kantauriar Arroaren barruan. Arro sedimentario hori Mesozoikoan garatu zen, Bizkaiko golkoaren rifting- eta irekiera-prozesuekin lotuta, eta ondoren Alpiden orogeniaren ondorioz deformatu zen. Ikuspegi estrukturaletik, azterketa-eremua Oiz Unitatea izeneko egitura-domeinuaren barruan txertatzen da, arroaren hegoaldeko egitura-unitateetako batean, hain zuzen ere.


Udallerriaren iparraldean Kretazeo goiztiar eta berantiarreko material sedimentarioak azaleratzen dira nagusiki. Horien artean bereziki aipagarriak dira Supraurgoniarreko materialak, marga, kareharri margatsu eta maila detritikoen txandakatzearen bidez eratuak. Material horiek Kretazeoko arroaren barruan ingurune marino sakonagoetaranzko bilakaera islatzen dute. Oro har, kompetentzia mekaniko txikiagoko materialak dira; ondorioz, malda leunagoak eta modelaketa diferentzialeko eremuak garatzen dira, urgoniar mailen aldean.

Udallerriaren hegoaldea, berriz, Konplexu Urganiarreko materialek osatzen dute. Material horiek plataforma itsastar azaleko inguruneetan metatutako kareharri arrezifal eta bioklastikoen serie lodiek eratzen dituzte, Aptiar-Albiar garaian sortuak. Litologia horiek kompetentzia eta higadura-erresistentzia handiagoa dute; horregatik, erliebe malkartsuagoak eta paisaian ondo definitutako mendilerroak eratzen dituzte maiz.



Ibar-hondoan eta topografia baxueneko eremuetan Kuaternarioko jalkin berriak garatzen dira, Oria ibaiaren eta hegaleetako dinamika geomorfologikoari lotuta. Material horiek alubioi, kolumbioi eta gutxi kontsolidatutako metaketa detritikoz osatuta daude. Tokian tokiko estaldura modura agertzen dira Kretazeoko harkaitz-substratuaren gainean, eta giza okupaziorako nahiz nekazaritza-erabileretarako baldintzarik egokienak dituzten azalera lau eta egonkorak eratzen dituzte.

Oro har, Segura Euskal-Kantauriar Arroaren hegoaldeko egitura-domeinuaren barruan integratzen da. Domeinu horren ezaugarri nagusia da itsas jatorriko Kretazeoko materialen presentzia

zabala, Alpide orogeniaren ondorioz tolestura handiak jasan dituztenak eta, neurri batean, Oria ibarrari lotutako Kuaternarioko jalkinek estaliak daudenak.



Euskal Herriko mapa geologikoa, 88-IV (BEASAIN) kuadrantea; bertan kokatzen da Segurako udalerraren iparraldea (koardro horia). Iturria: EVE.




- | | | |
|--|--|--|
| C. SUPRAURGONIANO
K. GAINURGONDARRA | 21 | Brechas olistostromicas
<i>Bretxa olistostromikoak</i> |
| | 20 | Areniscas y lutitas
<i>Harearriak eta lutitak</i> |
| | 19 | Areniscas masivas y estratificadas
<i>Harearri masiboak eta geruzatuak</i> |
| | 18 | Argilitas y/o limolitas
<i>Argilitak edota limolitak</i> |
| | 17 | Lutitas calcáreas con septarias y areniscas; niveles eslampuzados
<i>Septariadun lutita karetsuak eta harearriak; maila slumpeziatuak</i> |
| | 16 | Margas, parabrechas calcáreas, limolitas y areniscas
<i>Margak, parabretxa karetsuak, limolitak eta harearriak</i> |
| | 15 | Bloques olistolíticos de calcarenitas bioclásticas
<i>Kalkarenita bioklastikazko bloke olistolitikoak</i> |
| | 14 | Calcarenitas bioclásticas (encrinitas)
<i>Kalkarenita bioklastikoak (enkrinitak)</i> |
| | 13 | Calcarenitas y brechas calcáreas
<i>Kalkarenitak eta bretxa karetsuak</i> |
| | 12 | Calcarenitas arenosas
<i>Kalkarenita hareatsuak</i> |
| C. URGONIANO
K. URGONDARRA | 11 | Bloques olistolíticos de areniscas
<i>Harearriazko bloke olistolitikoak</i> |
| | 10 | Limolitas calcáreas
<i>Limolita karetsuak</i> |
| | 9 | Areniscas y limolitas
<i>Harearriak eta limolitak</i> |
| | 8 | Margas oscuras, limolitas calcáreas, calcarenitas arenosas y areniscas; niveles de brechas olistostromicas
<i>Marga ilunak, limolita karetsuak, kalkarenita hareatsuak eta harearriak; bretxa olistostromikatako pasaguneak</i> |
| | 7 | Niveles métricos eslampuzados
<i>Maila metriko slumpeziatuak</i> |
| | 6 | Margas y turbiditas calcáreas; brechas calcáreas
<i>Margak eta turbidita karetsuak; Bretxa karetsuak</i> |
| | 5 | Calizas
<i>Karriak</i> |
| | 4 | Margocalizas y margas
<i>Margakarriak eta margak</i> |
| | 3 | Limolitas y areniscas calcáreas; tramos de margas y margocalizas
<i>Limolitak eta harearri karetsuak; marga eta margakarriazko pasaguneak</i> |
| | 2 | Margas
<i>Margak</i> |
| 1 | Calizas de rudistas y corales en bancos decimétricos-métricos
<i>Errudista eta koraldun karriak multzo dezimetro-metrikotan</i> | |

Euskal Herriko mapa geologikoa, 113-II (ZEGAMA) kuadrantea; bertan kokatzen da Segurako udalerraren hegoaldea (koadro horia). Iturria: EVE.

II.2.4.2 GEOMORFOLOGIA

Ikuspegi geomorfologikotik, Segurako udalerriak unitate aniztasun nabarmena erakusten du. Udalerriko geomorfologia bereziki Oria ibaiaren eraginpean dago, haren ertzak alubioi-jalkin berriek osatzen baitituzte neurri handi batean. Jalkin horiek inguratzen dituzten hegaleetan eta udalerriko beste eremu beheratu batzuetan, berriz, kolubioi-jalkin finak dira nagusi, hau da, ale xeheko hegale-metaketak.

Hirigunearen inguruan eta udalerraren ipar-ekialdeko zati handi batean, erliebea ibai-terrazen bidez antolatzen da; terraza horiek ibaiaren sedimentazio-fase zaharragoen adierazgarri dira. Azkenik, eremu puntualago batzuetan beste unitate geomorfologiko batzuk ere identifikatzen dira, hala nola azaleko lur-irristadurak, higadura aktiboko eremuak eta aire zabaleko meatze-indusketa bat; elementu horiek guztiak udalerriko paisaiaren heterogeneotasuna areagotzen dute.



Segurako unitate geomorfologikoen plano. Iturria: egileek egina (GeoEuskadi).

II.2.4.3 LITOLOGIA

Udalerriko litologia osaera geologiko askotarikoek eratzen dute. Iparraldeko eremuetan lutitak dira nagusi, eta, gainera, udalerrri osoan hedadura handiena duen unitate litologikoa osatzen dute. Hegoaldean, berriz, kareharriak, margak eta margo-kareharriak dira nagusi.

Gainerako unitate litologikoen presentzia txikiagoa dute, eta udalerrri osoan zehar modu sakabatu agertzen dira. Ondorengo taulan Segurako udalerrriaren osaera geologikoa eratzten duten unitate litologiko nagusiak adierazten dira.

UNITATE LITOLGIKOAK	IRAGAZKORTASUNA	AZALERA (ha)	UDALERRIAREN EHUNEKOA (%)
Lutitak	PB - Iragazkortasun baxua porositate bidez	356,5656	38,12
Kareharrizko bretxak matrize margatsuan	FM - Iragazkortasun ertaina fisurazio bidez	198,9733	21,27
Kareharrizko parabrextak, margak eta kalkarenitak	PM - Iragazkortasun ertaina porositate bidez	190,4660	20,36
Jalkin alubialak	PM - Iragazkortasun ertaina porositate bidez	69,6929	7,45
Margo-kareharriak eta marga ilunak	FB - Iragazkortasun baxua fisurazio bidez	51,9098	5,55
Hareharriak eta limolitak	PM - Iragazkortasun ertaina porositate bidez	44,4031	4,75
Hareak, hareharriak eta mikro-konglomeratu mailak	PM - Iragazkortasun ertaina porositate bidez	15,6740	1,68
Kalkarenita bioklastikozko bloke olistolitikoak	FA - Iragazkortasun handia fisurazio bidez	4,2435	0,45
Ostrido eta orbitolinadun kareharriak	FM - Iragazkortasun ertaina fisurazio bidez	3,5403	0,38
GUZTIRA			935,4685

Ikus 03. planoak.- Geologia – Litologia.


Ez da interes geologikoko eremurik ez punturik aurkitu.

II.2.4.4 BALDINTZA GEOTEKNIKOAK

Baldintza geoteknikoak dagokienez, Segurako udalerrian nagusiki baldintza onargarriak edo aldekoak identifikatzen dira. Hala ere, zenbait eremu txikitik baldintza desfaboragarriak edo oso desfaboragarriak agertzen dira, bereziki Oria ibaiaren ertzetan; eremu horiek material alubialekin eta uholde-arriskua duten guneekin bat datoza.

Ikus 04 planoak.- Geologia - Baldintzatzaile geoteknikoak

Hona hemen eremu bakoitzeko baldintzatzaile geoteknikoak:



Segurako udalerriko baldintza geoteknikoen plano. Iturria Geoeuskadi. Egileek egina.

ID	BALDINTZAK	ARAZOAK
1	Ona	-
2	Onargarria	Sostengu-ahalmena eta eserlekuak
3	Onargarria	Haustura bizia
4	Onargarria	Malda handiak (>% 30)
5	txarra	Malda handiak (>% 30) eta haustura handiak
6	Oso txarra	Uholdea, istiltzea eta sostengu-ahalmena eta asentuenak
7	Oso txarra	Mendi-mazelaren ezegonkortasuna, malda handiak (>% 30) eta sostengu-ahalmena eta asentuenak

II.2.5 EDAFOLOGIA ETA GAITASUN AGROLOGIKOA

Lurzoruaren funtzioa modu desberdinean ulertu behar da sistema naturaletan eta agrosistemetan: lehenengoetan ikuspegi ekologikotik aztertzen da nagusiki, eta bigarrenetan, berriz, produktibitatearen ikuspegitik.

Segurako udalerrriaren ezaugarri edafologikoak Oria ibaiaren ibarrean duen kokapenak eta inguruko mendi-erliebeak baldintzatzen dituzte. Hegaletan sakonera txikiko edo ertaineko lurzorua dira nagusi; oro har, ehundura frankoa edo franko-buztintsua dute, horizonte gutxi bereiztuekin eta harkaitz-zatien presentzia ohikoarekin. Lurzoru horiek batez ere kanbisolei dagozkie, eta malda handieneko edo garapen edafiko txikiagoko eremuetan erregosolak ere agertzen dira, material margatsu, hareharri eta kareharrizkoen gainean garatuak.

Oria ibaiaren ibar-hondoan eta jalkin alubial nahiz kolubialen metaketa-eremuetan, berriz, lurzoru sakonago eta eboluzionatuagoak garatzen dira, materia organiko gehiago eta ura atxikitzeko gaitasun handiagoa dutenak. Eremu horietan fluvisolak eta lotutako lurzoru kolubialak dira nagusi, eta, oro har, gaitasun handiagoa dute nekazaritza-erabilera tradizionaletarako, bereziki belardietarako eta eskala txikiko laborantzarako.

Ikus daitekeenez, udalerrriaren zati handiena baso-erabilera da; aldiz, malda txikieneko eremuetan, hirigunearen inguruan bereziki, "Nekazaritza-Abeltzaintza: Trantsizioko Landa Paisaia" eta "Balio Estrategiko Handia" kategorietako lurzorua pilatzen dira nagusiki.

Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren (PTS Agroforestala) sailkapenari dago-kionez, nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako lurzoruek ere presentzia nabarmena dute udalerrian. Alde batetik, balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintza lurrek 168,59 hektarea hartzen dituzte (%18,02), eta, bestetik, trantsizioko landa-paisaia kategorian sailkatutako lurrek 175,54 hektarea (%18,77). Bi kategorien artean, guztira 344,13 hektarea biltzen dira, hau da, sailkatutako azalera osoaren %36,79.

Ikusi E24 plana. Lurralde Plan Sektoriala (LPS) - Nekazaritza eta Basogintza

II.2.6 HIDROGRAFIA

II.2.6.1 HIDROGRAFIA SAREA


Segurako udal-mugartearen ipar-ekialdeko zatia Oria II izeneko isurialde-arroaren barruan kokatzen da; gainerako lurraldea, berriz, Oria I isurialde-arroan sartzen da. Biak Oria unitate hidrologikoaren parte dira, eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren esparruan daude. Horrenbestez, uraren arloko eskumena Kantauri Ekialdeko Konfederazio Hidrografikoari (KEKH/CHCO) dagokio.

Oria ibaiak udalerrria mendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatzen du, eta haren inguruan pilatzen dira udalerriko nekazaritza-lur nagusiak, bereziki ipar-mendebaldean; hirigune nagusia, berriz, ibaiaren hego-ekialdean kokatzen da. Ikuspegi hidrologikotik, Oria ibaiaren adar nagusien artean nabarmentzekoak dira hegoaldean kokatutako 3. mailako Traska erreka, ekialdeko udal-

mugan zehar doan 2. mailako Landarregi erreka eta iparraldeko mugan kokatutako Troi ibaia. Ibai eta erreka horiek guztiek, Oria ibaiarekin batera, aurrez aipatutako Oria I azaleko ur-masa osatzen dute.

Horrez gain, udalerrian badira beste hainbat erreka txiki eta gainazaleko ur-laster ere, Segurako sare hidrografikoa osatzen eta egituratzen dutenak.

Ikus E05 planoan.- Hidrologia – Lur gaineko urak.



Segurako udalerriko sare hidrografiko nagusia. Egileek egina. Iturria: URA (GeoEuskadi).

II.2.6.2 AZALEKO HIDROLOGIA

Arestian adierazi den bezala, Segurako udalerritik Oria ibaia igarotzen da, eta haren ibilgua bi ur-masa nagusitan banatzen da: Oria I ur-masa, ibaiaren sorburutik Segurako hirigunera artekoa, eta Oria II ur-masa, hortik aurrerakoa. Ibai bera hainbat ur-masatan banatu daiteke tarteka, ikerketa eta kudeaketa ikuspegitik unitate praktiko gisa aztertzeke.

Segurako udalerria uholde-arriskuaren eraginpean dago hainbat eremutan, bereziki Oria ibaiaren ezkerreko lautadetan, non laborantza-lurrak nagusitzen diren. Bertan 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanak identifikatzen dira. Hala ere, hirigune nagusia arrisku horretatik kanpo geratzen da.

Ikus E10 planoan – Hidrologia eta Uholde-arriskua.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2022-2027 Plan Hidrologikoko Babestutako Guneen Erregistroak (RZP) ingurune urtarrari lotutako eta Europako nahiz gainerako araudien bidez babestutako eremuak biltzen ditu. Azterketa-eremuaren ingurunea kontuan hartuta, aipatzekoa da jarduketa-esparruan hainbat babes-eremu identifikatzen direla (ikus II.2.9 atala – Babestutako guneen erregistroa): mehatxatutako fauna-espezieentzako interes bereziko eremuak, hiri-hornidurarako ur-hartuneen babes-eremuak, habitat babestuak eta hidrologiarekin lotutako ondare-elementuak, besteak beste.

Bestalde, Segurako udalerrian ur-aprobetxamendurako 38 ur-puntu identifikatu dira. Horietatik 9 azaleko ur-hartuneak dira, eta gainerako 29ak iturburuak.

Jarraian, ur-puntu bakoitzaren ezaugarri xehatuak jasotzen dituen taula aurkezten da:

IZENDAPENA	ERABILERA	T FORMA	OHARRA	MOETA
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Presa txikiak eta ubideak		Lur gaineko bilketa
Oria ibaia	-	Zuzeneko kanala		Lur gaineko bilketa
Iturralde	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Iturburua	Abelzaintza	-		Iturburua
Bidaburu	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Itur-Sakona	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Berdai	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Iturralde	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Sagasti	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Etxa-Buru	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Andraundieta-Burua	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Etxe-Alde	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Iturburua	Abelzaintza	-		Iturburua
Potzuta	Abelzaintza	-		Iturburua


Goiko Zelai	Abelzaintza	-		Iturburua
Mendotzaldea	Hiri-hornidura	-	Ur mineral senda- garriak. 76/10/30etik 77/5/20ra bitar- teko egokitzapena	Iturburua
Etxeondoa	Hiri-hornidura	-	Ur mineral senda- garriak. 76/10/30etik 77/5/20ra bitar- teko egokitzapena	Iturburua
Elortza	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Martiko	Abelzaintza	-		Iturburua
Etxaburu	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Urdare-Ondo	Abelzaintza	-		Iturburua
Troska	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Gastiñari-txulo	Abelzaintza	-		Iturburua
Etxe-Atze	Abelzaintza	-		Iturburua
Sakona	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Santa Barbara	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Etxaburu	Abelzaintza	-		Iturburua
Mañe	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Sagasti-Txulo	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Altamira	Hiri-hornidura	-		Iturburua
Aitz-Ude	Hiri-hornidura	-		Iturburua

II.2.6.3 AZALEKO UREN KALITATEA


Euskal Autonomia Erkidegoko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sareak, Uraren Euskal Agenciak kudeatua, ez du Segurako udalerrian ur-masen egoera kontrolatzeko estaziorik kokatzen. Hala ere, ondoko Zegama eta Idiazabal udalerrietan Oria ibaiari lotutako kontrol-estazioak badaude, eta jarraian horien datuak aztertzen dira.

Zegaman "Zegama (Goi Oria)" izeneko estazioa dago, ORI055 kodearekin identifikatua. Estazio hori Oria ibaiaren lehen tarteari lotuta dago, hau da, sorburutik garatzen den Oria I ur-masari. Bestalde, Idiazabalen "Segura (Goi Oria)" izeneko estazioa dago, ORI122 kodearekin; estazio hori Oria II ur-masaren tarteari lotuta dago, Segurako udalerraren iparraldean Oria eta Troi ibaien arteko elkargunearen ondoren.


Azken estazio hori da Segurako HAPOaren esparruko kalitate hidrologikoaren egoera adierazteko erreferentzia egokiena, nahiz eta udalerriko Oria ibaiaren zati handi bat Oria I ur-masaren barruan kokatzen den. Ondorengo irudian bi estazioen kokapena ikus daiteke, ur-masekin eta Segurako udal-mugarekin duten harremanaren arabera.



Oria ibaiari lotutako uren kalitate-estazioak (gurutze berdea), Segurako udalerrinari dagokionez. Iturria: URA (GeoEuskadi).



Masaren izena:	Oria I
Estazioa:	Segura (Goi Oria)
Demarkazioa:	Kantauri Ekialdea. Erki-dego artekoak
Egoera globala	ONA
Egoera ekologikoa	ONA
Egoera kimikoa	ONA
Urtea	2024




Masaren izena:	Oria II
Estazioa:	Segura (Goi Oria)
Demarkazioa:	Kantauri Ekialdea. Erki-dego artekoak
Egoera globala	IA ONA
Egoera ekologikoa	ERDIZKAKOA
Egoera kimikoa	ONA
Urtea	2024

2024ko "EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea" txostenaren arabera, Segura (ORI122) estazioak azken bost urteetako egoeraren bilakaerari buruz honako emaitza konparati-boak eskaintzen ditu:

Tabla 87 Ori II. Resumen de indicadores de estado ecológico (claves ver Tabla 7)

ORI122	2020	2021	2022	2023	2024	20-24
MBf	Mo	B	B	B	B	B
CFI	B*	Mo	B	B	Mo	Mo
IPS	B	B	B	B	MB	B
IBMR ¹	B*	B	B*	B*	B	B
EB	Mo	Mo	B	B	Mo	Mo
EFQ	B	B	B	B	<B	B
EHM	Mo	Mo*	Mo*	Mo*	Mo	Mo
EE	Mo	Mo	B	B	Mo	Mo



2020-2024 bosturtekoan zehar egoera ekologikoaren adierazleen laburpena: MBf makroornogabeak, CFI arrain-fauna, IPS fitobentosa eta IBMR makrofitoak; baita egoera biologikoa (EB), fisiko-kimikoa (EFQ), hidromorfologikoa (EHM) eta egoera ekologikoa (EE) ere. "1" adierazleak ez du egoera biologikoaren kalkuluan parte hartzen. *Aurreko datua. Iturria: URA..

Segurako Ori II ur-masak (ORI122) egoera ekologiko "ona" baino baxuagoa izan zuen 2020, 2021 eta 2024 urteetan. Egoera hori, nagusiki, komunitate biologikoetan antzemandako gabezi-ekin lotu zen: 2020an balio ekologiko handiko makroornogabeen urritasunarekin, eta 2021ean nahiz 2024an arrain-komunitatean laina espeziearen gehiegizko presentziarekin. Gainera, 2024an egoera fisiko-kimikoa ere "ona" baino okerragoa izan zen, EFQren gehiegizko balioen ondorioz.

Hala ere, 2024ko laginketa-kanpainen makroornogabeen komunitateak kalitate ona erakutsi zuen, aberastasun handia eta balio ekologiko handiko taxonen presentzia nabarmenduz. Arrain-komunitateak, oro har, kalitate ona mantendu zuen, nahiz eta une jakin batzuetan egoera moderatua izan. Bertan ohiko espezieak identifikatu ziren, hala nola amurrua, aingira, ezkailua eta mazkar arraintxoak, laina espezie nagusiaren presentziarekin batera.

Bestalde, flora urtarrak ere oro har kalitate ona erakutsi zuen; fitobentoseko organismo gehienak kutsadurarekiko sentikorrek ziren, bereziki ibaiaren goi-ibilguetako uretan.

Parte hartze prozesuetan jasotako pertzepzioek, ordea, ikuspegi sozial kritikoagoa erakusten dute ibai sistemaren egoerari dagokionez. Segurako sistema hidrikoak 3,10eko batez besteko balorazioa jaso zuen, hau da, egoera ertain baten pertzepzioa dago, ez guztiz negatiboa baina ezta asebetegarria ere. Hala ere, hurrek zein helduek partekatutako ikuspegi kualitatiboan ibai sarearekiko balorazioa negatiboagoa da, bereziki ibaiertzen mantentze egoerarekin lotuta.

Parte hartzaileek garbiketa eskasak, plastikoen eta zaborren presentzia eta ibaiertzen kontserbazio gabeziak nabarmendu zituzten. Elementu horiek ingurumen kalitatearen gaineko arazo gisa identifikatzeaz gain, paisaiaren kalitate bisualaren narriadura ere eragiten dutela adierazi zen, eta horrek biztanleen esperientzia espazialean eragin zuzena duela. Ondorioz, ibaiertzeko eremuak ez dira aisialdi edo egonaldi espazio gisa erabiltzen, eta arrantzaren kasuan ere herritarrek udalerritik kanpoko gunetara jotzeko joera dutela azaldu zuten.

Diagnostiko teknikoaren eta parte hartze prozesuen arteko konparazioak erakusten du, beraz, uraren kalitate biologiko eta kimikoak oro har egoera onargarriak mantentzen dituen arren, ibai ingurunearen pertzepzio soziala ez dagoela soilik parametro ekologikoen menpe, baizik eta mantentze, irisgarritasun, garbitasun eta erabilgarritasun baldintzek ere baldintzatzen dutela.

Horrek agerian uzten du ibai sareak potentzial handia duela ingurumen balioari, paisaia kalitateari eta erabilera sozialari dagokienez, baina potentzial hori gaur egun mugatuta dagoela kontserbazio eta kudeaketa gabezien ondorioz. Testuinguru horretan, HAPOak ibaiertzen leheneratzea, mantentze ekologikoa eta erabilera publikorako egokitzapena uztartzen dituzten estrategiak txertatu beharko ditu, sistema hidrikoaren kalitate ekologikoa ez ezik haren integrazio sozial eta paisajistikoa ere indartzeko.

II.2.6.4 LURPEKO HIDROLOGIA

Azterketa-eremua nagusiki Hegoaldeko Antiklinorioa izeneko lurpeko ur-masaren gainean kokatzen da. Masa horrek akuifero karstiko bat du, zentzu hertsian ulertuta, material detritiko ez-konsolidatuekin lotua. Hala ere, udalerrriaren mendebaldeko muturreko eremu txiki bat "Troya" izeneko lurpeko ur-masaren barruan sartzen da; hori ere Hegoaldeko Antiklinorioaren domeinuari dagokio, eta izaera karstikoko akuiferoa du.

Akuiferoen kutsadura-arriskuko zaurgarritasunari dagokionez, Segurako udalerrriaren zatirik handienean zaurgarritasun baxua, oso baxua edo ia nulua identifikatzen da. Dena den, udalerrriaren erdialdeko eremuak zaurgarritasun ertaina du, eta hori da baldintzarik desfaboragarrienak dituen sektorea.

Ikus E07 planoak – Hidrologia / Akuiferoen zaurgarritasuna.

Uraren Euskal Agentziak kudeatutako "Euskal Autonomia Erkidegoko lurpeko uren kontrol-sarearen mantentzea" izeneko azken txostenaren arabera (2024), udalerrrian identifikatutako bi lurpeko ur-masek egoera kuantitatibo eta kimiko ona dute.

Hala ere, Segurako udalerrrian ez dago lurpeko ur-masen kontrolerako estaziorik instalatuta.

Tabla 17 Estado Cuantitativo de las Masas de Agua Subterránea de la CAPV (2024). (Bueno: BU; Malo: MA)

Masa de agua	Balance Hídrico	Intrusión	MSPF Asociadas	ETDAS Asociados	Estado Cuantitativo
Anticlinorio sur	BU	BU	BU	BU	BU
Troya	BU	BU	BU	BU	BU

EAEko lurpeko ur-masen egoera kuantitatiboa. Iturria: URA.

Ikus E06 planoak.- Hidrologia - Lurpeko urak

II.2.6.5 INTERES HIDROGEOLOGIKOKO KOKALEKUAK

Hidrogeologiari dagokionez, Segurako udalerrian Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Hidrogeologikoko bi eremu bereizten dira argi eta garbi. Lehenengoa Oria ibaiaren ingurukoa da, udalerrriaren iparraldeko hirigune nagusia zeharkatzen duen tartean kokatua, eta Kuaternarioko Domeinu Hidrogeologikoaren barruan sartzen da. Bigarren eremua udalerrriaren erdialdea zeharkatzen duen sektore isolatu bati dagokio, eta Hegoaldeko Antiklinorioaren Domeinu Hidrogeologikoaren barruan kokatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Hidrogeologikoko Eremuak hainbat akuiferok, elkarren artean independenteak edo erlazionatuak, osatutako eremu geografikoak dira, eta baliabide hidrikoaren ikerketa eta kudeaketarako unitate praktiko gisa hartzen dira.


Kuaternarioko Domeinu Hidrogeologikoa material detritikoz osatua dago nagusiki; oro har, material horiek ez daude kontsolidatuta, eta ale-tamaina oso aldakorra dute, buztinetatik hasi eta legar nahiz blokeetara arte. Haien ezaugarriak sortu dituzten ingurune morfogenetikoaren arabera dira: flubialak, lakustrekoak, kostaldekoak edo hegaleetakoak, besteak beste. Jalkin horien adina berria da, Pleistozenoaren amaieratik gaur egunera artekoa. Kuaternarioko jalkinek porositate intergranularreko eta anisotropia handiko akuifero detritikoak eratzen dituzte, oro har ez-kontsolidatuak, eta haien erregimena librearen eta konfinatuaren artekoa izan daiteke.

Definitutako gainerako domeinuekin alderatuta, Kuaternarioari dagokion domeinuak ez du azalera jarraiturik osatzen; aitzitik, lurralde osoan zehar modu sakabanatuan agertzen da. Kuaternarioko jalkinen ezaugarri bereziek eta horiei lotutako akuiferoen propietateek domeinu bakar batean integratzea justifikatzen dute, nahiz eta erreferentzia espazial bakarra ez izan.

Azalera txikia izan arren, material horien ezaugarriak oso aldakorrak dira. Azterketa-eremuan alubioi eta alubioi-kolubioi jalkinak identifikatzen dira nagusiki; jalkin horiek ibai nagusien uholde-lautadak osatzen dituzte, baita dinamika misto flubial eta magaletako prozesuen ondorioz sortutako eremuak ere. Sedimentu oso heterogeneoak dira, legar, harea, limo eta buztinez osatuak.

Hegoaldeko Antiklinorioaren Domeinu Hidrogeologikoa Euskal Autonomia Erkidegoa mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du, Bizkaiko Karrantza Haranetik Gipuzkoako Aralar mendilerroaraino. Hidrogeologiaren ikuspegitik, Seguran identifikatutako interes-eremua ez dago definitutako unitate edo sektore hidrogeologiko zehatz batean integratuta; aitzitik, "Domeinuaren Gainerakoa" izeneko kategoriaren barruan sartzen da. Kategoria horretan eskala erregionalean interes txikia duten baina tokian tokiko eskalan garrantzi hidrogeologiko handiagoa izan dezaketen formazioak sartzen dira, permeabilitate ertain edo baxuko materialak izan arren emari txikien aprobetxamendurako erabilgarriak izan baitaitezke.

E08 planoan – Hidrologia / Hidrogeologia – eremu horien kokapen xehatua ikus daiteke. Ondorengo irudian, bestalde, Segurako udalerraren kokapena ageri da Euskal Herriko mapa hidrogeologikoan, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE/EVE) izen bereko dokumentuan jasotako informazioan oinarrituta.



1:100.000 eskalako Domeinu eta Unitate Hidrogeologikoen mapa. Iturria: EVE.

II.2.6.6 BABESTUTAKO GUNEEN ERREGISTROA

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko Babestutako Guneen Erregistroak (RZP) ingurune urtarrari lotutako eta Europako nahiz bestelako araudien bidez babestutako eremuak biltzen ditu. Azterketa-eremuaren ingurunea kontuan hartuta, aipatzekoa da RZP-ak hainbat babes-eremu jasotzen dituela jarduketa-esparruaren barruan:

- Hornidurarako ur-hartuneen babes-eremuak: hiri-hornidurara bideratutako hiru ur-hartune babestu identifikatzen dira (Elortza iturburua, Mañe iturburua eta Santa Barbara iturburua), baita hiri-hornidurako hartuneak dituzten bi azaleko ur-masa ere (Oria I eta Ori II).
- Ingurune urtarrari lotutako habitat eta espezieen babes-eremua: Goi Ori KBEa (Kontserbazio Bereziko Eremua).
- Hidrologiarekin lotutako ondare-elementuak.
- Mehatxatutako espezieentzako interes bereziko eremua: bisoi europarra.

Ikus E09 plana – Hidrologia / Babestutako Guneen Erregistroa.

Jarraian, Segurako udalerrian identifikatutako RZPko babes-eremuak xehetasun handiagoz deskribatzen dira:

HORNIDURARAKO UR-HARTUNEEN BABES-EREMUAK

Hornidurarako ur-hartuneen babes-eremuak Uraren Esparru Zuzentarauaren (DMA) 7. artikuluan ezarritakoaren arabera definitzen dira. Xedapen hori Espainiako ordenamendu juridikora egokitu

da Uraren Legearen Testu Bateginaren (TRLA) 99 bis artikulua, Plan Hidrologikoaren Erregelamenduaren (RPH) 24. artikulua eta Planifikazio Hidrologikoaren Instrukzioaren (IPH) 4.1 atalaren bidez.

Babestutako eremu horien barruan sartzen dira giza kontsumorako ura hartzen den ur-masak, baldin eta eguneko batez besteko emaria gutxienez 10 m³-koa bada edo 50 pertsona baino gehiagoren hornidura bermatzen badute. Halaber, hala dagokionean, ezarritako babesperimetroak ere barne hartzen dira. Ur-hartune horien artean, eguneko 100 m³ baino gehiago hornitzen dituztenak kontrol bereziaren pean egon behar dira.

Giza kontsumorako erabiltzen diren ur-masak Babestutako Guneen Erregistroan (RZP) sartzeko helburua da erabilera horretarako beharrezkoak diren uraren kalitatea eta kantitatea babestea. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren kasuan, aurrez aipatutako baldintzak betetzen dituzten guztira 840 ur-hartune daude erregistratuta; horietatik 561 azalekoak dira eta 279 lurpekoak.

Segurako udalerria zeharkatzen duen Oria I azaleko ur-masak azaleko zazpi ur-hartune ditu lotuta, eta hornidura-maila 50 eta 2.000 biztanle artekoa da. Bestalde, Oria II azaleko ur-masak bost azaleko ur-hartune ditu, eta haren hornidura-esparrua 2.000 eta 15.000 biztanle artekoa da.

MASA KODEA	MASAREN IZENA	HARTUNE KOP.	BIZTANLERIA-TARTE NAGUSIA	IZAERA
ES017MSPFES020MAR002501	Oria ibaia I	7	50 - 2.000 biztanle	Naturala
ES017MSPFES020MAR002502	Oria ibaia II	5	2.000 - 15.000 biztanle	Naturala

Horrez gain, udalerrian hiri-hornidurara bideratutako 2 ur-hartune identifikatu dira, eta biak azaleko ur-hartuneak dira:

BABESTUTAKO EREMUAREN KODEA	BABESTUTAKO EREMUAREN IZENA	MASA KODEA	MASAREN IZENA	HORNITUTAKO BIZTANLERIA ESTIMATUA	UTMX	UTMY
T-20070-001	Elortza iturburua	ES017MSPFES020MAR002501	Oria ibaia I	50 - 2.000	558994	4760991
T-20070-002	Mañe iturburua	ES017MSPFES020MAR002502	Oria ibaia II	50 - 2.000	561294	4759631

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan jasotzen diren ur-hartune nagusiez gain, Segurako udalerrian Santa Bárbara iturburua ere identifikatzen da. Iturburu hori babespeko ur-hartuneen kartografian ageri bada ere, ez da modu independentean sartzen Plan Hidrologikoaren barruan; izan ere, "Segura" hornidura-sistemaren parte da (COD_ABAST 20070_01).

Iturburu horren emaria txikiagoa da, 5,7 m³/egunekoa hain zuzen ere, eta udalerriko hiri-hornidurari laguntzen dio ur-hartune nagusiekin batera. Horrela, haren babesa Babestutako Guneen Erregistroaren barruan bermatzen da.



Segurako udalerriko babespeko hornidura-urhartuneak eta haien babes-eremuak. Iturria: GeoEuskadi.

INGURUNE URTARRARI LOTUTAKO HABITAT ETA ESPEZIEEN BABES-EREMUA (KBE ORIA GARAIA)

Habitat edo espezieen babeserako izendatutako eremuak dira, baldin eta uren egoera mantentzea edo hobetzea funtsezko faktorea bada haien kontserbaziorako. Eremu horien barruan sartzen dira Natura 2000 Sareko gune egokiak ere, 92/43/EEE eta 79/409/EEE zuzentarauen esparruan izendatutakoak.

Kasu honetan, ingurune urtarrari lotutako habitat eta espezieen babes-eremua izendatu da "Oria Garaia / Alto Oria" KBEaren presentziagatik.

HIDROLOGIAREKIN LOTUTAKO ONDARE-ELEMENTUAK

Babestutako Guneen Erregistroaren barruan demarkazio-esparruko kultura-ondarearekin lotutako hainbat elementu sartzen dira, urarekin zuzenean erlazionatutakoak: zubiak, errota, burdinolak eta uraren erabilerari lotutako industria-ondareko bestelako ondasunak, besteak beste.

Elementu horien artean sartzen dira bai ondare eraikiko elementuak bai ondare arkeologikoak, betiere indarrean dagoen legediaren arabera babes-erregimenen baten mende badaude.

Segurako udalerrian urari lotutako guztira 11 ondare-elementu identifikatzen dira: horietatik 6 Balizko arkeologia guneak dira, eta beste 5ak ondare eraikiko kultura-elementuak.

ONDAREAREN IZENA	BABES-MAILA
Arrabiolako burdinola eta errota	Oinarrizkoa
Armaolako burdinola eta errota	Ertaina
Ornagusi errota	Ertaina
Zubiaundi zubia	Oinarrizkoa
Armaola zubia	Ertaina
Magdalenako errota	Ustezko Arkeologia Gunea
Lesaka errota	Ustezko Arkeologia Gunea
Armaola burdinola	Ustezko Arkeologia Gunea
Errotaberri errota	Ustezko Arkeologia Gunea
Arrabiola burdinola	Ustezko Arkeologia Gunea
Arrabiola errota	Ustezko Arkeologia Gunea

MEHATXATUTAKO ESPEZIEENTZAKO INTERES BEREZIKO EREMUA (BISOI EUOPARRA ETA DESMAN PIRINIOTARRA)

Interes bereziko eremuak dira ingurune hidrikoaren mendeko espezie mehatxatuentzat, dagozkien kudeaketa-planetan definitzen diren moduan.

Azterketa-eremuaren inguruan bisoi europarrarentzako Interes Bereziko Eremua identifikatzen da (babestutako eremuaren kodea: 1610100320), baita desman piriniotarrarentzako Interes Bereziko Eremua ere (babestutako eremuaren kodea: 1610100322).

Espazio horiei buruzko informazio gehiago lortzeko, [ikusi faunari dagokion atala](#).

II.2.7 LANDAREDIA ETA HABITATAK

II.2.7.1 LANDAREDI POTENTZIALA

Landaredi potentziala baldintza ambiental egonkorretan modu naturalean garatuko litzatekeen komunitate klimaxari dagokio; hau da, gizakiaren jarduerarik edo eraginik izan ez balitz lurraldea estaliko luketen landare-formazioak dira. Bestalde, landaredi-serieek eremu jakin batean gerta daitekeen segida ekologikoaren prozesu osoa azaltzea dute helburu, bai kausa naturalen ondorioz bai gizakiaren jardueraren eraginez. Horrela, serie horiek dinamika erregresibo baten barruan elkarri lotutako komunitate posible guztiak biltzen dituzte.

Segurako udal-mugaratean honako landaredi potentzial mota hauek identifikatzen dira:


- Kantauriar haltzadia
- Pagadi azidofiloa
- Harizti azidofiloa eta harizti / baso misto atlantikoa
- Quercus petraea espezieko hariztia
- Ametzadia

Ikus 11. plana – Landaredia / Landaredi potentziala.

II.2.7.2 EGUNGO LANDAREDIA

Gaur egun dagoen landarediak lotura txikia du landaredi potentzialarekin, lurraldea nabarmen eraldatu baita gizakiaren jardueren ondorioz. Beheko irudi konparatiboan ikus daitekeen moduan, iraganean belardi eta laborantzetara bideratutako azalerek (tonu argiko eremuak) udalerraren azaleraren hiru laurden inguru hartzen zituzten.

Hala ere, 2025. urterako azalera horiek nabarmen murriztu dira, eta neurri handi batean erabilera industrialeko baso-landaketek ordezkatu dituzte.



Segurako lurzoru-erabileraren bilakaera. Ezkerrean: 1945/46ko hegaldi amerikarra; eskuinean: 2025eko ortoargazia.
Iturria: GeoEuskadi.

Segurako udalerriko egungo landaredia bere osotasunean aztertuta, baso naturalek udalerrriaren azaleraren %16,36 hartzen dutela ikus daiteke; azalera hori, ordea, baso-landaketek hartzen du-

tenaren (%49,66) nabarmen azpitik dago. Baso natural horietako asko lurraldeko landaredi potentzialarekin bat datoz, hala nola pagadi azidofiloak, harizti azidofiloak, harizti eta baso misto atlantikoak edo ameztiak; ibaiertzetako eremuetan, berriz, Kantauriar haltzadia da nagusi.

Historikoki, baso naturalaren azalera nabarmen murriztu da, ez bakarrik Seguran, baita Euskal Autonomia Erkidego osoan ere, batez ere giza jardueren ondorioz. Gaur egun, ordea, landaredi mota horren deforestazio kontrolik gabea saihesteko araudiak eta kontrol-tresnak badaude indarrean.

Aipatu bezala, udalerrian nagusi den landaredi mota baso-landaketena da, lurraldearen ia %50 hartzen baitute. Horien artean pinazeoen landaketak nabarmentzen dira, bereziki Pinus radiata espeziearenak.

Parte-hartze prozesuan jasotako informazioak erakusten du basoen egungo konfigurazioak ez duela herritarren itxaropenekin guztiz bat egiten. Inkestetan basoen egoerak balorazio apala jaso du, eta identifikatutako gabekia nagusiak baso autoktonoen presentzia urria eta herri-lurren eskasia dira. Pertzepzio hori bat dator udalerriko landarediaren egiturarekin, baso-landaketek baso naturalek baino azalera nabarmen handiagoa hartzen baitute. Bereziki 25 eta 35 urte bitarteko gizonen artean baso-kudeaketa alternatiboago baten aldeko interesa agertu da, non espezie autoktonoen sustapena eta erabilera kolektiboko lurzoruak lehenetsiko liritekeen.

Gainerako landarediari dagokionez, nekazaritza- eta abeltzaintza-matrizeak oraindik ere garrantzi handia du, bereziki Segurako hirigune nagusiaren inguruko terrazetan. Tradizionalki, eta irudi konparatiboetan ikus daitekeen bezala, udalerraren zati handiena ereintza-laboretara bideratua zegoen, Segura lehen sektoreari lotutako tradizio agroabeltzain handiko udalerria baitzen. Gaur egun azalera hori nabarmen murriztu bada ere, oraindik ere pisu handia du Euskal Autonomia Erkidegoko beste eremu askorekin alderatuta.

Gainerako landaredi motek ,sastrakadiak eta belardiak, udalerraren azalera osoaren %1,4 baino ez dute hartzen.

Ondorengo taulan agertzen diren unitateak planotan kartografiatuta daude:

Ikus 12. planoa – Landaredia / Egungo landaredia.

LANDARERIA UNITATEAK	AZALERA(HA)	(%)
Basoa	153,0019	16,36
Baso-landaketak	464,5423	49,66
Sastrakadia	9,3738	1,00
Belardia	3,7315	0,40
Belardiak eta nekazaritza-laborantzak	250,863	26,81
Hiri-eremuak eta lurzoru hutsak	40,7573	4,36
Bestelakoak	13,2437	1,42
GUZTIRA	935,5132	100 %

AZPIUNITATEAK	AZALERA (HA)	(%)
Kantauriar haltzadia	8,2456	0,88
Harizti azidofiloa eta harizti / baso misto atlantikoa	113,1964	12,10
Pagadi azidofiloa	4,5474	0,49
Ametzadia	7,9521	0,85
Harizti azidofiloen edo harizti mistoen fase gaztea edo degradatua	19,0604	2,04
Baso-landaketak (Quercus rubra)	5,118	0,55
Baso-landaketak (Pinus nigra)	52,855	5,65
Baso-landaketak (Pinus radiata)	235,4927	25,17
Baso-landaketak (Larix sp.)	3,8898	0,42
Baso-landaketak (Chamaecyparis lawsoniana)	0,9658	0,10
Baso-landaketak (hostozabal erorkor bestelakoak)	0,2396	0,03
Baso-landaketak (bestelakoak)	165,9814	17,74
Txilardi-iratzedia eta ote-sastrakadia atlantikoa	8,6126	0,92
Elorri-sastrakadia edo sasitza	0,7612	0,08
Brachypodium pinnatum espezieko lastonadia edo bestelako larre meso-filoak	3,4548	0,37
Ihitoki-belardiak, zingiradiak edo urpean gera daitezkeen depresioak	0,2767	0,03
Belardi eta laborantza atlantikoak	223,0597	23,84
Baratzeak eta fruta-arboladiak	27,8033	2,97
Hiri-parkeak eta lorategiak	0,4296	0,05
Landaredi erruderal-nitrofiloa	39,3996	4,21
Landaredirik gabeko eremuak	0,9281	0,10
1:25.000 mapan agertzen ez diren bestelako tipologiak	13,2437	1,42
GUZTIRA	935,5132	100 %

Parte-hartze prozesuan udalaren ikuspegitik ere baso-kudeaketarekin lotutako zenbait muga identifikatu dira. Udallerriak ez du udal-basorik, eta bere jabetzako lursail bakarrean dagoen pinudia mozketa-fasean dago gaur egun. Egoera horrek mugatu egiten du administrazioak baso-politika propioak garatzeko edo kudeaketa publikoan oinarritutako ekimenak sustatzeko duen gaitasuna. Era berean, ingurumen-izaerako proiektuak garatzeko interesa agertu bada ere,

lurzoru egokiak eskuratzeko saiakerek ez dute emaitza positiborik izan, jabetza pribatuko baldintzek eta akordio faltak hainbat ekimen baldintzatu baitituzte. Horrek erakusten du lurzorua- ren jabetza-egiturak eta eskuragarritasunak eragin zuzena dutela baso-kudeaketa publiko edo komunitarioaren garapenean.

Azkenik, parte-hartze prozesuan hurrek egindako ekarpenek erakusten dute udalerriko zuhaitz- espezie ezagunenak pinua eta pagoa direla. Ez dute baso-landaketa intentsiboan presentzia bereziki identifikatu, ezta espezie-aniztasun handirik ere. Horrek adierazten du baso-kudeaketari eta landaredi moten arteko bereizketari buruzko ezagutza mugatuagoa dela adin-tarte horretan, eta pinuen presentzia ez dela zuzenean lotzen baso-landaketa produktiboen dinamikarekin.

II.2.7.3 EUROPAR BATASUNAREN INTERESEKO HABITATAK

Europar Batasunak 1992an onartu zuen 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalen eta basa flora eta faunaren kontserbazioari buruzkoa, Habitaten Zuzentaraua izenez ezagutzen dena. Ondoren, 1997an, 97/62/EEE Zuzentaraua onartu zen, zeinaren bidez I. eta II. eranskinetako habitat natura- lak eta espezieak egokitu baitziren ezagutza eta aurrerapen zientifikoetara.

Habitaten Zuzentaruaren helburua, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Europar Batasuneko biodibertsitatea kontserbatzea da, habitat naturalak eta basa flora eta fauna espezieak babestuz.

Zuzentaruak habitat naturalak honela definitzen ditu: ezaugarri geografiko, abiotiko eta bioti- koengatik bereizten diren lurreko edo ur-ingurune-ko eremuak, guztiz naturalak nahiz erdi- naturalak izan.

Habitaten Zuzentaruak interes komunitarioko habitat naturalak hierarkikoki sailkatzen ditu, lehentasunezkoak izan ala ez, eta sailkapen hori digitu bakarreko kode baten bidez adierazitako 9 mailatan antolatzen da:

- Kostaldeko habitatak eta landaredi talofitikoak
- Itsasoko eta barnealdeko dunak
- Ur gezako habitatak
- Eremu epeletako txilardiak eta sastrakadiak
- Sastrakadi esklerofiloak
- Belardi natural eta erdi-naturalak
- Zohikaztegi garaiak, zingira baxuak (fen eta mire motakoak) eta eremu paduratsuak
- Harkaitz-habitatak eta kobazuloak
- Basoak

Bederatzi maila horietako bakoitza, era berean, bi digituko kode bidez identifikatutako hainbat azpikategoriatan banatzen da. Kategoria bakoitzak interes komunitarioko habitat jakin bat har- tzen du barne, eta habitat horien kontserbaziorako Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izen- datzea beharrezkoa da, Natura 2000 Sarea osatzeko. Habitat horiek lau digituko edo hizkiz osa- tutako kode bidez identifikatzen dira; kodearen ondoan izartxo bat agertzen bada, habitat hori lehentasunezkoztat jotzen da.

Aurreko landaredi-unitateak osatzen dituzten habitatak xehetasun handiagoz aztertuta, Segurako udalerrian Habitaten Zuzentzarauan jasotako 6 habitat mota identifikatu dira. Guztira, interes komunitarioko habitat horiek ia 230 hektareako azalera hartzen dute.

Ondorengo taulan Segurako udalerrian identifikatutako interes komunitarioko habitaten banaketa jasotzen da:

KODEA	HABITAT IZENA	AZALERA (HA)	(%)
4030	Europako txilardi lehorrak.	7,9605	0,85
6210*	Kareharrizko substratuen gaineko belardi lehor erdi-naturalak eta sastrakadi-fazieak (Festuco-Brometalia) (orkidea garrantzitsuak dituzten eremuak).	3,4546	0,37
6510	Behe-altuerako sega-belardi pobreak (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis).	167,298	17,88
9120	Gorostiaren eta zenbaitetan haginaren azpiko geruza duten pagadi azidofilo atlantikoak (Quercion robori-petraeae edo Ilici-Fagenion).	4,5474	0,49
91E0*	Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior espeziez osatutako ibaiertzeko baso alubialak (Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae).	9,2187	0,99
9230	Galizia eta Portugal aldeko hariztiak, Quercus robur eta Quercus pyrenaica espezieekin.	7,9521	0,85
GUZTIRA		200,4313	%21,42

*Kodean agertzen den * ikurra lehentasunezko interes komunitarioko habitata dela adierazten du.*

Azalerarik handiena "Behe-altuerako sega-belardi pobreak" habitat motari dagokio; gainerako habitatak, berriz, izaera residualekoak dira. Habitat residual horien artean, bi Habitaten Zuzentzarauan lehentasunezko habitat gisa sailkatuta daude, hau da, lehentasunezko interes komunitarioko habitatak dira.

Ikus E13 planoa – Landaredia / Interes Komunitarioko Habitatak.

Kontsultatutako iturri bibliografikoen arabera, Segurako udalerrian ez da flora mehatxaturik identifikatu.

II.2.8 FAUNA

Komunitate faunistikoak eta espezieek lurralde jakin batean izan dezaketen presentzia estuki lotuta daude bertako landaredi-unitateekin; izan ere, alde batetik, lurreko ornodunek landarediarekin duten harreman zuzena dago, eta bestetik, landarediaren egitura bera.

Horren ondorioz, ornodunek joera nabarmena dute habitat jakin batzuk lehentasunez okupatzeko eta habitat horietan bizi diren espezieen artean harreman ekologikoak ezartzeko.

Azterketa-eremuan dagoen ornodun-fauna nagusiki jatorri atlantikokoa eta europar erdialdekoa da, nahiz eta Mediterraneo izaerako zenbait espezie ere agertu, isurialdeen banalerroarekiko hurbiltasuna dela eta.

Biotopo nagusiak honako hauek dira:

II.2.8.1 IBILGUAK ETA HALTZADIAK

Haltzadiak ibaiertzetan garatzen diren landaredi-unitate linealak dira. Galeria-formako egiturek, hezetasun-baldintza bereziei, landaredi-egiturari eta ur librearen presentzia iraunkorrari esker, ornodun-komunitate konplexuak garatzea ahalbidetzen dute.

Habitat horietan nabarmentzekoak dira, arrainen artean, amuarraina, loina eta ezkailua; eta anfibio, hegazti eta ugaztunen artean honako espezie hauek: apo emagina, apo arrunta, igel berdea, harkaitz-muskerra, ur-zozoa, ur-zozo arrunta, ur-arratoia, landa-sagua, igaraba, desman pirinio-tarra, bisoi europarra, martin arrantzalea eta larre-arratoi txikia.

- Landazabal atlantikoa

Landazabal atlantikoa, konifero exotikoen landaketekin batera, udalerriko unitaterik zabaletako bat da. Baserriak, laborantza-lurrak, baratzeak, sega eta bazkarako larreak, hesi biziak, errekatxoak, hostozabal basotxoek hondarrak, Pinus radiata landaketak eta bestelako elementuek mosaiko paisajistiko trinkoa osatzen dute.

Ustiapen-moduen eta presio antropikoaren arabera, bi landazabal mota bereizten dira: alde batetik, ibar-hondoetako eremu irekiago eta jendetsuagoak; bestetik, hegaleetako eremuak, non baso-azalera handiagoa eta giza presentzia txikiagoa diren nagusi. Paisaia-aniztasun horrek biodibertsitate faunistiko handia eragiten du, eta horrenbestez lurreko ornodunak oso ordezkarrak zabala dute habitat hauetan.

Habitat horietako espezie bereizgarriak dira, besteak beste: uhandre palmatu, ur-zozo arrunta, larre-arratoi txikia, apo emagina, zozo arrunta, landa-sagua, apo arrunta, birigarro arrunta, etxesagua, luharra, estornino arrunta, galburu-arratoia, sugandila berdea, txolarre arrunta, triku arrunta, harkaitz-muskerra, karnaba, erbinudea, zapelatz arrunta, sator arrunta, lepazuria, kuku arrunta, satitsu arrunta, azkonarra, hontz zuria, ur-satitsua, azeria, lepitzulia, lusitaniar satitsu-arratoia, zuhaitz-txinboa eta Pirinioetako lursagua.

Parte hartze prozesuan jasotako informazioak habitat horien erabilera faunistikoaren inguruko tokiko ezagutza osatzen du. Haurren tailerrean basurdeen arrastoak eta orkatzak maiz identifikatzen direla adierazi zen, eta horrek landazabal eta baso mosaikoek ugaztun ertain eta handientzako duten garrantzia erakusten du.

- Pagadiak

Pagadiak azterketa-eremuko bertako basoaren zati esanguratsua osatzen dute. Pagoen adaburuek argi gutxi pasatzen uzten dutenez, zuhaixka-geruza ia ez da garatzen eta belar-geruza ere oso mugatua da; horren ondorioz, espezieen ugaritasuna, landareena zein animaliena, txikiagoa izan ohi da beste baso mota batzuekin alderatuta.

Hala ere, zulatutako zuhaitz motz zaharrek babeslekua eta elikadura eskaintzen diete hegazti eta ugaztun espezie askori. Habitat horietako espezie bereizgarriak dira, besteak beste: salamandra arrunta, zapelatz arrunta, amilotx zingiralea, apo emagina, zata arrunta, amilotx mottoduna, igel gorria, birigarro handia, amilotx arrunta, luharra, txinbo txikia, garrapoa, ziraun arrunta, berdantza horia, harkaitz-muskerra, txio arrunta eta txonta mokogorria.

- Txilardiak

Txilardiak txilarrez eta lurzoru azidoetara egokitutako beste zuhaixka batzuek osatutako landaredi-formazioak dira. Lurzoru pobreetan, harritsuetan eta hezetasun atmosferiko handiko eremuetan garatzen dira. Zuhaitz-estaldura urriko habitat irekiak dira, eta baldintza horietara egokitutako fauna-komunitateak hartzen dituzte. Bereziki garrantzitsuak dira espazio ireki eta sastrakadiekin lotutako ugaztun txiki eta hegaztientzat.

Txilardietako espezie bereizgarrien artean honakoak aipa daitezke: harkaitz-muskerra, zapelatz arrunta, karnaba, azeria, lusitaniar lursagua, buztanluze txinboa, triku arrunta, txinbo burubeltza, ur-arratoia, zuhaitz-txinboa, orkatz arrunta, erbinudea eta birigarro arrunta.

Seguran identifikatutako fauna interesgarri edo babes-figura duten espezieen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

HEGAZTIAK:

Hegaztiei dagokienez, hegazti-fauna mehatxatua linea elektrikoekin talka egitearen eta elektrokuzioaren aurrean babesteko eremu bat identifikatu da. Eremu horiek espezie mehatxatuen ugalketa-, elikadura-, dispertsio- eta kontzentrazio-gune nagusitzat hartzen dira, eta babes-eremu gisa mugatzen dira ingurune naturalean instalatutako linea eta sare elektrikoek eragiten duten talka eta elektrokuzio arrisku handia dela eta. Gaur egun, arazo hori ornodun talde honetako ez-naturazko heriotza-kausa ohikoenetako bat da. Babes-eremu hori Segurako udalerraren hego-ekialdean kokatzen da.

Parte hartze prozesuan fauna behaketarekin lotutako zenbait alderdi agertu dira, diagnostiko teknikoan jasotako habitat eta espezieen informazioa osatuz. Haurren tailerlean hainbat hegazti espezie identifikatu zituzten, besteak beste txantxangorria, arranoa, zozoa, belea eta birigarroa, udalerriko fauna arruntaren parte gisa.

UGAZTUNAK:

Kudeaketa-plana onartuta duten fauna mehatxatuko espezieei dagokienez, Seguran espezie bat identifikatzen da:

Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), "Galzorian" kategorian sailkatua. Espezie honen Kudeaketa Plana 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Bisoi Europarraren (*Mustela lutreola*) Kudeaketa Plana ezartzen duena (GAO, 2004-05-28). Espezie honen presentzia potentziala nagusiki Oria ibaiaren ibilguari lotzen zaio.

Bi espezie horiek ondo kontserbatutako ibai-ekosistemekin estuki lotuta daude; horregatik, ingurumen-sentsibilitate handiko elementutzat hartzen dira Segurako HAPOaren ebaluazio estrategikoaren esparruan.

Ikus E12 planoa – Fauna.

II.2.9 INTERES NATURALISTIKOKO ETA BABESTUTAKO NATURGUNEAK

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak, 28. artikuluan naturgune babestu gisa definitzen ditu Estatuko lurraldeko espazioak, barneko urak eta itsas ingurunea barne,, baldin eta gutxienez honako baldintza hauetako bat betetzen badute eta halakotzat deklaratzeko badira:

- a) Sistema edo elementu natural adierazgarriak, bereziak, hauskorak, mehatxatuak edo interes ekologiko, zientifiko, paisajistiko, geologiko edo didaktiko berezikoak izatea.
- b) Biodibertsitatea, geodibertsitatea eta lotutako baliabide natural eta kulturalak bereziki babestu eta mantentzera bideratuta egotea.

42/2007 Legeak babestutako espazioen sistema hiru kategoriatan banatzen du:

1. Naturgune babestuak
2. Natura 2000 Sareko gune babestuak
3. Nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuak

Naturgune babestuak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- a) Parkeak
- b) Erreserba naturalak
- c) Itsas eremu babestuak
- d) Monumentu naturalak
- e) Paisaia babestuak

Bestalde, azaroaren 25eko 9/2021 Legeak, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoak, IV. tituluko II. kapituluko 48., 49., 50. eta 51. artikuluetan naturgune babestuen sailkapena ezartzen du. Kategoria hauek jasotzen dira bertan:

- a) Parke naturalak
- b) Erreserba naturalak

- c) Monumentu naturalak
- d) Paisaia natural babestuak

Horrela, oinarritzko legediak babestutako naturguneen sareari biotopo babestuak eta zuhaitz bereziak gehitzen zaizkio.

Natura 2000 Sareko gune babestuen artean sartzen dira Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bihurtu arte, eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE). Espazio horien kudeaketak kontuan hartzen ditu eskakizun ekologikoak ez ezik, baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak ere, baita eskualde- eta toki-mailako berezitasunak ere.

42/2007 Legearen 50. artikulua araber, nazioarteko tresnen bidez babestutako eremutzat hartuko dira Espainiak parte hartzen duen hitzarmen edo nazioarteko akordioaren arabera formalki izendatutako naturgune guztiak, eta bereziki honako hauek:

- a) Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneak, bereziki Hegazti Urtarren Habitat gisa, Ramsarko Hitzarmenaren barruan.
- b) Gizateriaren Ondarearen Zerrendako naturguneak, Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Hitzarmenaren arabera.
- c) Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurunea babesteko OSPAR Hitzarmeneko eremu babestuak.
- d) Mediterraneoko Garrantzi Bereziko Babes Eremuak (ZEPIM), Mediterraneoko itsas ingurunea eta kostaldea babesteko hitzarmenaren barruan.
- e) UNESCOk deklaratutako Geoparkeak.
- f) UNESCOk deklaratutako Biosfera Erreserbak.
- g) Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

Espazio horiei ibai-erreserba naturalak gehitzen zaizkie. Babes-figura horren helburua da giza esku-hartze urria edo nulua duten eta egoera ekologiko oso onean dauden ibai-tarteak kontserbatzea. Figura hori uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikulua betez ezartzen da, Uraren Legearen testu bategina onartzen duena,; artikulua horrek ezartzen du Estatuko eskumeneko Plan Hidrologikoetan nahitaez txertatu behar direla ibai-erreserba natural izendatzea merezi duten espazioak.

Aurreko apartatuetan jasotako informazioa kontuan hartuta, jarduketa-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-babeseko figura nagusiekin eta interes naturaleko eremuekin gainjarri da. Azterketaren emaitzak honako hauek izan dira:

- Ez da naturgune babesturik identifikatu.
- Natura 2000 Sareko espazioak identifikatu dira: Oria Garaia KBEa (ES2120005) (ikus III.9.1 atala – Natura 2000 Sarea).

- Ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidallerroetan (LAG/DOT) jasotako interes naturalistikoko eremurik identifikatu.
- Ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian jasotako eremurik identifikatu.
- Ez da Ramsar hezegunerik identifikatu.
- Jarduketa-esparrua ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezi eta Apartekoen Katalogoaren barruan.
- Fauna babestuko espezie bat identifikatu da: bisoi europarra (Mustela lutreola) (ikus II.8 atala – Fauna).

Ikus E15 planoa – Naturguneak / Babestutako eta/edo intereseko espazioak.


II.2.10 ONURA PUBLIKOKO MENDIAK

Segurako udalerrian 0,56 ha-ko azalera hartzen dute Onura Publikoko Mendiek edo Mendi Babesleek (MUPP), baita Xedapen Libreko Mendiek ere. Eremu horiek ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauak ,mendiei eta naturgune babestuen administrazioari buruzkoak, eta martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak ,aurreko arauaren aldaketari buruzkoak, arautzen dituzte (GAO, 2007/03/28).

Seguran identifikatutako mendi horiek inguruko udalerrietan kokatutako mendien luzapen txikiak dira, Segurako udal-mugartean apur bat sartzen direnak.

Seguran identifikatutako MUPP kodeak honako hauek dira:

- 2.025.1
- 2.043.1



Segurako udal-mugartearekin gainjarritako PTS Agroforestaleko Onura Publikoko Mendiak. Iturria: GeoEuskadi.

II.2.11 PAISAIA

II.2.11.1 PAISAIA-UNITATEAK ETA IKUS-ARROAK

PAISAIA-UNITATEAK

Segurako udal-mugartean lau paisaia-unitate bereizten dira, guztiak ibai-domeinuaren barruan kokatuak:

- Baso-mosaikoa ibai-domeinuan
- Baso-landaketak ibai-domeinuan
- Nekazaritza-eremua, belardi eta laborantza atlantikoen nagusitasunarekin, ibai-domeinuan
- Nekazaritza eta baso mosaikoa ibai-domeinuan

Ikus E18 planoak – Paisaia.

Ondorengo taulan paisaia-unitate bakoitzaren ezaugarri nagusiak jasotzen dira:

PAISAIA-UNITATEA		LURZORU-ERABILERA	DOMEINUA	KOKAPENA	ERLIEBEA
Baso-mosaikoa	ibai-domeinuan	Baso-mosaikoa	Ibai-domeinua	Hegalak eta ur-banalerro ondulatuak	Malkartsua
Baso-landaketak	ibai-domeinuan	Baso-landaketak	Ibai-domeinua	Hegalak eta ur-banalerro ondulatuak	Malkartsua
Nekazaritza-eremua, belardi eta laborantza atlantikoen nagusitasunarekin,	ibai-domeinuan	Nekazaritza-eremua, belardi eta laborantza atlantikoen nagusitasunarekin	Ibai-domeinua	Hegalak eta ur-banalerro ondulatuak	Malkartsua
Nekazaritza eta baso-mosaikoa	ibai-domeinuan	Nekazaritza eta baso-mosaikoa	Ibai-domeinua	Hegalak eta ur-banalerro ondulatuak	Ondulatuak

IKUS-ARROAK

IKUS-ARROA	AZALERA (Ha)	UDALERRIAREN PROPORTZIOA (%)
Idiazabal	581,7968	62,19
Zegama	327,1195	34,97
Urtsuaran	26,5974	2,84
GUZTIRA	935,5137	100 %

*CPSS: Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezi eta Apartekoen Katalogoa.

Ikus E18 planoa – Paisaia.

II.2.12 INGURUMEN-ARRISKUAK

II.2.12.1 HIGADURA

RUSLE ereduaren arabera, Segurako udalerriko benetako higadura nagusiki "higadura-maila oso baxuko eta lur-galera jasangarriko eremuek" osatzen dute. Hirigune nagusia eta ibai-ibilguak higadura-prozesuekiko sentikortasunik gabeko eremu gisa sailkatzen dira. Gainerako eremuak izaera residualekoak dira, eta higadura handieneko eremua zabortegearen inguruan kokatzen da.

Ikus E19 planoa – Ingurumen-arriskuak / Higadura.

Ondorengo taulan lur-galeraren maila desberdinak azaltzen dira, hektareako eta urteko tonatan neurtuta, baita lotutako prozesuak ere:

GALERA (T/Ha urteko)	PROZESUA	AZALERA (Ha)	UDALERRIAREN PROPORTZIOA (%)
0	Higadura-prozesuekiko sentikorrek ez diren eremuak	40,0164	4,28 %
0 – 5	Higadura-maila oso baxuko eta lur-galera jasangarriko eremuak	891,6081	95,31 %
5 – 10	Higadura-maila baxuko eta neurri batean jasangarriak izan daitezkeen lur-galerako eremuak	1,0455	0,11 %
>200	Muturreko higadura-prozesuak dituzten eremuak	2,8052	0,3 %

II.2.12.2 BALDINTZA GEOTEKNIKOAK

II.2.4 atalean ,Baldintza geoteknikoak, aipatu den bezala, Segurako udalerrian hainbat baldintza geotekniko bereizten dira. Oro har, baldintzak onargarriak dira; hala ere, hirigunean eta ibai-ibilgu nagusien inguruan baldintza oso desfaboragarriak identifikatzen dira, batez ere uholde-arriskuarekin lotutako prozesuen ondorioz.

Ikus E04 plana – Geologia / Baldintza geoteknikoak.

II.2.12.3 AKUIFEROEN ZAURGARRITASUNA

II.2.6 atalean ,Lurpeko hidrologia, azaldu den moduan, Segurako udalerrian akuiferoen kutsaduraren zaurgarritasun-maila desberdinak ditu. Udalerrian zatirik handienean zaurgarritasun baxua, oso baxua edo ia nulua identifikatzen da; hala ere, erdialdeko sektoreak zaurgarritasun ertaina du, eta hori da baldintzarik desfaboragarrienak dituen eremua.

Ikus E06 plana – Hidrologia / Lurpeko urak.

II.2.12.4 KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK

Udalerrian barruan kutsadura potentziala duten jarduerak dituzten 16 lurzati identifikatu dira, guztiak industria-erabilerakoak.

LURSAILAREN ID-a	LURSAIL KODEA	MOTA
16072	20070-00001	INDUSTRIALA
16074	20070-00003	INDUSTRIALA
16075	20070-00004	INDUSTRIALA
16076	20070-00005	INDUSTRIALA
16077	20070-00006	INDUSTRIALA
16078	20070-00007	INDUSTRIALA
16079	20070-00008	INDUSTRIALA

16080	20070-00009	INDUSTRIALA
16081	20070-00010	INDUSTRIALA
16082	20070-00011	INDUSTRIALA
16083	20070-00012	INDUSTRIALA
16084	20070-00013	INDUSTRIALA
16085	20070-00014	INDUSTRIALA
22978	20070-00017	INDUSTRIALA
23312	20070-00016	INDUSTRIALA
26726	20070-00018	INDUSTRIALA

Ikus E20 planoa – Ingurumen-arriskuak / Lurzoru kutsatuak.

II.2.12.5 BASO-SUTEEN ARRISKUA

Ikusten denez, udalerraren zatirik handienean baso-suteen arriskua baxua da. Hala ere, baso-landaketekin lotutako zenbait eremutan arrisku handia edo oso handia identifikatu da.

Ondoren, udalerriko baso-suteen arriskuaren banaketa portzentuala azaltzen da:

ARRISKUA	AZALERA (ha)	UDALERRIAREN PROPORZIOA (%)
Baxua	538,6624	57,58
Handia	55,3915	5,92
Oso handia	28,0193	2,99


Ikus E21 planoa – Ingurumen-arriskuak / Baso-suteen arriskua.

II.2.12.6 ARRISKU SISMIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoa jarduera sismiko baxuko eremutzat har daiteke. 2003. urtean Espainiako Arrisku Sismikoaren Mapa eguneratu izanak Arrisku Sismikoaren aurreko Babes Zibilko Oinarrizko Zuzentaraua aldatzea ekarri zuen, arrisku-maparen eguneraketa berrira egokitzeko. Eguneratze horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Araba eta Gipuzkoa lurraldeetan arrisku sismikoko eremu berriak txertatu ziren.

Aldatutako Oinarrizko Zuzentarau horretan oinarrituta, Arrisku Sismikoaren aurreko Larrialdi Plana ere prestatu zen.

Segurako udalerraren kasuan, arrisku sismikoa V-VI mailakoa dela sailkatu da.



Plan horren arabera ondorioztatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela VII edo hortik gorako intentsitate sismikoa duen eremurik; ondorioz, ez dago Larrialdi Sismikoko Plan berezia egitea derrigorrezkoa duen udalerririk. VI edo hortik gorako arrisku-maila duten udalerriak autonomia-erkidegoko ekialdekoenak dira, eta horiek udal-mailako azterketa xeheagoak egitearen beharra dute, hala nola zaurgarritasun-azterketak edo eraikin berezi nahiz garrantzi handikoen katalogazioa.

II.2.12.7 MERKANTZIA ARRISKUTSUEN GARRAIOAK ERAGINDAKO ARRISKUA

Segurako udalerrian ez da errepiderik ezta trenbiderik ere identifikatu merkantzia arriskutsuen garraioarekin lotutako arrisku nabarmenekin; ondorioz, baztertutzat jotzen da garraibide horien bidezko merkantzia arriskutsuen garraioak eragin dezakeen arriskua.

II.2.12.8 UHOLDE-ARRISKUA

Segurako orografiak eta geomorfologiak, sare hidrografikoko emariekin batera, uholde-arriskua duten eremu zabalak definitzen dituzte. Oria ibaiaren ibilgua da udalerriko uholde-eremuen eragile nagusia, eta haren ibilbidean zehar 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-eremuak identifikatzen dira. Eremu horiek landa-nukleo txikiei nahiz GI-2637 errepideari eragiten diete.


Ikus E10 planoa – Hidrologia / Uholde-arriskua.

II.2.12.9 ZARATA


Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurralde historikoko errepideen kudeaketaren arduradun den aldetik, Zarata Mapa Estrategikoak eta dagozkien ekintza-planak egitea eta onartzea bermatu behar du, baita horiek herritarren eskura jartzea eta zabaltzea ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2002/49/EE Zuzentarauaren hirugarren fasea eta 213/2012 Dekretuaren 10. artikuluan jasotako eskakizuna beteko ditu, hurrenez hurren Zarata Mapa Estrategikoak (MER) eta Zarata Mapak (MR) egiteko lehen txandan. Planteamendu horrek bi legerien aplikazio-egutegiak sinkronizatzea ahalbidetzen du, eta horrek kudeaketa errazten du baliabideak optimizatuz, diagnostiko-fasean egindako lanak partekatuz eta derrigorrezko Ekintza Planak modu koordinatuan definituz.


Ildo horretan, Segurako udalerriko zarata-mapa estrategikoak kontsultatu dira, eta honako emaitzak lortu dira:



Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sareko errepideen zarata-maparen laburpena, Segurako udalerriri dagokiona. Eguneko aldia.



Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sareko errepideen zarata-maparen laburpena, Segurako udalerriri dagokiona. Arratsaldeko aldia.



Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sareko errepideen zarata-maparen laburpena, Segurako udalerriri dagokiona. Gaueko aldia.

II.2.12.10 ZORTASUN AERONAUTIKOA

Segurako udalerria Donostiako aireportuko zortasun aeronautikoaren eremutik kanpo geratzen da.

II.2.12.11 KLIMA-ALDAKETA

Euskal Autonomia Erkidego mailan egindako azterketek adierazten dute klima-aldaketak eragin nabarmena izan dezakeela uholde-arriskuan. Aurreikuspenen arabera, uholde-emari maximoak handitu daitezke, baita urpean gera daitekeen azalera ere, eta korrontearen emari- nahiz abia-dura-balioak ere handiagoak izan litezke.

Aldaketa horiek uholde-arriskuaren eta uholdeek eragindako kalteen arriskugarritasun erlatiboa handitzea ekar dezakete.

Estatu-mailan garatutako lanek, bestalde, batez besteko prezipitazioaren beherakada aurreikusten dute, prezipitazioen murrizketa garbiaren eta ebapotranspirazioaren igoeraren ondorioz. Horren harira, 2033. urterako baliabide hidrikoen ekarpenetan %11ko murrizketa-koefiziente estatala ezarri da.

Nekazaritza-sektoreari dagokionez, klima-aldaketaren ondoriozko etorkizuneko ingurumen-baldintzek XXI. mendearen amaierarako aurreikusitakoek, zenbait laboreren errendimendua handitzea ekar dezakete, hala nola neguko gariarena edo mahastiarena. Horrez gain, uraren erabileraren efizientzia handitzea ere espero da, bereziki landareak CO₂ kontzentrazio handien eta lehorte-baldintzen pean batera hazten direnean.

Baso-sektoreari dagokionez, nitxo ekologikoen ereduetan oinarritutako aurreikuspenek inpaktu esanguratsua erakusten dute aztertutako espezieetan ,haritza, pagoa eta insignis pinua,. Eredu horien arabera, espezie horien nitxo ekologikoak ia erabat desagertzea aurreikusten da 2080rako, eta XXI. mendean zehar haien banaketa-eremuak Europako iparralderantz progresiboki desplazatzea.

II.3. DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA

II.3.1 SARRERA

Segurako HAPOrako beharrezkoa da, beste elementu batzuekin batera, herriko egoera sozio-demografikoa ulertzea. Atal honek udalerrri honen alderdi bereizgarrienak bildu nahi ditu, eta beharrezko lan-ildoak kokatzen lagundu.

Helburu horrekin, hainbat faktore landu dira teknika kuantitatiboen bidez. Lan-metodoa bigarren mailako datu-iturrien ustiapena izan da, eta azterketa estatistika deskribatzailearen ariketa batean datza.

Hona hemen gure iturri nagusiak: Eustat, Espainiako Estatistika Erakundea, Lanbide, Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta. Udal-errolda

Hortaz gain, udalak azken urteetan burututako hainbat aztelan hartu dira kontuan, hain zuzen ere:

- Segurako etxebizitzaren egoera. Herritarren behar eta espektatiben azterketa (Aztiker 2022)
- Segurako jatorri askotariko emakumeen parte-hartze soziopolitiko (Elhuyar 2024)
- Aztiker ikergunea. Segurako nagusiekin martxan: herrian/komunitatean bete dezaketen funtzioa/rola. Etorkizuneko zaintza eta zerbitzuen beharrez hausnartzeko prozesua erroldaren ustiaketa (Aztiker 2024)
- Goierriko garapen agentziak (Goieki) eta GFA-k sustatutako Goierriko energia plana 2018-2025


Ematen diren datuak ahalik eta eguneratuenak dira, inkestak egiteko datak kontuan hartuta, hala nola datuak argitaratzeko modua. Adibidez, Eustaten zenbait lan bosturtekoak dira. Inkesta horiek kalitate handikoak dira, eta oso tresna erabilgarria da bai une jakin bat ulertzeko, bai faktore batek denboran duen dinamika edo joera ulertzeko. Hori dela eta, datu guztiak azterlan urteari, hau da, 2026ari erreferentzia egiten ez badiote ere, ulertzen dugu landutako datuak nahiko adierazgarriak direla, gaur egungoak eta egungo egoera adierazten dutenak, datu horiek erabiltzeko moduan.

II.3.2 BIZTANLERIA

Segurak biztanleria nahiko egonkorra mantendu du azken urteetan: 2025ean 1.499 biztanle ditu, 2012ko 1.487 biztanleen aldean. Nolanahi ere, egonkortasun horren atzean barne-eraldaketa garrantzitsuak antzematen dira, bereziki biztanleriaren zahartzeari, gazte-helduen pisuaren galarari eta lurralde- zein kultura-aniztasunaren hazkundeari lotuak.

Adin-egiturak zahartze demografiko progresiboa erakusten du. Talderik ugariak helduen eta adinekoen kohorteei dagozkie gaur egun, bereziki 45 eta 64 urte bitartekoei eta 75 urtetik gorako biztanleei. 2017an, esaterako, 148 pertsona zeuden 75 urtetik gora, gazte-adin tarte askotan baino gehiago. Aldi berean, nahiz eta haur-populazioak oraindik ere pisu esanguratsua izan, 2017an 0 eta 14 urte arteko 276 adingabe,, gazte-helduen kohorteei beheranzko joera erakusten dute. Bereziki aipagarria da 30 eta 34 urte arteko taldearen beherakada: 2012ko 142 pertsonatik 2025ean 63 izatera igaro da. Bilakaera horrek emantzipazioarekin, etxebizitzarako sarbidearekin eta gazte-biztanleria udalerrian finkatzeko zailtasunekin lotutako arazo gero eta handiagoak islatzen ditu.


Sexuaren araberako egitura nahiko orekatua bada ere, alde nabarmenak ageri dira adinaren arabera. Gizonek presentzia handiagoa dute lan-jarduerarekin eta industria-enpleguarekin lotutako adin aktiboetan; emakumeak, aldiz, nagusi dira adin aurreratuetan, bizi-itxaropen handiagoaren ondorioz. 2017an, 75 urtetik gorako 82 emakume zeuden, gizonen kasuan 66 ziren bitartean.



Adin-taldeak araberako egitura (2025/01/01). Iturria: Eustat.

Biztanleriaren jatorriari dagokionez, Segurak Gipuzkoarekiko lotura sendoa mantentzen du. 2017an, 1.276 pertsona Gipuzkoan jaiotakoak ziren, eta 1.285 Euskadi osoan jaiotakoak; guztira, udalerriko biztanleriaren %86 baino gehiago ordezkatzeko zuten. Hala ere, lurraldetik kanpo jaiotakoen presentzia progresiboki handitzen ari da. Atzerrian jaiotako biztanleak 136 ziren 2017an, eta ondorengo urteetan kopuruak gora egiten jarraitu du, nazioarteko migrazioek udalerriaren bilakaera demografikoan gero eta garrantzi handiagoa dutela erakutsiz.

Lurralde-aniztasuna nazionalitateen osieran ere antzematen da. Espainiako nazionalitatea duten herritarrak gehiengo argia izaten jarraitzen duten arren, 1.358 pertsona 2017an, nabarmentze-koak dira Magrebetik etorritako kolektiboak (39 pertsona), Europako beste herrialde batzuetakoak (42) eta Asia zein Ozeaniakoak (26). Gainera, immigrazioan generoaren arabera bereizketa batzuk ere antzematen dira: gizonek presentzia handiagoa dute Europako eta Asiako jatorriko kolektiboetan; emakumeek, berriz, presentzia esanguratsua dute Magrebeko eta Hego Amerikako jatorriko taldeetan, askotan familia-berrelkartzearekin eta zaintza zein zerbitzuetako enpleguekin lotuta.



Biztanleria jatorriaren arabera (2025/01/01). Iturria: Eustat.

Eskualde-mailako konparaketak erakusten du Segurak Goierri osoarekin partekatzen dituela gaur egungo joera demografiko nagusiak: zahartze progresiboa, hazkunde mugatua eta migrazioen gero eta garrantzi handiagoa biztanleria mantentzeko mekanismo gisa. Hala ere, Beasain edo Ordizia bezalako udalerrri industrial handiagoeekin alderatuta, Segurak izaera residencial eta ondarezkoagoa mantentzen du; lan-erakarpentxiagoa duen arren, hiri-kalitate eta komunitate-kohesio handiko udalerrria izaten jarraitzen du.

Zahartzea da eskualde-mailan partekatzen den erronka nagusia. Segurak oraindik haur eta gazte oinarri jakin bat mantentzen badu ere, gazte-helduen beherakadak eta adinekoen hazkundeak etorkizuneko premia berriak iragartzen dituzte, bereziki zaintza, irisgarritasun eta etxebizitza-parkearen egokitzapenari lotuak. Aldi berean, barne- zein nazioarteko migrazioak funtsezko faktore bihurtu dira biztanleria mantentzeko eta zahartze naturalaren ondorioak hein batean orekatzeko.

ADINEKOEN EGOERA

2024ko erroldaren arabera, Aztiker taldeak egindako azterlanak erakusten du Segurako biztanleriaren adin-egiturak zahartze joera nabarmena duela. Gaur egun, 65 urtetik gorakoak biztanleriaren %21,3 dira, eta joera hori areagotuko dela aurreikusten da, kontuan hartuta biztanleen %49,9k 45 urte baino gehiago dituela eta %34k 55 urtetik gora. Sexuaren araberrako banaketa nahiko orekatua da: emakumeak biztanleriaren %48,6 dira eta gizonezkoak %51,4. Antzeko oreka mantentzen da 65 urtetik gorako arteen ere, 156 emakume eta 159 gizonezkoekin, nahiz eta 90 urtetik gorako adin-tarteetan emakumeen presentzia handiagoa izan.

Jatorri geografikoari dagokionez, biztanleriaren %49,8 Seguran bertan jaiotakoa da, eta %84,9 Euskal Herrian jaiotakoa. Estatutik kanpo jaiotako biztanleak %12,4 dira, eta horien artean nabarmentzen dira Ameriketatik, Afrikatik eta Europako beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonak. Datu horiek erakusten dute udalerrriak bere lurralde-errotzea mantentzen duela, baina aldi berean gero eta handiagoa dela jatorri-aniztasuna.

Etxeen egiturari dagokionez, batez besteko tamaina 3,4 pertsonakoa da, eta biztanleriaren %11,1 bakarrik bizi da. Bakarrik bizi diren pertsonen artean, %25,6 65 urtetik gorako emakumeak dira eta %18,3 gizonezkoak; horrek agerian uzten du zahartzearen eta bakardade-egoeren eragina gero eta handiagoa dela udalerriko bizikidetzareduetan.

Azterlanak azpimarratzen du zaintza-beharrak bereziki handitzen direla 80 urtetik aurrera. Gaur egun, 87 pertsona daude adin-tarte horretan, eta horietatik 48k 85 urte baino gehiago dituzte. Bestalde, dependentzia txikiko egoeran kokatzen den 65 eta 79 urte arteko adin-tartean 228 pertsona daude. Egoera horrek etorkizunean zaintza-, laguntza- eta irisgarritasun-politikek izango duten garrantzia azpimarratzen du.

Bakarrik bizi diren adinekoen banaketa espazialari dagokionez, gehienak Kale Nagusian (%25), Segura barreiatuan (%17,7) eta Lardizabalen (%10,4) kontzentratzen dira. Banaketa horrek erakusten du adineko biztanleriaren presentzia bereziki esanguratsua dela udalerrriaren zenbait eremutan, eta horrek eragin zuzena izan dezakeela auzo-mailako zaintza- eta bizikidetzestrategien definizioan.

Aurreikuspen demografiko eta sozialek erakusten dute datozen urteetan 65 urtetik gorako biztanleriak hazkunde nabarmena izango duela, eta gehiengoak Euskal Herrian jaiotakoa izaten jarraituko duela. Hala ere, erronka nagusietako bat dependentzia-egoeran dauden adineko pertsonen kopuruaren igoerari erantzutea izango da.

JATORRIA ETA ANIZTASUNA

Segurako azken hamarkadetako hazkunde eta egonkortasun demografikoa ezin da soilik biztanleriaren hazkunde naturalaren bidez azaldu. Gipuzkoako udalerrri askotan gertatzen den bezala, migrazio-mugimenduek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute udalerrriaren bilakaera demografikoan.

Segurako migrazio-dinamika, nagusiki, Gipuzkoa barruko eta Euskal Autonomia Erkidegoko barne-mugikortasunari lotuta dago. Goierriko eta lurralde historikoko hirigune eta enplegu-ardatzen hurbiltasunak etxebizitzaren eskuragarritasunarekin eta bizi-kalitate handiagoko ingurune urbano eta ingurumenekoen bilaketarekin lotutako egoitza-mugikortasuneko prozesuak sustatzen ditu. Testuinguru horretan, Segurak alde batetik hirigune historiko finkatu baten ezauzgarriak uztartzen ditu, eta bestetik tamaina ertain eta txikiko udalerriei lotutako egoitza-balioak.

Barne-migrazioek bereziki lagundu dute helduen eta familia-unitateen biztanleria mantentzen. 30 eta 50 urte bitarteko biztanleen etorrerak, sarritan seme-alabak dituzten familia-unitateei lotuak, haur eta gazte-populazioaren presentzia neurri batean mantentzea ahalbidetu du, bertako biztanleriaren zahartze naturalaren ondorioak hein batean orekatuz. Dinamika hori ohikoa da lurralde-konektibitate ona eta hirigune handietan baino egoitza-eskaintza eskuragarriagoa duten udalerrietan.

Aldi berean, udalerrriak nazioarteko migrazio-mugimenduen eragina ere badu, nahiz eta intentsitate txikiagoan gertatu hiri-eremu handiagoeekin alderatuta. Atzerriko jatorria duen biztanleriak pixkanaka udalerrriaren aniztasun sozial eta demografikoa handitzen laguntzen du, bereziki lan-adineko talde batzuetan. Haren presentziak lan egiteko adinean dagoen biztanleria neurri batean mantentzen laguntzen du, eta jaiotza-tasa baxuen ondoriozko beherakada naturala partzialki konpentsatzeko gaitasuna izan dezake.

Hala ere, Seguraren egoitza-erakarpn gaitasuna hainbat egiturazko faktoreren menpe dago. Horien artean nabarmentzekoak dira etxebizitza-eskaintza mugatua, alde zaharreko zenbait eremutan etxebizitza-parkearen zaharkitzea eta familia- zein gizarte-behar berrietara egokitutako egoitza-eskaintza garatzeko beharra. Era berean, zerbitzu, ekipamendu eta garraio publiko-etarako irisgarritasuna funtsezko elementua da gazte-biztanleriaren erakartze- eta egonkortze-dinamikak sendotzeko.

Bestalde, enpleguari lotutako eguneroko mugikortasunak harreman estua mantentzen du inguruko udalerriekin. Biztanleria egoiliarren zati handi batek udalerritik kanpo garatzen du bere jarduera ekonomikoa, batez ere Goierriko beste udalerrri batzuetan eta hurbileko industrialdeetan. Egoera horrek bide-azpiegiturekiko eta ibilgailu pribatuarekiko mendekotasun funtzionala handitzen du, bereziki langile-populazioaren zenbait taldetan.

II.3.3 ETXEBIZITZA

II.3.3.1 LURRALDE EGITURA ETA BIZITEGI EREDUA

Segurako etxebizitza parkearen eta lurralde antolamenduaren azterketak tamaina txikiko udalerrri baten ezaugarriak erakusten ditu: lurzoru urbanizaezinaren nagusitasuna, etxebizitza parke zahartua eta dentsitate txikiko hiri egitura trinkoa. Hala ere, eskuratutako adierazleek erakusten dute etxebizitza parkea pixkanaka egokitzen ari dela zahartze demografikoak eta bizikidetzaren ereduaren bilakaerak sortutako behar berrietara.

2024an bizitegi erabilerako lurzoruak 15,89 hektarea hartzen ditu udal mugartean. Lurraldearen %95,96 lurzoru urbanizaezina da; bizitegi erabilerako lurzoruak azalera osoaren %1,70 baino ez du ordezkutzen, jarduera ekonomikoetarako lurzoruak %0,52 eta sistema orokorrek %1,82. Antolamendu horrek udalerrriaren izaera rural eta paisajistikoa berresten du, baita urbanizatutako lurzoruaren hedapen mugatua ere.

2025ean biztanleria dentsitatea 160,32 biztanle/km²-koa da. Dentsitate moderatua da, hirigunean kontzentratutako okupazio eredu trinkoa adierazten duena, baina aldi berean landa eta natura eremuen presentzia nagusiarekin bateragarria. Horrenbestez, Segurak Gipuzkoako udalerrri historiko askotan ikus daitekeen lurralde eredu mantentzen du, non biztanleria nagusiki hirigunean pilatzen den ingurune nagusiki landatar batean.

II.3.3.2 ETXEBIZITZA PARKEAREN EZAUGARRI FISIKOAK ETA TIPOLOGIKOAK

Segurako etxebizitza parkea tamaina handiko etxebizitzek osatzen dute nagusiki. 2023an familia-etxebizitzaren batez besteko azalera erabilgarria 106,1 m²-koa da, dentsitate handiko hiri inguruneetako batez bestekoen gainera. Ezaugarri hori familia bakarreko etxebizitzaren presentzia nabarmenarekin, eskala txikiko eraikinekin eta dentsitate txikiko hiri egitura tradizionalarekin lotuta dago.

Eraikinen tipologiari dagokionez, altuera baxuko eta eskala txikiko eraikinek osatzen dute udalerriko etxebizitza parkea. 2023an 192 familia bakarreko etxebizitza zenbatu dira, eta beste 114 etxebizitza bi etxebizitzako eraikinetan kokatzen dira. Horrez gain, 360 etxebizitza 3 eta 10 etxebizitza arteko eraikinetan daude. Ez dago 20 etxebizitza baino gehiagoko bloke eraikinik; horrek berresten du udalerriko hiri bilbearen izaera trinkoa baina dentsitate txikikoa.

2026ko etxebizitza behararen inkestaren arabera, etxebizitza eskariak ere antzeko ezaugarriak ditu. Eskariaren %84,1ek tamaina handiko etxebizitzak nahi ditu, dela hiru logela edo gehiagoko etxebizitzetan (%49,3), dela tipologia unifamiliar, bifamiliar edo adosatuetan (%34,8). Joera horrek udalerriko bizitegi kultura eta etxebizitza eredu islatzen ditu, baina aldi berean lurzoruaren kontsumoaren, kostu ekonomikoaren eta jasangarritasunaren arteko oreka bermatzeko erronkak planteatzen ditu.

II.3.3.3 ETXEBIZITZA PARKEAREN ZAHARTZEA ETA BIRGAITZE BEHARRAK

Segurako etxebizitza parkearen ezaugarri nagusietako bat haren zahartze progresiboa da. Etxebizitzen batez besteko antzinatasuna 33,2 urtetik 42 urtera igaro da 2014 eta 2023 artean; hau da, hamarkada batean ia bederatzi urteko hazkundea izan du. Horrek erakusten du azken urteetan etxebizitza berrien ekarpena mugatua izan dela eta XX. mendearen erdialdeko hamarkadetan eraikitako etxebizitzen pisua handia dela oraindik.

Egoera horrek gero eta premiazkoago bihurtzen ditu energia-eraginkortasuna, irisgarritasuna eta etxebizitzen egokitzapena helburu dituzten birgaitze politikak. Diagnostiko hori berretsi zuten 2022an gazteekin egindako eztabaida taldeek. Parte-hartzaileen arabera, udalerriko etxebizitza eskaintza "zaila" eta "konplikatu" da, batez ere eskuragarri dauden etxebizitza asko zaharkituta daudelako eta bizigarri bihurtzeko birgaitze lan garrantzitsuak behar dituztelako. Gazteek bereziki nabarmendu zituzten berritze prozesuen kostu ekonomikoa eta muga arkitektonikoak.

Ildo berean, 2026ko inkestan egungo etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak hobetzea etxebizitza eskariaren bigarren arrazoi nagusia dela jasotzen da (%25), eta horrek birgaitze programak indartzearen beharra azaleratzen du.

II.3.3.4 IRISGARRITASUNA ETA ETXEBIZITZA PARKEAREN EGOKITZAPENA

Etxebizitza parkearen zahartzearekin batera, irisgarritasunaren arloan hobekuntza progresiboak antzeman dira. 2014an 181 etxebizitzak zuten igogailua; 2023an, berriz, 254k. Bilakaera horrek erakusten du azken urteetan ahalegin esanguratsua egin dela etxebizitza parkea biztanleriaren zahartzearen eta irisgarritasun unibertsalaren eskakizunetara egokitzeko.

Joera hori bereziki garrantzitsua da adinekoen pisua handitzen ari den udalerrri batean, etxebizitzaren erabilgarritasuna eta autonomia pertsonala bermatzeko funtsezko elementua baita.

II.3.3.5 ETXEBIZITZA HUTSAK ETA OKUPAZIO EREDUA

2023an Segurak 737 etxebizitza zituen; horietatik 735 familia-etxebizitzak ziren eta 2 soilik establezimendu kolektiboak. Familia-etxebizitzen artean, 565 etxebizitza nagusiak ziren eta 170 ez-nagusiak edo bigarren etxebizitzak. Horrek esan nahi du etxebizitza parkearen %23 inguruk ez duela ohiko bizileku funtziorik betetzen.

2022an egindako azterlan baten arabera, udalerriko etxebizitzen %24,9 hutsik daude. Etxebizitza hutsen kontzentrazio handienak baserri eremuan (%30,6) eta Alde Zaharrean (%27,9) identifikatu dira; erdigunean, berriz, tasa txikiagoa da (%17,1). Datu horiek baliabidearen aprobetxamendu eskasa erakusten dute eta esku-hartze urbanistiko eta birgaitze estrategikoen beharra azpimarratzen dute, bereziki eremu kalteberenetan.

II.3.3.6 BIZIKIDETZA EGITURAK ETA ETXEBIZITZEN OKUPAZIOA

Azken urteetan etxebizitzaren okupazio maila pixkanaka murriztu da. 2015etik 2023ra pertsona bakarreko etxebizitzak 133tik 159ra igo dira; aldiz, 3 eta 5 pertsona arteko etxebizitzak 269tik 248ra jaitsi dira. Bilakaera hori zuzenean lotzen da biztanleriaren zahartzearekin, bakarrik bizi diren adinekoen gorakadarekin eta familia egitura tradizionalen eraldaketarekin.

Hala ere, etxebizitza bakoitzeko batez besteko okupazioa egonkor mantentzen da, 2,6 pertsona ingurukoa izanik. Adierazle hori nahiko altua da zahartze handiagoko edo izaera metropolitarrerako inguruneekin alderatuta. Bestalde, familia ugariak oso gutxi dira: 2023an soilik 14 etxebizitzatan bizi ziren 6 eta 9 pertsona artean.

II.3.3.7 ZAHARTZEA, BAKARDADEA ETA ADINEKOEN EGOERA

Seguran batez beste 2,6 pertsona bizi dira etxebizitza bakoitzean, eta biztanleriaren %10,2 bakarrik bizi da. Egoera hori nabarmenagoa da 65 urtetik gorakoen artean, eta generoaren arabera aldea ere agerikoak dira: emakumeen %24 bakarrik bizi da, gizonen kasuan proportzio hori %17,3koa den bitartean.

Azterketek erakusten dute bizikidetza ereduak aldatzen ari direla. Adinekoen %37k bikotekidearekin bizi jarraitzen duen arren, gero eta ohikoagoa da senideekin edo bestelako formula konplexuagoetan antolatutako bizikidetza. Joera horiek eragin zuzena dute gizarte zerbitzuen antolaketan eta etxebizitza politikan.

Adinekoen kontzentrazioa bereziki handia da Alde Zaharrean; 65 urtetik gorakoen %42,9 bertan bizi da, eta horietatik laurden bat bakarrik bizi da. Kale Nagusian joera hori are nabarmenagoa da, bertan adin talde horretako biztanleen %35,7 biltzen baita. Egoera horrek irisgarritasunarekin, hiri berronertzearekin eta komunitate arreata politikekin lotutako esku-hartzeak lehenestea eskatzen du.

II.3.3.8 GAZTEEN EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA ESKURAGARRITASUNA

18 eta 35 urte arteko gazteen %59,7k gurasoen etxean bizitzen jarraitzen du. Emantzipazio tasa adinarekin handitzen bada ere, 30 eta 35 urte bitarteko %29,2 oraindik familia etxean bizi da. Egoera horrek erakusten du emantzipazio prozesua atzeratuta dagoela, etxebizitza eskuratzeko zailtasunek eta eskaintza egokiaren gabeziak baldintzatuta.

Baseri eremuan egoera are nabarmenagoa da, bertan gazteen %13,5 baino ez baitago emantzipatuta. Auzoen artean ere alde handiak daude: Xesterialden gazteen %91,7 emantzipatuta dago, eta Andraitz kalean ez da gazte emantzipaturik identifikatu. Desberdintasun horiek etxebizitzaren tipologiarekin, irisgarritasunarekin eta etxebizitzaren merkatuaren baldintzekin lotuta daude.

II.3.3.9 ETXEBIZITZA ESKARIA ETA UDALERRIAN ERROTZEKO NAHIA

2026ko etxebizitza beharraren inkestak erakusten du udalerrian geratzeko borondate handia dagoela. Etxebizitza berri bat eskuratzeko asmoa duten pertsonen %94,5ek Seguran bertan bizitzen jarraitu nahi du, herriarekiko lotura demografiko eta emozional sendoaren erakusgarri.

Eskariaren kuantifikazioari dagokionez, bi multzo bereizten dira: alde batetik, hurrengo bost urteetan etxebizitza beharko duten 44 pertsonak osatutako epe laburreko eskari efektiboa; bestetik, epe ertaineko eskari geroratu, etxebizitza aldatzekotan herrian geratuko liratekeen 22 pertsonak osatua. Guztira, 66 etxebizitzako eskari potentziala identifikatzen da, HAPOaren garrantzitsua dena.

Emantzipazioa da epe laburreko etxebizitza eskariaren arrazoi nagusia (%40,9). Inkestatutako en %27,9 oraindik gurasoekin bizi dela kontuan hartuta, ezkutuko eskari estruktural baten existentzia ondoriozta daiteke.

II.3.3.10 JABETZA EREDUA ETA ALOKAIRU MERKATUAREN EGOERA

Jabetza erregimena da nagusi Seguran. 2021ean erregistratutako 555 etxebizitza nagusietatik 481 jabetzan okupatuta zeuden; 57 alokairuan eta 17 bestelako edukitze erregimenetan. Horrek esan nahi du etxebizitza nagusien %87 inguru jabetzakoak direla, eta alokairu eskaintza oso mugatua dela.

2026ko inkestan ere joera bera ageri da: eskatzaileen %87k jabetzako etxebizitza lehenesten du, eta alokairuaren aldeko eskaria %2,9koa baino ez da. Hala ere, emaitza hori zuhurtziaz interpretatu behar da, udalerrian alokairuko eskaintza ia inexistentea baita. Ondorioz, eskari txikia merkatuaren gabezien isla izan daiteke, eta ez nahitaez herritarren lehentasun erreala. Horrek alokairuzko etxebizitza sustatzeko politikak indartzea justifikatzen du, bereziki gazteen emantzipazioa eta biztanleria berria erakartzea helburu izanik.

II.3.3.11 ESKURAGARRITASUN EKONOMIKOA ETA ETXEBIZITZA BABESTUA

2026ko inkestaren arabera, etxebizitza eskariaren %77,6k 200.000 eta 350.000 euro arteko eros-teko ahalmena du, eta merkatu libreko etxebizitza berri bat eskuratzeko gaitasuna izango luke. Bestalde, eskariaren %19,4k 125.000 eta 200.000 euro arteko aurrekontua du, eta kolektibo horientzat etxebizitza babestuaren erreserbak edo prezio tasatuko formulak funtsezko tresna dira etxebizitza eskuragarritasuna bermatzeko.

II.3.3.12 ENERGIA EKIPAMENDUAK ETA UDAL INBERTSIOA

Etxebizitza parkearen ekipamendu energetikoen oraindik hobekuntza tartea dute. 2023an bizitegi eraikinen %17,9k bakarrik zuten gas hoditeria bidezko hornidura, eta horrek erakusten du bestelako energia sistemen menpekotasun handia dagoela oraindik. Egoera horrek erronka garrantzitsuak planteatzen ditu energia trantsizioaren eta eraikinen efizientzia energetikoen ikuspegitik.

Bestalde, udalaren inplikazioa nabarmena izan da etxebizitza eta hirigintza arloan. 2023an 182.972 euro bideratu ziren arlo horietara, hiri plangintza, espazio publikoaren mantentzea eta egoitza ingurunearen hobekuntza sustatzeko. Inbertsio hori bereziki esanguratsua da etxebizitza parkearen zahartze testuinguruan eta hiri birgaitzearen behar gero eta handiagoaren aurrean.

II.3.3.13 HAURREN IKUSPEGIA ETA ETORKIZUNeko ERROLDATZEA

2026ko haurren parte-hartze tailerrean jasotako emaitzek erakusten dute gazteenen artean etorkizunari buruzko ikuspegi anibalentea dagoela. Parte-hartzaile askok ez zuten Seguran bizitzen jarraitzeko asmorik adierazi, batez ere zerbitzu eskaintzaren gabeziak aipatuta. Hala ere, elkarrizketetan behin eta berriz agertu zen "herrimina" kontzeptua, udalerriarekin duten lotura afektibo eta identitario sendoa agerian utziz. Horrek iradokitzen du etorkizunean udalerrian geratzeko edo bertara itzultzeko aukera zabalik mantentzen dela.

II.3.4 EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

II.3.4.1 PRESTAKUNTZA-MAILA

HEZKUNTZA-MAILA ETA PRESTAKUNTZA

Segurak prestakuntza-maila altua du, hezkuntza publiko sendoan eta euskarazko irakaskuntzaren nagusitasunean oinarrituta. Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua nabarmen hazi da azken hamarkadan (179tik 242ra 2013-2021 aldian, eta 577 pertsona 2024an), unibertsitate-ikasketetarako sarbidearen hedapena islatuz. Aldi berean, ikasketarik gabeko biztanleak (43tik 27ra) eta analfabetoak (8tik 3ra) gutxitu dira; 2019tik aurrera analfabetismo-tasa %0koa da. Prestakuntza ertain eta lanbide-heziketako ikasketek oraindik ere pisu handia dute: 2021ean 402 pertsonak lehen mailako ikasketak zituzten, 320k lanbide-heziketa eta 227k bigarren mailako ikasketak. Lanbide-heziketaren presentzia handiak Goierriko industria-ingurunearekiko lotura historikoa erakusten du.

ESKOLARATZEA ETA MATRIKULAZIOA

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasle kopurua 236tik 182ra jaitsi da 2015/2016 eta 2024/2025 ikasturteen artean (%23ko beherakada), haur-populazioaren murrizketaren eta zahartze demografikoaren ondorioz. Jaitsiera bi sexuetan gertatu da, nahiz eta banaketa orekatua mantendu (88 mutil eta 94 neska 2024/2025ean). Hezkuntza-taldeak ere 16tik 13ra murriztu dira. Gutxienez 2008tik ikasle guztiak D ereduari ari dira; 2024/2025ean 182 ikasleak euskarazko eredu integralean matrikulatuta daude eta ez dago A edo B eredurik. Era berean, irakaskuntza ez-unibertsitario osoa publikoa da, eskaintza pribatu edo itundurik gabe.

HEZKUNTZA-ESKAITZA

Udalerrian Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza baino ez dira eskaintzen. 2017an 92 ikasle zeuden Haur Hezkuntzan eta 142 Lehen Hezkuntzan; DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa beste udalerrri batzuetan egin behar dira, eskualdeko hezkuntza-guneekiko mendekotasuna handituz. 2023an hezkuntza publikoan 186.326 euroko udal-gastua egin zen. Oro har, Segurak hezkuntza-maila altua eta euskararen zein hezkuntza publikoaren aldeko sistema sendoa ditu, baina ikasle kopuruaren etengabeko jaitsiera erronka nagusia da.

II.3.4.2 EHUN EKONOMIKOA

ENPRESA-SAREAREN BILAKAERA

Segurako ekonomia mikroenpresetan eta eskala txikiko jardueretan oinarritzen da, Goierriko ekonomiari estuki lotuta. 2014tik 2025era enpresa kopurua 76tik 61era jaitsi da (%20ko beherakada), enpresa-sarearen zahartzea, belaunaldi-erreleboaren zailtasunak eta negozio txikien desagerpena agerian utziz. Herritarrek ere merkataritzaren ahultzea eta eskaintza ekonomiko mugatua azpimarratzen dituzte. 2025ean dauden 61 enpresetatik 45ek 0-2 langile dituzte (%74), eta 81 establezimendutik 64 tamaina berekoak dira (%79). Horrek erakusten du ekonomia autonomoetan, familia-jardueretan, merkataritza txikian eta tailerretan oinarritzen dela. Tamaina ertaineko edo handiko enpresak oso urriak dira, eta ez da 50 langiletik gorako enpresarik erregistratu.

MENDEKOTASUN FUNTZIONALA

Enpresa handirik ez izateak udalerrriaren mendekotasuna handitzen du Beasain, Ordizia edo Legazpiko industria-guneekiko. Biztanleria aktiboaren zati handi batek udalerritik kanpo egiten du lan, eta Segurak neurri batean bizitegi-funtzioa betetzen du. Pertsona fisikoen enpresak nagusi dira (39 enpresa 2025ean), nahiz eta kopurua 58tik jaitsi den 2014tik. Sozietate mugatuak, berriz, 7tik 11ra igo dira. Ekonomia dibertsifikatua bada ere, hirugarren sektoreak gero eta pisu handiagoa du, bereziki merkataritzak, ostalaritzak, zaintzek eta zerbitzu pertsonalek. Industria badago, baina oso zatitua eta eskala txikikoa da, batez ere metalezko egituretan, erremintetan eta artisau-elikagaien ekoizpenean oinarrituta. Ez da industria-lurzoru berrien premia handirik identifikatu; hazkundea lehendik dauden pabiloien atzealdeko lurretan garatzea proposatzen da.

ENPLEGUA ETA MUGIKORTASUNA

2025ean 81 establezimenduk 297 lanpostu sortzen dituzte, batez beste 3,7 langilerekin. Enpleguaren %53,2 emakumeek betetzen dute (158 emakume eta 139 gizon). Gizonen zati handi batek inguruko industria-udalerrietan egiten du lan; 25-50 urte bitartekoan artean joan-etorriak oso ohikoak dira.

MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

Oinarrizko zerbitzuak badaude ere, herritarrek erosketa nagusiak inguruko supermerkatuetan egiten dituzte. Herriko merkataritza eguneroko produktuetara mugatzen da, eta arropa edo kontsumo espezializaturako eskaintza eskasa da. Tabernen eskaintza, aldiz, egokitzat jotzen da. Horrek tokiko jarduera ekonomikoa eta kale-bizitza mugatzen ditu.

II.3.4.3 BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA

ERRENTA-MAILA ETA BILAKAERA

Segurak errenta-maila altuak ditu Gipuzkoako testuinguruan. 2023an familia-errenta 60.201 eurokoa eta pertsona bakoitzeko errenta erabilgarria 24.820 eurokoa izan zen. 2014tik %31eko eta %35eko hazkundeak izan dira, hurrenez hurren. Lan-errenta da iturri nagusia: pertsonako 18.546 euro eta familia bakoitzeko 37.736 euro. Transferentzia sozialek ere gero eta garrantzi handiagoa dute; 2023an 8.639 euro pertsonako eta 17.407 euro familiako izan ziren, zahartzearen eta pentsioen pisu gero eta handiagoaren ondorioz.

FAMILIA-ERRENTAREN EGITURA ETA GENERO-ARRAKALA

Familien %31,8 errenta-maila altuenetako deziletan kokatzen da, eta %11,5 bakarrik baxuenetan. Aberatsenen %20ak 117.287 euroko batez besteko errenta du; txiroenen %20ak, berriz, 18.958 eurokoa. Horrek erakusten du batez besteko errenta handia izan arren banaketa ez dela orekatua. Gizonen errenta-mailak emakumeenak baino handiagoak dira pertzentil guztietan. Batzbeste, gizonek 34.849 euro jasotzen dituzte eta emakumeek 21.756 euro (%38ko aldea). Arrakala bereziki handia da errenta baxuetan, baina errenta altuetan ere mantentzen da. Egoera hori lanaldi partzialekin, sektore ekonomikoen segregazioarekin eta zaintza-lanen pisu handiagorekin lotzen da.

II.3.4.4 LAN ETA JARDUERA MERKATUA

LAN-MERKATUAREN EGOERA

Segurako lan-merkatuak bilakaera positiboa izan du, langabezia txikia eta okupazio-maila handiak erakutsiz. 2024an langabezia-tasa %4,2koa da, azken hamarkadako baxuenetako bat. Okupazio-tasa %57,4koa da, eta 691 pertsona daude lanean. Gizonek adierazle hobek dituzte: okupazio-tasa %60,7koa da, emakumeena %54,1koa; jarduera-tasa %50,3koa eta %47,5koa, hurrenez hurren. Langabezian arrakala are handiagoa da: gizonen tasa %2,6koa da eta emakumeena %5,9koa.

ADINAREN ARABERAKO EGITURA

Enplegua batez ere 35-54 urte artekoen artean pilatzen da. Gazteen okupazioa txikiagoa da (16-24 urte bitarteko 23 gizon eta 25 emakume lanean), prestakuntza-ibilbideen luzapenaren eta kohorte txikien ondorioz. Langabezia ere batez ere emakume helduetan pilatzen da. 2024an 752 pertsona daude inaktibo egoeran, biztanleriaren ia erdia. Inaktibitatea bereziki handia da 65

urtetik gorakoen artean, zahartze demografikoaren ondorioz. Gazte askoren inaktibitatea, berriz, ikasketekin lotuta dago.

II.3.5 LEHEN SEKTOREA

II.3.5.1 GARRANTZIA EKONOMIKOA ETA LURRALDE-FUNTZIOA

Lehen sektoreak pisu ekonomiko mugatua du Seguran, baina garrantzi handia mantentzen du ikuspegi territorial, paisajistiko, ingurumeneko eta identitarioan. 2023an udalerriko Balio Erantsi Gordinaren (BEG) %3,3 ordezkatu zuen. Industria eta zerbitzuen azpitik dagoen arren, Goierriko udalerrri urbanoagoekin alderatuta oraindik presentzia esanguratsua du. Horrek erakusten du Segurak landa izaerari eta baserri-egiturari lotutako ezaugarriak mantentzen dituela. Parte-hartze prozesuetan ere lehen sektoreak identitate kolektiboan duen garrantzia azpimarratu da, nahiz eta jarduera ekonomiko profesionalizatua gero eta txikiagoa izan.

2014-2023 artean nekazaritza-sektoreko BEGa 446.000 eta 795.000 euro artean ibili da, klima-baldintzen, ekoizpen-kostuen, merkatu-prezioen eta familia-ustategien egoeraren arabera. Gorabeherak egon arren, ekoizpen-maila nahiko egonkor mantendu da, sektorearen moldagarritasuna erakutsiz. Hala ere, herritarrek jarduera profesionalizatuaren gainbehera progresiboa hautematen dute.

2023an lehen sektorea sustatzeko udal-gastua 10.398 eurokoa izan zen. Zenbatekoa mugatua bada ere, udalaren babes instituzional minimoa erakusten du, lehen sektoreak ekonomiatik harago lurralde-antolamenduan, paisaiaren mantentzean eta landa-ingurunearen zaintzan egiten duen ekarpena aitortuz.

II.3.5.2 LURZORUAREN ERABILERA

2020an Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria (NAE) 382 hektareakoa zen, guztira ustiatzen diren 622 hektareetatik. Horrek esan nahi du azalera osoaren %61 inguruk aprobetxamendu produktiboa duela. NAEren barruan 347 hektarea larre iraunkorrek dira eta 36 hektarea lur landuak. Egitura horrek udalerrriaren izaera abeltzain nabarmena erakusten du. Parte-hartze prozesuetan ere paisaia hori udalerrriaren ezaugarri bereizgarritzat identifikatu da; hurrek bereziki ardiak, behiak, zaldiak eta astoak aipatu zituzten baserri-ingurunekeko elementu adierazgarri gisa.

2020an nekazaritza-ustategiek 49 Urteko Lan Unitate (ULA) sortzen zituzten. Horietatik 31 familia-lanari dagozkio eta 18 soldatapeko edo bazkide-lanari. Familia-lanaren barruan, titularrek 18 ULA, ezkontideek 8 ULA eta bestelako senideek 5 ULA osatzen dituzte. Horrek erakusten du sektorea familia-antolaketan eta etxeke lanean oinarritzen dela neurri handi batean.

II.3.5.3 NEKAZARITZA-JARDUERA

Lur landuen 36 hektareetatik 22 fruta-arbolei dagozkie, 7 labore belarkarei eta 6 bestelako erabilerei. Ez dago mahastirik ezta olibadirik ere. Horrek eskala txikiko nekazaritza dibertsifikatua

erakusten du, familia-ustiategiekin eta tokiko kontsumoarekin lotua. Herritarrek autokontsumo-rako baratze txikien presentzia nabarmendu dute, baina ez da hiri-baratze kolektibo edo udal-kudeaketako sare egituraturik identifikatu.

II.3.5.4 ABELTZAINZA

Abeltzaintza da lehen sektorearen jarduera nagusia. 2020an 3.312 ardi, 411 behi, 72 ahuntz eta 34 zaldi zeuden erroldatuta; txerri-ekoizpenik ez dago. Datu horiek udalerrriaren orientazio abeltzaina berresten dute. Hala ere, parte-hartze prozesuetan azalerratu da jarduera horren ahultze progresiboa, eta gaur egun ez dela artzaintza-jarduera aktibo esanguratsurik ezta artzain-naren figuraren presentzia sozialik ere nabarmendu da.

II.3.5.5 BASERRIEN EGOERA: ERRELEBOA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

Parte-hartze diagnostikoaren arabera, udalerrian 100 baserri inguru daude, baina horietako asko hutsik edo infraerabilita daude. Jarduera profesionalizatua oso mugatua da: esne-behien ustiategi bakarra, untxi-haztegi bat eta jarduera mistoko baserri bat identifikatu dira. Egoera horrek sektorearen intentsitate txikia eta eskala ekonomiko mugatua erakusten ditu. Gainera, jarduera nagusiki gizonen eta 35 urtetik gorakoen esku dago, eta gazteen presentzia oso urria da; horrek belaualdi-erreleboaren eta etorkizuneko jarraitutasunaren inguruko zalantzak sortzen ditu.

Udalerrian 265 erlauntza eta 1.210 untxi-eme ugaltzaile daude. Horrek ustiategi batzuetan jarduera osagarriak garatzen direla erakusten du. Parte-hartze saioetan landetxe baten irekiera eta ekinoterapiarekin lotutako ekimenak ere aipatu dira. Esperientzia horiek landa-eremuak jarduera ekonomiko berriak hartzeko duen ahalmena erakusten dute, nahiz eta araudi urbanistikoak eta sektorialak ez duen beti behar adinako malgutasuna eskaintzen.

II.3.6 HERRITARREN PARTAIDETZA

Oro har, Segura herria parte-hartze aktiboa duen komunitate gisa identifika daiteke. Azken urteetan, herritarrek interesa agertu dute udal prozesuetan inplikatzeko, eta aurreikusten da HAPO-ren (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) inguruko partaidetza dinamikek are handiagoa erakar dezaketela, hausnarketa kolektiboaren bidez.

Aniztasun soziokulturalari erreparatuz, jatorri anitzeko emakumeekin harrera-tailerrak antolatu ziren, komunitatearen inklusioa eta parte-hartzea sustatzeko helburuarekin. Ekimen horien emaitzen ganean eraikita, herriko emakumeekin lan-saio osagarriak garatu ziren, eta horren ondorioz "Emakume Sarea" izeneko dinamika eratu da, gaur egun 14 kidez osatua. Sare hau baliabide estrategiko gisa aurreikusten da HAPO idazketan genero ikuspegia integratzeko prozesuan.

Bestetik, adineko biztanleekin ere parte-hartze dinamika bat gauzatu zen, zaintza-sistemari buruzko kezka eta premien inguruko hausnarketa sustatuz. Jardunaldi horietan 50 lagun inguruko parte hartu zuten, eta tailerretan "Nork zainduko zaitu?" galdera nagusi bihurtu zen. Parte-hartzaileen %30 baino gehiagok adierazi zuen ez daukala argi nork eskainiko dion zaintza etor-

kizunean: batzuk zaintzarako erreferenterik ez dutelako inguruan, eta beste batzuek, aldiz, ez dutelako nahi senideek ardura hori hartu beharrik izatea.

Horrez gain, 'Atsedeen' izeneko adinekoen elkarteak bere baitako diagnostiko-prozesu bat jarri du martxan, eta bertan lortutako emaitzak udalaren diagnostiko orokorrarekin uztartzeko asmoa dago.

Udal arduradunen iritziz, herriko elkarte-sarea zabal eta dinamikoa da, eta komunitatearen kohesioa zein aktibazioa sustatzeko funtsezko egituratzat jotzen da. Nabarmendu beharreko erakundeen artean, "Iparhegoa" elkarteak azpimarra daiteke, bere ekimen ugariengatik eta parte-hartze maila handiengatik. Kirol arloan, berriz, pilota, futbola, eta txirrindularitza ardatz dituzten elkarteek dute erakarpen ahalmenik handiena.

II.3.7 BERDINTASUNA ETA GENERO IKUSPEGIA

Segurako berdintasun-adierazleen azterketak erakusten du azken hamarkadetan emakumeen parte-hartze laborala eta ekonomikoak bilakaera positiboa izan duela, nahiz eta oraindik ere desberdintasun estruktural garrantzitsuak mantentzen diren enpleguaren, errentaren eta aukeren banaketaren arloan. Datuek emakumeen egoera sozioekonomikoaren hobekuntza progresiboa islatzen dute, baina aldi berean agerian uzten dute genero-arrakalek oraindik ere pisu handia dutela hainbat esparru giltzarritan.

2024an emakumeen okupazio-tasa %54,1era iristen da, eta gizonen kasuan %60,7koa da. Bi sexuen arteko aldea oraindik esanguratsua bada ere, 6,6 puntu portzentualekoa, azken hamarkadako bilakaerak erakusten du gizonen eta emakumeen arteko hurbilketa progresiboa gertatzen ari dela. 2019tik emakumeen okupazio-tasa %53,4tik %54,1era igo da, eta 2023an %56,8ra ere heldu zen. Joera horrek emakumeen lan-merkaturako sarrera gero eta handiagoa eta integrazio ekonomikoaren hobekuntza erakusten ditu.

Jarduera-tasak ere desberdintasunen murrizketa partziala islatzen du. 2024an gizonen jarduerataxa %50,3koa da eta emakumeena %47,5koa. Emakumeek lan-partaidetza txikiagoa izaten jarraitzen duten arren, aldea nahiko moderatua da eta aurreko hamarkadekin alderatuta konbergentzia argia erakusten du. 2019 eta 2023 artean emakumeen jarduerataxa %45,9tik %49,2ra igo da, enplegurako eta lan-bilaketa aktiborako parte-hartze handiagoa islatuz.

Hala ere, langabeziak emakumeengan eragin handiagoa izaten jarraitzen du. 2024an emakumeen langabezia-tasa %5,9koa da, gizonen %2,6aren bikoitza baino handiagoa. Horrek erakusten du emakumeek gero eta gehiago parte hartzen duten arren lan-merkatuan, oraindik ere zailtasun handiagoak dituztela laneratzean eta enplegu-egonkortasuna lortzean. Arrakala hori bereziki handitu zen pandemiaren ondorengo urteetan; izan ere, gizonen langabezia azkar jaitsi zen maila minimoetara, eta emakumeena, berriz, maila handiagoetan mantendu zen.

Desberdintasun ekonomikoak are nabarmenagoak dira errentaren azterketan. 2023an gizonen batez besteko errenta pertsonala 35.617 eurokoa da, eta emakumeena 23.563 eurokoa; horrek esan nahi du emakumeen errenta gizonenaren %66 baino ez dela. Arrakala bera mantentzen da lan-errentan ere: gizonen batez beste 21.861 euro jasotzen dituzte, eta emakumeek 15.161 euro, hau da, %31 gutxiago inguru.

Bilakaera historikoak, hala ere, emakumeen errentaren hobekuntza progresiboa erakusten du. 2014 eta 2023 artean emakumeen errenta pertsonala 15.476 eurotik 23.563 eurora igo da, %52 inguruko hazkundera izanik, gizonen artean erregistratutakoa baino handiagoa. Hala ere, alde absolutuak oso handiak dira oraindik ere, eta soldaten arteko desberdintasunek, emakumeen lanaldi partzial handiagoek eta industria-sektore hobeto ordainduetan emakumeen presentzia txikiagoak arrakala mantentzen dutela erakusten dute.

Familia-errentetan ere aldeak antzematen dira errenta jasotzen duen pertsona nagusiaren sexuaren arabera. 2023an gizonek gidatutako familiek batez beste 64.726 euroko errenta dute, eta emakumeek gidatutakoek 51.787 eurokoa; hau da, 12.900 eurotik gorako aldea dago. Emakumeen egoerak 2014arekiko hobekuntza esanguratsua izan badu ere, gaitasun ekonomikoan eta diru-sarreraren egonkortasunean desberdintasun estrukturalak bere horretan jarraitzen dute.


Biztanleria inaktiboaren egiturak ere generoarekin lotutako desberdintasun handiak erakusten ditu, bereziki zaintzaren eta zahartzearen eremuan. 2024an 377 emakume eta 375 gizon daude inaktibo egoeran, baina adinaren arabera banaketa bereziki esanguratsua da. Emakumeen artean handiagoa da inaktibitatea adin aurreratuetan, 75 urtetik gorako 73 emakume, gizonen kasuan 59 direnean, eta baita 20 eta 64 urte artekoetan ere; egoera hori lotuta egon daiteke lan-ibilbide etenagoekin eta zaintza-erantzukizun handiagoekin.

Genero-ikuspegia aztertzerakoan, ezinbestekoa da udalerrian gero eta handiagoa den jatorri-aniztasuna ere kontuan hartzea. Azken datu demografikoek erakusten dute Segurak ere parte hartzen duela gaur egungo euskal gizartearen ezaugarritzen duten eraldaketa sozial eta migrazio-prozesuetan. Tamaina txikiko udalerria izan arren, ez da populazioaren globalizazio- eta nazioarteko mugikortasun-prozesuetatik kanpo geratzen.

Eustatek 2024an argitaratutako datuen arabera, Segurako biztanleriaren %11 inguru atzerrian jaiotakoa da. Portzentaje horrek udalerrian profila demografikoaren dibertsifikazio progresiboa erakusten du eta nazioarteko migrazio-dinamikak Goierriko landa- eta hiriarteko eremuetan ere sendotzen ari direla berresten du.


Migrazio-fluxuen azken urteetako bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 2018 eta 2021 artean biztanleria immigrantearen etorrera zertxobait moteldu zela, neurri handi batean mundu mailako pandemiaren ondoriozko egoerak baldintzatuta. Hala ere, 2022an azken urteetako immigrante kopuruaren hazkunderik handiena erregistratu zen, eta atzerriko biztanleriaren etorrera-dinamika berriz ere indartu zen udalerrian.

Genero-ikuspegitik, azken urteetako bilakaerak alde batzuk erakusten ditu migrazio-fluxuetan. 2019 eta 2021 artean emakume immigranteen etorrera gizonenak baino handiagoa izan zen; aldiz, 2018an eta 2023an gizonenak immigrazioa izan zen zertxobait nagusi. Aldaketa horiek gaur egungo migrazio-prozesuen konplexutasuna eta aniztasuna islatzen dituzte, askotan lan-aukeretara ez ezik, familia-berrekitze eta zaintza-prozesuetara ere lotuta baitaude.



Iturria: Eustat

2023an, udal-errodaren azterketak erakusten du, gainera, Seguran bizi diren atzerriko jatorriko emakumeen artean jatorri-aniztasun handia dagoela; izan ere, 22 herrialde desberdinetatik etorritako pertsonak identifikatu dira. Kolektiborik ugarienak Portugal, Pakistan, Maroko eta Kolonbiako emakumeek osatzen dituzte.



Iturria: Segurako jatorri askotariko emakumeen parte-hartze soziopolitikoa (Elhuyar 2024)

Errealitate demografiko horrek Segura kulturen arteko bizikidetzarako espazio bihurtzen du; bertan, hizkuntza, ohitura, tradizio eta bizi-ibilbide desberdinak dituzten pertsonak elkartzen dira. Gero eta handiagoa den gizarte-aniztasuna funtsezko elementua da udalerraren egungo dinamikak ulertzeko, eta erronka berriak planteatzen ditu gizarte-kohesioari, integrazioari eta komunitate-partaidetzari dagokienez.

Bereziki esanguratsua da jatorri anitzeko emakumeen egoera. Tradizionalki, migrazio-prozesuek emakumeen rola ikusezin bihurtzeko joera izan dute, gizarte- eta demografia-azterketetan bigarren mailako posizioetara baztertuz. Hala ere, emakume migratzaileek funtsezko eginkizuna betetzen dute bai familien sostengu ekonomiko eta sozialean, bai harrera-udalerrietan komunitate-sare berriak eraikitzeke prozesuetan ere.

Atzerriko jatorria duten emakumeek aldi berean egin behar diete aurre helmuga-lurraldeetako egokitzapen sozial, ekonomiko, kultural eta linguistikoko prozesuei, araudi-esparru, balio eta antolaketa sozialeko forma berriekin topo eginez. Horrek guztiak integrazio- eta egokitzapen-ahalegin handiak eskatzen ditu, bai maila pertsonalean bai komunitarioan.

Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsua da Segurako Udalak jatorri anitzeko emakumeen errealitate eta beharretara hurbiltzeko sustatutako lana, haien gizarte- eta komunitate-partaidetzan arretoa berezia jarritz. Horrelako ekimenek gizarte-kohesioa indartzen laguntzen dute, integrazioa sustatzen dute eta pertsona migratzaileek udalerraren eguneroko bizitzan eta garapenean duten eginkizun aktiboa aitortzen dute.

GENEROA ETA HIRIGINTZA

Genero-ikuspegia txertatzen duen hirigintzak abiapuntu gisa hartzen du hiri-antolamendua ez dela diziplina neutroa, baizik eta hiriak eta auzoak historikoki gizarte patriarkalaren balio eta egitura sozialen arabera konfiguratu direla. Ildo horretan, hiri-espazioaren materializazio fisikoak eredu soziokultural horien erreproduktzioa, sendotzea eta iraunkortasuna sustatu izan ditu, eta neurri batean gaur egun ere dinamika horiek elikatzen ditu.

Era berean, genero-ikuspegia lantzean ez da soilik genero-aniztasuna kontuan hartzen; horrekin batera, adina, aniztasun funtzionala, jatorria, sexu-identitatea, bizikidetzaren unitate mota eta elkarren artean gurutzatzen diren gizarte-klaseko aldagaiak ere aintzat hartzen dira, ikuspegi intersektional batetik (Crenshaw, 1989).

Horrenbestez, Segurako HAOaren idazketan, genero-ikuspegia zeharkako eta integratutako azterketa-kategoria gisa planteatzen da, hizkuntzaren, osasunaren edo ingurumenaren ikuspegiarekin gertatzen den bezala. Ikuspegi hori planaren fase guztietan txertatzen da, hasierako etapa honetatik bertatik, hau da, diagnostiko-fasetik abiatuta.

Premisa horretan oinarrituta, fase honetan udalerraren eta haren hiri-eremuen lehen ebaluazio tekniko objektiboa egiten da. Horretarako, hirigintzaren eta genero-ikuspegiaren arloan garatutako metodologia egokitzen duen adierazle-sistema bat erabiltzen da, besteak beste Dunak taldea eta Punt6 kolektiboaren "*Eguneroko bizitzarako espazioak. Genero ikuspegia duten Hiri Kalitatearen Auditoriak*" (2014) lanean jasotakoa, landa-eremuko testuinguru batera egokituta, Seguraren kasuan bezala.

Azterketa-sistema hiru hiri-espazio motaren inguruan egituratzen da: hirigunea, harremanetarako espazioak eta eguneroko ekipamenduak. Espazio horiek honako hiri-ezaugarrien arabera definitzen dira: **hurbiltasuna, aniztasuna, autonomia, bizitasuna eta ordezkagarritasuna.**

Hiri-ezaugarri horiek espazio batek pertsonen eguneroko bizitzako esperientziak integratzeko beharrezko baldintzak betetzen dituen neurtzeko erabiltzen dira. Ildo horretan, eguneroko bizitza ulertzen da pertsonen beren bizi-zikloan eta bizi-esparru guztietan dituzten beharrak ase-

tzeko garatzen dituzten jardueren multzo gisa; horien artean sartzen dira produkzioarekin eta erreproduzioarekin lotutako eginkizunak, zaintza-lanak, jarduera pertsonalak eta komunitateari edo parte-hartze politikoari lotutako egitekoak.

1) **Hurbiltasuna**

Segurako egitura urbano trinkoak eta eskala txikiak eguneroko joan-etorriak oinez egitea ahalbidetzen du, oinarrizko zerbitzuak, plaza eta komertzioak elkarrengandik gertu baitaude. Horrek bereziki errazten ditu zaintza-lanak eta eguneroko antolaketa. Plaza eta inguruko espazioak sozializazio- eta topagune nagusiak dira, batez ere emakumeentzat. Hala ere, udalerritik kanpoko zerbitzuekiko mendekotasunak eta garraio publikoaren maiztasun eskasak (bereziki gauzez eta asteburuetan) hurbiltasunaren mugak agerian uzten dituzte.

2) **Aniztasuna**

Espazio publikoaren erabileran generoaren araberako bereizketak mantentzen dira: emakumeek plaza, kaleak eta komertzioak erabiltzen dituzte harreman sozialetarako, eta gizonek gehiago erabiltzen dituzte elkarteak eta tabernak. Hala ere, plaza bezalako espazioek erabilera anitzak hartzen dituzte (egonaldia, harremanak, zaintza eta komunitate-bizitza), belaunaldi eta kolektibo desberdinen arteko elkarreragina sustatuz.

3) **Autonomia**

Herrigune barruan mugikortasuna erraza da, baina parte hartze saioetan azaldu bezala, emakumeek segurtasun-gabeziako hainbat puntu identifikatu dituzte: Kale Nagusiaren atzeko kalea, aparkalekua, autobus-pasabidea eta herriguneko sarrera. Argiztapen eskasak, ikusgarritasun urriak eta jende gutxik segurtasun pertzepzioa murrizten dute eta zenbait ordutegitan erabilera baldintzatzen dute. Gainera, garraio publiko mugatuak udalerritik kanpoko desplazamenduetan autonomia murrizten du, bereziki zaintza-lanak eta lana uztartu behar dituzten emakumeentzat.

4) **Bizitasuna**

Plaza da herriko bizitza sozialaren erdigunea, eta bertan biltzen dira eguneroko topaketak eta komunitate-harremanak. Komertzio txikiek eta gertuko erabilerek kaleen aktibazioa sustatzen dute, eta emakumeen eguneroko presentziak espazio publikoaren erabilera jarraitua indartzen du. Hala ere, zenbait eremutan eta ordutegitan bizitasuna gutxitzen da; jende gutxiko espazioetan segurtasun pertzepzioa txikiagoa da eta horrek erabilera baldintzatzen du.

5) **Ordezlagarritasuna**

Emakumeek presentzia handia dute eguneroko komunitate-bizitzan eta espazio publikoaren erabileran, baina ez neurri berean antolakuntza formaletan edo erabaki-guneetan. Parte-hartzea batez ere informala da. Hala ere, Segurako Emakume Sarea bezalako ekimenek emakumeen arteko sare komunitarioak indartzen dituzte eta haien beharrak eta ikuspegiak ikusgarri egiten

dituzte. Emakume erreferenteek lekua dute herriaren memoria eta identitate kolektiboan, baina genero-desberdintasunak mantentzen dira oraindik: parte hartze saioan jasotakoaren arabera, emakumeen jokabidea zorrotzago epaitzen da eta adibidez, kontrol sozial handiagoa jasaten dute.



Herritarrek parte hartzeko saioan egindako mapa (S3). Iturria: norberak egina.

II.3.8 EUSKARA

II.3.8.1 HIZKUNTZA-ERABILERA ETXEAN

Segurak profil euskaldun sendoa mantentzen du, nahiz eta azken urteetan hizkuntza-aniztasuna handitzen ari den. 2011 eta 2021 artean etxean soilik euskaraz aritzen diren pertsonak 935etik 912ra jaitsi dira; aldiz, euskara eta gaztelania batera erabiltzen dituztenak 138tik 173ra igo dira. Era berean, euskaraz eta gaztelaniaz bestelako hizkuntzak erabiltzen dituzten pertsonak 39tik 54ra igo dira. Datu horiek hizkuntza-bizikidetzeta eta kultura-aniztasunaren hazkundera erakusten dute.

Parte-hartze saioetan jasotakoaren arabera, joera horiek gorabehera, euskarak zentraltasun handia mantentzen du eguneroko harremanetan. Haurren tailerretan parte hartu zuten guztiek adierazi zuten euren eguneroko bizitza eta etxeko harremanak nagusiki euskaraz garatzen direla, eta adinekoen artean ere euskararen erabilera oso hedatua dela nabarmendu zen.

II.3.8.2 JAIOTERRIAREN ERAGINA ETA INTEGRAZIO LINGUISTIKOA

Jaioterriak eragin handia du hizkuntza-ohituretan. 2021ean, Gipuzkoan jaiotako 1.262 pertsonetatik 890ek euskara erabiltzen zuten etxean. Aitzitik, Euskaditik eta Nafarroatik kanpo jaiotako 183 pertsonetatik 9k soilik erabiltzen zuten euskara; 109k gaztelania eta 46k beste hizkuntza

batzuk erabiltzen zituzten. Horrek erakusten du immigrazioa dela udalerriko hizkuntza-dibertsifikazioaren faktore nagusia.

Parte-hartze diagnostikoan jasotako ekarpenek, ordea, integrazio linguistikoaren inguruko balorazio positiboa egin dute. Parte-hartzaileen arabera, familia migratzaileetako guraso asko euskara ikasteko prozesuan daude eta oinarriko komunikazio-maila bat lortzen ari dira, tokiko komunitate-sareek hizkuntza-integraziorako duten gaitasuna agerian utziz.

II.3.8.3 LEHEN HIZKUNTZA ETA EZAGUTZA

Euskarak lehen-hizkuntza nagusia izaten jarraitzen du. 2021ean 979 pertsonak zuten euskara lehen-hizkuntza, 2011n 1.011 ziren bitartean. Bestelako lehen-hizkuntzak dituzten pertsonak 77tik 96ra igo dira. Gipuzkoan jaiotakoen artean familia-transmisioa sendoa da, 950 pertsonak baitute euskara lehen-hizkuntza; aldiz, kanpoan jaiotakoen artean gaztelania eta beste hizkuntza batzuk dira nagusi.

Euskararen ezagutza-maila udalerriko adierazle sendoenetakoa da. 2021ean, bi urtetik gorako 1.236 pertsona euskaldunak ziren, hau da, biztanleriaren %85 inguru. Horietatik 1.093 euskaldun alfabetatuak ziren. 2011 eta 2021 artean euskaldun partzialki alfabetatuak 219tik 143ra jaitsi dira, eta erdaldunen kopurua 131tik 106ra. Horrek erakusten du euskararen ezagutza eta alfabetatze-maila altuak mantentzen direla.

II.3.8.4 GENEROA, ERABILERA ETA EUSKALDUNTZEA

2021ean etxean euskaraz aritzen ziren 462 gizon eta 450 emakume. Hala ere, emakumeek presentzia handiagoa dute elebitasun-egoeretan: euskara eta gaztelania batera erabiltzen dituzten emakumeak 65etik 97ra igo dira 2011 eta 2021 artean, eta gizonen artean igoera 73tik 76ra mugatu da. Horrek adierazten du emakumeek hizkuntza-kodeen arteko egokitzapen handiagoa dutela familia- eta komunitate-eremuetan.

Euskalduntze-maila oso orekatua da: 2021ean 622 gizon eta 614 emakume euskaldun zeuden. Hala ere, emakumeek presentzia handiagoa dute alfabetatze-maila aurreratuetan eta elebitasun funtzionalean, eta horrek hizkuntza-transmisioan eta komunitate-sozializazioan duten eginkizuna indartzen du. Era berean, azken hamarkadan ia-euskaldunen eta erdaldunen kopurua murriztu egin da.

II.3.9 OSASUNA

'Osasuna erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala da; eta ez soilik gaixotasunik edo gaixotasunik eza' (OME, 1948).

Plan Orokorraren idazketan, azterketa-kategoria hori, genero-ikuspegia edo euskara bezala, modu transbertsal eta integralean planteatzen da fase guztietan.

XX. mendearen amaieran, OMEk osasunaren determinatzaileak gizabanakoen eta populazioen osasun-egoera zehazten duten faktore pertsonal, sozial, politiko, ekonomiko eta ingurumene-koen multzo gisa definitu zituen. Osasun fisiko eta mentalean eragina duten determinatzaile horiek, adibidez:

- **Pertsonalak:** jarduera fisikoa, elikadura...
- **Ekonomikoak:** okupazioa, errenta...
- **Gizarte-harremanak:** gizarte-harremanak, desberdintasunak...
- **Ingurumenekoak:** airearen kalitatea, uraren kalitatea, zarata, biodibertsitatea...




Dahlgren eta Whitehead, 1993

Gaur egun, hirigintza osasun-tresna gisa ikusten dugu. Hirigintzaren plangintzak eta hiri-diseinuak alda ditzaketen eta osasunean eragina duten alderdiak dira hirigintzaren osasunaren hirigintza-determinatzaileak.

Marta Rofin arkitektoa buru duen Healthy Cities_eko taldeak osasunaren hirigintzako determi-
natzailerak hauek definitzen ditu:

- **Dentsitatea:** biztanle-dentsitatea, merkataritza-dentsitatea...
- **Mugikortasuna eta garraioa:** ziklogarritasuna, ibilkortasuna, garraio publikoaren eskura-garritasuna...
- **Erabileren mistikotasuna:** ekipamendu komunitarioekiko, kirol-azpiegiturekiko, merkataritza-eremuekiko, espazio publikoekiko, berdeguneekiko eta abarrekiko hurbiltasuna, elikagai-ingurunea
- **Ingurumena eta hiri-paisaia:** berdeguneak, gune urdinak, hiri-paisaia...
- **Etxebizitza eta energia:** etxebizitzaren kalitatea, eraginkortasun energetikoa



Determinatzaile horiek guztiak eragina dute osasunaren adierazleetan, bai osasun fisikoan (obesitatea, garaiz aurreko heriotza-tasa, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, arnasaixotasunak...), bai osasun mentalean (depresioa, estresa, antsietatea, arreta-falta...), bai osasun globalean (bizi-kalitatea, segurtasun-pertzepzioa, zoriona...).

II.3.9.1 OSASUNAREN DETERMINATZAILEAK: PERTSONALAK

JARDUERA FISIKOA

Seguran ez dago jarduera fisikoari edo sedentarisismoari buruzko udal-mailako datu eguneratu-rik. Hala ere, Segura barne hartzen duen Beasaingo Oinarrizko Osasun Eskualdean sedentarisismoaren prebalentzia %26,8koa da gizonen artean eta %30,5koa emakumeen artean. Goierri-Urola Garaiko ESlan, berriz, biztanleria ez-aktiboaren proportzioa %37,4koa da, Gipuzkoako batez bestekoa (%36,4) baino zertxobait handiagoa. Datu horiek iradokitzen dute jarduera fisiko eskasak eragin moderatua izan dezakeela, bereziki emakumeen artean.

ELIKADURA OSASUNGARRIA

Segurarako ez dago udal-mailako datu espezifikorik, baina Beasaingo Oinarrizko Osasun Eskualdean fruta eta barazkien eguneroko kontsumoa %62,0koa da gizonen artean eta %71,2koa emakumeen artean. Goierri-Urola Garaiko ESlan biztanleriaren %32,7k ez du fruta eta/edo barazkirik egunero kontsumitzen, Gipuzkoako batez bestekoaren (%33,1) oso antzeko balioa.

EAE mailako datuen arabera, dieta mediterraneoarekiko atxikimendua handiagoa da emakumeen artean, eta emaitzarik onenak 65-74 urte artekoen artean erregistratzen dira. Seguraren biztanleria zahartuaren ezaugarriek joera horrekin lotura izan dezaketela iradokitzen dute.

Parte-hartze saioetan nabarmendu zen udalerrian tokiko fruta eta barazkien kontsumoa handia dela, autokontsumorako baratzetxe ugarien presentziari esker. Horrek elikadura osasungarriago baterako baldintza egokiak eskaintzen dituela adierazten du.

II.3.9.2 OSASUNAREN DETERMINATZAILEAK: EKONOMIKOAK

OKUPAZIOA ETA ENPLEGUA

Segurako lan-merkatua, oro har, osasunerako aldekoa da: langabezia-tasa baxua da (%4,2), okupazio-tasa egonkorra (%57,4) eta Goierriko jarduera ekonomikoarekiko lotura handia da. Horrek diru-sarreraren egonkortasuna, autonomia pertsonala eta ongizate psikologikoa sustatzen ditu. Hala ere, genero-desberdintasunak nabarmenak dira; emakumeek okupazio-tasa txikiagoa eta gizonenaren bikoitza baino handiagoa den langabezia-tasa dute, eta horrek estres ekonomikoaren, lan-prekarietatearen eta osasun mentaleko arazoaren arriskua handitu dezake. Bestalde, inaktibitate-maila altuak udalerrian zahartze demografikoa islatzen du, eta horrek zaintza- eta hurbiltasun-zerbitzuen beharra areagotzen du.

ERRENTA

Segurak egoera ekonomiko nahiko ona du, enpleguaren eta errentaren arteko lotura sendoa du. Biztanleriaren zati handi batek egonkortasun ekonomiko mantentzeko baldintza egokiak ditu, eta horrek eguneroko beharrei erantzuteko gaitasuna eta osasun-baliabideetarako sarbidea errazten ditu.

II.3.9.3 OSASUNAREN DETERMINATZAILE SOZIALAK

GIZARTE-HARREMANAK

Gizarte-harremanek eta laguntza-sareek eragin zuzena dute osasunean eta ongizatean. Seguraren kasuan, komunitate-harreman estuek eta gizarte-kohesioak babes-faktore garrantzitsuak eskaintzen dituzte, nahiz eta gizarte-kapital txikiagoak osasun mental txarragoarekin eta osasunaren pertzepzio okerragoarekin lotura izan dezakeen.

DESPAREKOTASUNAK

Lan-merkatu sendoa eta errenta-maila ona izan arren, onurak ez dira modu berean banatzen. Emakumeek zailtasun handiagoak dituzte laneratzean eta enplegu-egonkortasuna lortzean, eta diru-sarrera txikiagoak dituzte; horrek autonomia ekonomiko txikiagoa, zaintza-lanen gainkarga eta estres handiagoa eragin ditzake, osasun mentaleko arazoaren aurrean zaurgarritasuna handituz.

Era berean, atzerriko jatorria duten pertsonen eta baliabide ekonomiko urriko familiek zailtasun handiagoak izan ditzakete etxebizitza egokia eskuratzeko, garraio publiko eskasa ordezkatzeko, zerbitzuetara iristeko edo laguntza-sare sendoak garatzeko. Egoera hori are garrantzitsuagoa da

udalerrian ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna handia delako eta biztanleriaren zati handi batek udalerritik kanpo egiten duelako lan.

II.3.9.4 OSASUNAREN DETERMINATZAILEAK: INGURUMENA

AIREAREN, URAREN, ZARATAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN KALITATEA

Segurako ingurumen-baldintzak, oro har, onak dira osasunaren ikuspegitik. Airearen kalitatea oso ona da, uraren kalitatea egokia da (nahiz eta Oria II ibai-zatian hobekuntza ekologikorako tartea egon), zarata ez da arazo nabarmena eta biodibertsitateak balio ekologiko handia mantentzen du. Horrek guztiak herritarren osasunerako ingurune mesedegarria sortzen du.

II.3.9.5 OSASUNAREN HIRIGINTZA-DETERMINATZAILEAK

DENTSITATEA

Segurako hirigune trinkoak oinezko mugikortasuna errazten du eta administrazio, hezkuntza, kirol eta aisialdiko zerbitzuetara iristea errazten du. Hala ere, merkataritza- eta zerbitzudentsitate txikia dela eta, eguneroko behar batzuk asetzeko udalerritik kanpora jo behar izaten da, askotan motordun ibilgailuen bidez.

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

Herrigune barruan oinezko joan-etorriak dira nagusi, bereziki eskolara joateko. Aldiz, udalerritik kanpoko harreman eta joan-etorrietan auto pribatuarekiko mendekotasuna handia da. Bizikletaren erabilerak potentziala badu ere, bidegorriaren jarraitutasun eta konektibitate faltak erabilera mugatzen du. Garraio publikoaren erabilera txikia da, autobus-zerbitzuaren mugak direla eta; erabiltzaile nagusiak gazteak eta etorkinak dira.

ERABILERA MISTOAK ETA ZERBITZUAK

Segurak ekipamendu komunitarioen, kirol-instalazioen, espazio publikoen eta berdeguneen sare ona du. Hala ere, industria-eremuak ez daude bizitegi- eta zuzkidura-erabilerekin integratuta, eta lurzorua erabilera-nahasketa mugatua da. Bestalde, tokiko elikagaien ekoizpena batez ere baratze pribatuetara mugatzen da, udalerrian ez baitago hiri-baratzerik edo tokiko ekoizpena sustatzeko estrategia publikorik.

INGURUMENA ETA HIRI-PAISAIA

Segura landa-ingurunean kokatzen da eta naturarekin harreman zuzena eta etengabea du. Ondare naturalaren hurbiltasunak jarduera fisikoa, gizarte-harremanak eta ongizate emozionala sustatzen ditu. Udalerraren ezaugarriak oso egokiak dira ikuspegi horretatik, eta ez da gabezia nabarmenik identifikatzen.

ETXEBIZITZA

Alde zaharreko etxebizitza-parkea zaharkitua da eta eraikin askok bizigarritasun-arazoak dituzte. Hirigune historikoaren morfologiak eta babes-araubideak zaildu egiten dute egungo bizigarritasun-baldintzak guztiz betetzea. Hala ere, udalaren jabetzako lurzoruetan babes publikoko etxebizitzak sustatzeko asmoak etxebizitza eskuragarriagoa eskaintzeko aukera ematen du, eta horrek gizarte-desberdintasunak murrizten eta ongizatea hobetzen lagun dezake.

II.3.9.6 OSASUN FISIKO ETA MENTALAREN ADIERAZLEAK

OSASUN FISIKOA

Segurako osasun-egoera biztanleriaren zahartzearekin eta gaixotasun kronikoen gero eta pisu handiagoarekin lotuta dago. Beasaingo Oinarrizko Osasun Eskualdean obesitatearen prebalentzia %17,9koa da gizonen artean eta %13,4koa emakumeen artean. Goierri-Urola Garaiko ESlan, gehiegizko pisua edo obesitatea duen biztanleriaren proportzioa %53koa da, Gipuzkoako batez bestekoa (%49,1) baino handiagoa. Kardiopatia iskemikoaren ondoriozko ospitale-alten tasa Gipuzkoakoa baino baxuagoa bada ere, 75 urtetik beherakoen heriotza goiztiarra zertxobait handiagoa da, eta horrek prebentzioan eta osasun kardiobaskularraren jarraipenean arreta mantentzeko beharra erakusten du.

OSASUN MENTALA

Goierri-Urola Garaiko ESlan antsiolitikoen eta antidepresiboen kontsumoa Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoa da, eta osasun mentaleko adierazle orokorrak ere zertxobait hobeak dira. Hala ere, ez dago Segurarako osasun mentaleko diagnostiko edo arreta-eskaeren inguruko udal-mailako datu zehatzik. Euskadi mailan, azken urteetan antsietate- eta depresio-arazoen gora egin dute, bereziki emakumeen artean; bestalde, suizidioaren eta autolesioen ondoriozko heriotzak maizago gertatzen dira gizonen artean.

II.3.9.7 OSASUN GLOBALAREN ADIERAZLEAK


BIZI-KALITATEA ETA SEGURTASUN-PERTZEPZIOA

Parte-hartze saioetan (S3 tailerrean) jasotakoaren arabera, herritarrek oro har segurtasun-sentsazio ona dute Seguran. Hala ere, parte-hartzaile batzuek azken urteetan segurtasunaren pertzepzioak zertxobait okerrera egin duela adierazi dute, nahiz eta gaur-gaurkoz ez den ongizatean edo osasunean eragin nabarmena duen faktoretzat jotzen.

HERRITARREN ONGIZATEAREN PERTZEPZIOA

Parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenek erakusten dute herritarrek bizi-kalitate handia aitortzen diotela udalerrinari. Ongizatearen faktore nagusitzat identifikatzen dira udalerraren eskala txikia, ingurune naturalaren kalitatea, komunitate-harreman estuak eta eguneroko bizitzaren lasaitasuna.

Oro har, Segurak bizi-kalitate eta ongizate maila ona erakusten du, baina zahartzearen, gehiegizko pisuaren eta osasun mentalarekin lotutako joeren jarraipena egitea beharrezkoa da. Tes-tuinguru horretan, HAPOaren helburua izan behar da osasun fisikoa, mentala eta ingurumene-koa sustatzen dituen udalerrri osasungarri bat indartzea, bizi-ohitura osasungarriak eta ongizate kolektiboa bultzatuz.



II.4. HIRIGINTZAKO DIAGNOSTIKOA

II.4.1 SARRERA

Segurako hirigunea muino batean dago kokatuta, Oria ibaiaren ertzetik hurbil, eta bertan bizi dira udalerriko biztanle gehienak. Egungo egiturak Erdi Aroko hiri-antolaketa mantentzen du neurri handi batean, trazadura historikoa oraindik ere nabaria delarik: elipse itxurako egitura konpaktoa du, eta kale paraleloek osatzen dute, kanto bidez elkarri lotuak. Kale Nagusiak, bere ibilbidean, antzinako Errege Bidearen trazadura jarraitzen du, garai batean herrigunea zeharkatzen zuena.

Harresien barnealde historikotik haratago, Errege Bidearen ibilbidearen alboetan auzo berriak edo errebalak garatu dira historian zehar, esaterako San Andres, Goikoa eta Madalena. Hirigune trinkoak ingurune zabalago batekin uztartzen du bere egitura, eta inguruko landa-eremuan,

sakabanatuta, berrogeita hamar baserri inguru daude, herriguneko egitura zentralaren osagarri gisa funtzionatzen dutenak. Testuinguru honek erakusten du hirigintza-eredu historikoaren eta landa-izaeraren arteko elkarbizitza.

INDUSTRIALIZAZIOA

1960ko eta 1970eko hamarkadetako industrializazio-prozesuak, oro har, inguruko udalerrietan eragin handiagoa izan zuen hirigintza-hazkundearen aldetik. Hala ere, Seguran ere izan zen garapen urbanistiko nabarmenik, nahiz eta eskala txikiagoan eta inguruko herrien zabalkunde dinamikoekin parekatu ezin den neurrian. Garai hartan, bizitegi-tipologia kolektiboko hainbat eraikin eraiki ziren, garai hartako beharizan demografiko eta sozioekonomikoei erantzunez.

Garai berean, udalerraren hazkunde demografiko eta sozialari erantzuteko asmoz, hainbat azpiegitura publiko eraiki ziren zerbitzu kolektiboen eskaintza zabaldu eta egokitzeko. Horien artean nabarmentzekoak dira hezkuntza-azpiegiturak, kirol-eremuak (futbol zelaia, igerilekua eta pixka bat beranduago frontoia) eta bestelako ekipamendu komunitarioak.

1994KO ARAU SUBSIDIARIOAK

1994an onartutako Arau Subsidiarioek Segurako garapen urbanistikoan etapa berri baten abiapuntua markatu zuten, eta horrek hazkunde-estrategia berria ekarri zuen, nagusiki dentsitate txikiko eta sakabanaketa handiko eredu batean oinarrituta. Plangintza berri horren baitan, auzune berriak garatu ziren, ilaran atxikitako etxebizitzetan eta familia bakarreko nahiz biko etxebizitza-tipologietan oinarrituak.

Garapen-eredu hark landa eremuko lurzoru funtzionalki egokienak hartu zituen, besteak beste malda egokia, orientazio eguzkitsua eta kasko historikoarekiko hurbiltasuna kontuan hartuta. Hala ere, okupazio-irizpide horiek, nagusiki dentsitate txikiko eta sakabanatutako hazkunde-logika batean oinarritu ziren, eta horrek gaur egun jasangarritasun-irizpideekin bat ez datorren lurralde-antolamendu bat eragin zuen.

Aldi berean, 1994ko Arau Subsidiarioen onarpenaren ondorioz etorritako hirigintza-hazkundeak eragin zuzena izan zuen udalerraren bilakaera demografikoan. Hazkunde urbanistiko horrek bizitegi-eskaintza handitu zuen hurrengo 10 urteetan, eta horren ondorioz, populazioaren gorakada nabarmen bat gertatu zen, aurretik Segurak izan zuen joera demografiko negatiboaren norabidea aldaraziz.



Ministerio arteko Ortoargakia 1977-78



2009ko ortoargakia

2008an eraikitako azken bizitegi-erabilerako eraikinen ondoren, etxebizitza-krisiak eragindako geldialdi ekonomikoaren ondorioz, udalerrian etxebizitza-eskaintza ez da handitu gaur arte. Krisi horrek sustapen berrien etenaldia ekarri zuen, eta horrek geldiarazi egin zuen aurreko hamarkadetan izandako hazkunde urbanistikoaren joera. Ondorioz, azken urteetan egon den eskaintza mugatua ez da nahikoa izan udalerriko etxebizitza-behar berriak asetzeko udal arduradunen esanetan.

II.4.2 UDALAZ GAINDIKO LURRALDE ANTOLAMENDUA

II.4.2.1 LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK

Indarrean dauden LAGak uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartu ziren behin betiko, eta 2019ko irailaren 25ean jarri ziren indarrean.

Aurreko Dokumentua osoa berrikustez gain, onartu berriak aurreko LAGak indarrean egon ziren 20 urteetan (1997an onartuak) lurraldean egon zitezkeen desorekak zuzentzeko helburua finkatzen du.

Jarraian, Segurako hirigintza-plangintza berriari eragingo dioten gidalerroak eta alderdirik garrantzitsuenak aipatuko dira.

JARRAIBIDE LOTESLEAK

- Ingurune fisikoa antolatzeko jarraibideak. Antolamendu-kategoriak, erabilera posibleak eta antolamendu-matrizea ezartzen dira.
- Azpiegitura berdearen eta ekosistemen zerbitzuen arloko jarraibideak. Bertan definitzen dira osatzen dituzten elementuak, bakoitzaren izaera eta definitzeko irizpideak. Atal honetan, hirigintza-plangintzaren eginkizuna definitzen da.
- Hiri-hazkundearen perimetroari buruzko arauak.
- Jarduera ekonomikoen eta merkataritza-ekipamenduen arloko gidalerroak.
- Bizitegi-kuantifikazioaren arloko jarraibideak.
- Plangintzak bateratzeko jarraibideak.
- Uraren arloko jarraibideak.
- Energiari buruzko arauak.
- Ekonomia zirkularraren arloko jarraibideak: hondakinen kudeaketa.
- Ekonomia zirkularrari buruzko jarraibideak: lurzorua baliabide gisa.
- Zehar-gaien eta hiri-ereduaren arloko jarraibideak.

JARRAIBIDE GOMENDAGARRIAK

- Landa-habitatari buruzko jarraibideak.
- Paisaiaren arloko jarraibideak.
- Kultur ondarearen arloko jarraibideak.
- Natura-ondarearen arloko jarraibideak.
- Turismo-baliabideen arloko jarraibideak.
- Mugikortasun multimodalari buruzko jarraibideak.
- Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari buruzko arauak.
- Irisgarritasun unibertsalari buruzko jarraibideak.
- Genero-ikuspegiaren arloko jarraibideak.
- Klima-aldaketa arintzeari eta klima-aldaketara egokitzeari buruzko jarraibideak.
- Osasunari buruzko arauak.
- Euskararen arloko jarraibideak.
- Lurralde-harremanen arloko gidalerroak.
- Parte-hartzeari buruzko arauak.

II.4.2.5 GOIERRIKO LURRALDE PLAN PARTZIALA

Beasain-Zumarragako (Goierrri) LPP 534/2009 Dekretuz onartu zen. Aplikazio-eremuan Segurako udalerria dago, eta, udalerrien kategorizazioaren arabera, hirigune ertaina da. Gune funtzionalaren ertzean dago, eta Aipatzekoak dira, Hirigune Historikoa eta Donejakue bidea

INGURUNE FISIKOA

Aipagarria da Oria ibaiaren interes naturaleko eremua (Natura 2000 Sarea), Zegamarekiko mugatik hasi eta hirigunearen ia pareraino. LPPk Oria ibaiaren ertzetan dauden nekazaritza-intereseko eremuak eta kontserbazioko baso-eremuak ere kokatzen ditu.

ZERBITZU-AZPIEGITURAK

Segurako udalerrian jaso egiten dira Legorretako HUAra (Hondakin Uren Araztegira) doazen Zeraingo eta Zegamako urak Oriari paralelo Madalen eta Santagrazi auzuneetatik Idiazabal eta N1 errepideruntz, ondoren horiek Ezkioetik datorren kolektoarekin elkartzeko. Era berean, Arria-rango urtegitik datorren ur hornidurako oinarritzko sarea, Aizkoeta auzunetik herrigunera.

ETXEBIZITZA ERABILERA

Segura tamaina ertaineko udalerritzat hartzen da, eta eraikuntza-erritmoa ez da iristen urteko 10 etxebizitzara; beraz, oro har, tarteko dentsitateak eskatzen dira.

Gainera, arreta berezia jartzen zaie hirigune historikoei bizitegi-berreskurapenerako dagozkien jardueri. Hala da, eta eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko faktoreari dagokionez (C4), Segura 0,20ko faktorearekin kokatzen da, eta gehienez ere etxebizitza kopuru batekin amaitzen da, 8 urteko proiektio batean 120 etxebizitza (gutxienez 77) eta 16 urterako proiektio batean 160 etxebizitza (gutxienez 102).

Azkenik, Segura jarduera publikoak garatzeko intereseko udalerritzat jotzen da, etxebizitza babestuko eragiketak aurreikusiz.

JARDUERA EKONOMIKOAK

Segura hazkunde moderatuko udalerritzat hartzen da, eta dauden eremuak sendotzeko eta hobetzeko eta gaur egun kalifikatuta dauden lurzoruetan hazkundera mugatzeko politika aplikatzea proposatzen da.

EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK


Segura "lurraldeko sarbide-nukleo" gisa hartzen da, eta, beraz, berrekipamendu-eragiketa bereziak egin daitezke bertan.

II.4.2.6 LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK

NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAREN LURRALDEKO PLAN SEKTORIALA (LPS)

Lurraldearen zatirik handiena baso-erabileratzat sailkatzen da. Nekazaritzako eta abeltzaintzako eta landazabaleko lurzorua, batez ere, herrigunetik hegoaldera eta hirigunetik ekialdera orientatutako mendi-hegaletan daude.

Balio estrategiko handiko nekazaritza eremuei dagokienez, Oria ibaiaren ibarrean daudenak eta hirigunearen hegoaldeko ertzean daudenak sailkatu dira. Aizkoetako baserrien gunean zerrenda bat ere badago. Azkenik, hirigunearen hego-ekialdeko lursail batean ingurumen-hobekuntzarako eremu bat sartu da.



Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko lurzoruen kategorizazio-planoa.

Mota	Azalera (ha)	Udalerrriaren ehunekoa
Basogintza	454,5811	% 64.57
Nekazaritza eta abeltzaintza: Trantsizioko landa-paisaia	157,4921 km	% 22.37
Nekazaritza eta abeltzaintza: Balio estrategiko handia	12,3732	% 1.76
Ingurumen-hobekuntza	3,3858	% 0.48
Hirikoia (LPS)	76,1678	% 10.82

KANTAURI ISURIALDEKO IBAI ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP)

Ingurumen-osagaiari buruzko dokumentazio grafikoaren arabera, Oria ibaian ondo kontserbatutako landaredia duten eremuak daude Zeraingo igoeraren paretik eta Oria ibaian gora Zegamarako bidean 500 bat metro.

Osagai hidraulikoari dagokionez, Oria ibaiaren ibilguaren I. maila 10-50 km²-ko arro-azalera da, eta gainerako erreka 0. mailan daude, 0 eta 10 km² arteko arro-azalerarekin.


JARDUERA EKONOMIKOEN LURRALDE-PLAN SEKTORIALA

Plan sektorial horren arabera, Segura ez da jarduera ekonomikoetarako lurzorua hirigintza-antolamendurako eta -sustapenerako lehentasunezko intereseko udalerrri gisa sailkatzen, eta ez du hura garatzeko lehentasunezko eremu gisa ezartzen.

Merkataritza-guneak dimentsionatzeko udalerrien kategorizazioari dagokionez, merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzko 10/2019 Legearen arabera, Segura gainerako udalerrien "C" kategorian sartzen da

GIPUZKOAKO BIZIKLETA-BIDEEN LURRALDE-PLAN SEKTORIALA

LPSk I-3.10 Beasain-Zegama ibilbidean sartzen du Oria ibaiaren eta GI-2637 errepidearen paraleloan igarotzen den ibilbidea.



II.4.3 INDARREKO HIRIGINTZA-PLANGINTZA. GARAPEN MAILA

Hirigintza-plangintzaren mailan ere ez da aldaketa esanguratsurik gauzatu azken urteetan, eta horrek eragin du garapen potentziala duten hainbat orube oraindik ere urbanizatu gabe egotea. Hala ere, orube horiek, formalki eraikigarriak izan arren, praktikan blokeatuta daudela kontsideratzen da, bai plangintza-eguneraketarik ezaren ondorioz, bai bestelako faktore ekonomiko edo juridikoengatik, edo jabetza pribatuaren borondate falta dela eta.

Azken batean, gaur egungo hiri-egitura garai eta joera urbanistiko ezberdinen emaitza den eredu nahasketa heterogeneoa da. Bertan, kasko historikoko ehun trinkoak eta balio arkitektoniko eta historiko handiko tipologiak bizikidetzeta estuan daude erdigunetik kanpo garatutako etxebizitza kolektibo eta dentsitate txikiko eraikuntzekin.

1996ko otsailaren 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Segurako Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bategina behin betiko onartu zuen. Dokumentuak 1994an hasitako plangintza-prozesuari jarraipena eman zion, eta lurzoru urbanizaezinaren eta urbanizagarriaren araubidea, erabileren definizioa eta garapen-baldintzak zehaztu zituen. Udalak 1995ean hasiera batean eta behin-behinean onartu zuen dokumentua, alegaziorik jaso gabe, eta Foru Aldundiaren aldeko txostenaren ondoren behin betiko indarrean sartu zen. Horren bidez, udalerriko hirigintza-antolamendua arutzeko oinarri juridiko egonkorra ezarri zen, Segurako plangintzaren egunera-tzean eta sendotzean mugarri garrantzitsua bihurtuz.



Dokumentuan jasotako lurzorua sailkatzeko proposamena.

II.4.4 HIRI EREDUA ETA OKUPAZIO ESTRATEGIA

Segurako hirigintza-proposamenak hirigune historikoa sendotzea eta hegoaldeko hedapen kontrolatua uztartzen dituen eredu trinkoa proposatzen du, hazkunde sakabanatua saihestuz eta lehendik dagoen hiri-egitura indartuz. Hiri-lurzorua barruan, alde batetik, hirigune historikoa babesteko eta birgaitzeko esparrua aurreikusten da, eta bestetik, hegoaldean kokatutako garapen-eremuak identifikatzen dira etxebizitza berrietarako. Hazkundera finkatutako gunean kontzentratzea, sakabanatutako urbanizazioak ekiditea eta partzelazio konplexuak zuzentzea dira estrategia nagusiak. Hiri-eremutik kanpo, lurzoru urbanizaezinean hiru eremu ezartzen dira: kaskoa babesteko eremua, landa-eremu komuna eta babes bereziko eremua. Ereduek Seguraren paisaia eta nortasun tradizionala zaindu nahi ditu, garapen jasangarri eta orekatua bultzatuz.

II.4.5 PLANGINTZA ALDAKETAK:

- 1999ko ekainaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako **Hiri Antolamenduko Arauen 1. aldaketa puntualaren (1., 3., 5., 7., 9. eremuak eta Kaskoko babes-eremua)** behin betiko onarpena eman zuen. Aldaketa honek udalerraren hirigintza-egitura eta ondarearen babesa egokitzeko hainbat helburu estrategiko jaso zituen.

Aldaketaren xede nagusietako bat izan zen herrigune historikoaren eremua eta babesgunea berrantolatzea, eta horretarako, 1. eremura (hirigune historikoa) beste hiru gune batu ziren: Komentua (9. eremua), Herri Ekipamenduen zatia (5. eremua) eta Zerkalde kalearen luzapena (lehen 3. eremuko Akelarre izenekoa). Horrez gain, lurzoru urbanizaezinaren barruan babeserako azpizona bat ezartzea proposatu zen, ingurune historikoaren integrazioa eta babesa sendotzeko.

Bestalde, Erbiola eremuko (7. eremua) etxebizitza-eraikigarritasuna handitu zen, eta horrekin batera, sailhesbide berriaren trazadura plan dokumentuetan jasota gelditu zen, trafikoa-
ren antolamendu hobea lortzeko.

Azkenik, aldaketak ondarearen babesean ere sakondu zuen, Segurako hirigunea Euskal Ondare Kulturalaren Inbentarioan sartzeko proposamena eginez, eta Magdalenako errota eta San Andres auzoa interes arkeologikoko gisa katalogatuz.

- 2003ko ekainaren 17an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako **Hiri Antolamenduko Arauen 2. aldaketa puntuala** behin betiko onartu zuen. Aldaketa horren bidez, Akelarre-Bekosoroa sektore berria sortu zen udalerriko hegoaldean, orain arte "kas-
koa babesteko lurzoru urbanizaezin" gisa sailkatuta zegoen eremu batean.

Planteatutako esku-hartzeak 5.045 metro koadroko azalera hartzen du, eta bertan 8 etxebizitza bakarreko eraikin (adosatuak) eraikitzea aurreikusten da, 1.400 metro koadro eraikigari gehienekoarekin. Bizitegi-garapen honek, berezkoa duen biztanleria-dentsitatearen igo-
eragatik, udalerrian 144 metro koadroko espazio libre berriak sortzea eskatzen du, hiri-
oreka eta erabilera publikoaren bermea zaintzeko asmoz.

- 2007ko martxoaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako **Hiri Antolamenduko Arauen 3. aldaketa puntuala** behin betiko onartu zuen, Xesteri in-
guruko garapena eta 8. Arearen egokitzapena arautzeko.

Aldaketaren helburu nagusia izan zen Xesteri 4. sektorea izeneko eremu berri bat sortzea, aurrez babestutako lurzoru batean kokatua, eta bertan 64 etxebizitza tasatu eraikitzea aurreikusten da. Azalaren zati bat espazio libre orokor gisa gordeko da, hiri-ehundurarekin jarraikortasuna bermatuz eta hazkunde ordenatua ahalbidetuz.

Horrez gain, 8. Arearen mugaketa zabaldu da, dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzati batean aparkaleku eta gas biltegi komunitario bat egokitzeko. Proiektuak ingurumen-
ebaluazioa gainditu du, eta Laiotz errearen ingurumen-inpaktua murrizteko neurriak txer-
tatu dira.

- 2010eko uztailaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako **Hiri Antolamenduko Arauen 4. aldaketa puntuala** behin betiko onartu zuen, zehazki 1. Areari eta monumentu-multzoaren babes-eremuari dagokiona. Aldaketa honek helburu argi bat zuen: Zerkalde kale inguruaren antolamendu urbanistikoa hobetu eta ingurune historikoaren irisgarritasuna eta espazio publikoaren kalitatea handitzea.

Horretarako, 12.465 metro koadroko lurzoru urbanizaezina birkalifikatu zen, bi jarduera nagusi aurreikusita. Lehenik, 3.500 metro koadro "1. Areara" gehitu ziren, Zerkalde kalea zabaltzeko eta 6 metro zabaleko bide berri bat eraikitzeko, horrekin batera 120 aparkaleku berri sortuz. Honek, bereziki, barruko kaleak oinezkoentzako bihurtzea ahalbidetuko du, hirigune historikoaren erabilera eta irisgarritasuna nabarmen hobetuz.

Bigarrenik, gainerako lurzatiak ,ordura arte baratze pribatu modura erabiltzen zirenak, Espazio Libre Orokor gisa sailkatu ziren, eta hiri-parke bat bihurtzeko asmoa jasotzen da, ingurunearen degradazioa iraultzeko eta erabilera publikoko gune berde berriak sortzeko helburuarekin.

Aldaketak, gainera, ingurumen-neurri osagarriak aurreikusten ditu: baratzen galera konpentsatzeko eta lurzoruaren nekazaritza-balioa berreskuratzeko ekintzak gauzatuko dira. Azkenik, jarduerak administrazioaren ekimenez gauzatuko dira, eta lurren eskurapena desjabetze bidez egingo da, beharrezkoa izanez gero.

Aldaketa honek Segurako hirigune historikoa berroneratzeko eta irisgarritasun handiagoa eta bizi-kalitate hobea bermatzeko estrategiaren parte da, jasangarritasun-irizpideak eta espazio publikoaren berreskurapena oinarri hartuta.

II.4.6 PLANGINTZA XEHAKATUA

- Segurako Hirigune Historikoaren Birgaitze Plan Berezia (1999)
1999ko abenduaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Segurako Hirigune Historikoaren Birgaitze Plan Berezia (GHI-200/99-P27) behin betiko onartu zuen.

Planaren helburua da Segurako Hirigune Historikoan birgaitze-jarduketak zehaztea, kontuan hartuta eremu hau Kultura Ondasun izendatua dela (Monumentu Multzoaren kategorian), Eusko Jaurlaritzaren 1996ko otsailaren 2ko Dekretuaren bidez eta 1999ko apirilaren 19an egindako zuzenketarekin.

Planak eraikin historikoen kontserbazioa eta sendotzea du ardatz nagusi, bai eta haien birgaitzea, azpiegituren hobekuntza eta ekipamendu berrien berrikuspena ere. Helburua da hirigunea berriz kalifikatzea, eraikinak, jarduera tradizionalak eta bertako biztanleria babestuz eta sustatuz.


Planaren eremua 1., 3., 5., 7. eta 9. eremuak eta kaskoa babesteko zona hartzen ditu barnean, Diputatuen Kontseiluaren saio berean onartutako arau subsidiarioen aldaketaren arabera.
- Xesteri 4. Sektorearen Plan Partziala (2007)
2007ko martxoaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Segurako Xesteri 4. sektorearen Plan Partziala behin betiko onartu zuen, udalaren ekimenez sustatutako hirigintza-antolamenduaren barruan. Plan honek Segurako hegoaldeko garapena ordenatzeko asmoa zuen, Zerkalde kalearen luzapenaren inguruan kokatutako 14.903 metro koadroko lurzoru-eremuan.

Eremu horretan etxebizitza-erabilera nagusia aurreikusten da, eta horretarako 7.600 m² eraikigarri xedatu dira etxebizitzak egiteko, behe eta goiko solairuetan. Gainera, soto eta erdi-sotoetan 6.064 m² erabiliko dira garaje eta erabilera osagarrietarako, gutxienez 80 aparkaleku barne hartuz.

Planak bi lurzati publiko ere jasotzen ditu: bata eskola bat eraikitzeke (686 m²-ko azalera eta 1.052 m² eraikigarri), eta bestea merkataritza eta gizarte erabilera mistorako (168 m² eta 468 m² eraikigarri). Horrez gain, 8.823 m² espazio libre eta bide publiko modura sailkatzen dira, eta gutxienez 26 aparkaleku jarriko dira bidearen ertzean.
- Hirigune Historikoaren Plan Bereziko 09.02 Eraikuntza Unitateari buruzko aldaketa (2016)

2016ko urtarrilaren 19an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Foru Diputatuak Segurako Hirigune Historikoko 09.02 Eraikuntza Unitateari buruzko Plan Bereziaren aldaketa behin betiko onartu zuen.

Aldaketa hau aurretik, 2015ean, aldi baterako etenda geratu zen, dokumentuan hainbat zehaztasun tekniko eta juridiko argitzeko beharra zegoelako. Zehazki, bi puntu nagusitan sakondu zen: alde batetik, eraikigarritasun fisikoaren muga argi eta garbi ezarri zen ,3.000 metro koadro eraikigarri gehienez;; eta bestetik, ekipamendu komunitariorako sailkatutako lurzati batean hirugarren sektoreko erabilerei ezarri beharreko azalera-muga zehaztu zen.




Hirigune Historikoaren Plan Berezi 09.02 Eraikuntza Unitateari buruzko aldaketaren plano baten irudia

- Hirigune Historikoa Babesteko eta Birgaitzeko Plan Berezi 12.01 Eraikuntza-unitateari buruzko aldaketa (2023)

2023ko ekainaren 6an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Foru Diputatuak Segurako Hirigune Historikoa Babesteko eta Birgaitzeko Plan Berezi 12.01 Eraikuntza-unitateari buruzko aldaketa bat behin betiko onartu zuen.

Aldaketa honen xedea da Arrue jauregiaren albo eta atzealdeko fatxadei atxikitako zenbait elementuren antolamendu-kalifikazioa egokitzea, gaur egun "antolamenduz kanpoko" egoeran baitaude. Crispín Inversión SLk sustatutako proiektuaren bidez, elementu horiek finkatzea eta berroneratzea proposatzen da, eraikinari kanpo-tratamendu homogeneoa eta egonkorra emanaz, eta horrela bizitegi-erabilera egokia eta jasangarria bermatuz.



Hirigune Historikoa Babesteko eta Birgaitzeko Plan Bereziko 12.01 Eraikuntza-unitateari buruzko aldaketaren plano baten irudia

II.4.7 EGOITZA ERABILERAREN ANTOLAMENDUA

Segurako egoitza-antolamenduaren azterketak erakusten du 1994ko Arau Subsidiarioetan eta ondorengo aldaketetan aurreikusitako hirigintza-garapenaren %90etik gora dagoeneko gauzatu dagoela; praktikan, garatu gabe dagoen eremu nagusia Xesteri 4 sektoreko bigarren fasea da, non 32 etxebizitza aurreikusten diren. Egoera horrek agerian uzten du orain arteko hazkunde-ereduaren ahalmena ia agortuta dagoela, eta HAPO berriak udalerrriaren egungo behar sozial, ekonomiko eta urbanistikoetara egokitutako ikuspegi berritua behar duela. Gainera, azken hamarkadetako hedapen-eremuetan aplikatutako dentsitate baxuek eta espazio publikoaren zein oinezkoen sarearen egituraketa ahulak hiri-trinkotasunaren printzipioa ahuldu dute, eta horrek etorkizunean dentsitate, konektibitate eta kohesio urbano handiagoa lehenesteko beharra planteatzen du. Era berean, Komentu zaharraren eta Alustiza jauregiaren inguruko eten fisiko eta sozialek herrigunearen barne-kohesioa mugatzen dute, eta horien inguruan birgaitze eta lotura berriak sustatzeko esku-hartze estrategikoak behar dira.

Etxebizitza-garapenari dagokionez, Akelarre eremuan hiru orube eraiki gabe daude eta 9 etxebizitza inguru egiteko aukera dago, nahiz eta jabetzaren interes faltak garapena blokeatuta mantentzen duen; eremu horretan azken eraikinak 2007an gauzatu ziren, eta guztira 67 etxebizitza aurreikusi ziren. Xesterin, lehen faseko 32 etxebizitzak 2008an eraiki ziren, baina bigarren faseko beste 32 etxebizitzak eta urbanizazioaren zati bat egiteke daude; lurzorua publikoa da eta udal etxebizitza tasatu gisa garatzeko lanean ari da Udala. Parte-hartze saioetan jasotakoaren arabera, etxebizitza-eskaera handia da gaur egun, eta herritarrek egungo eskaintza ez dela nahikoa uste dute, bereziki gazteek udalerrian edo eskualdean bizitzen jarraitu ahal izateko. Era berean, etxebizitzaren prezioak gora egiten ari dira, inguruko udalerrietan bezala.

Bestalde, etxebizitza hutsen kopurua handia da, batez ere hirigune historikoan eta baserri-inguruneetan. Herriguneko etxebizitza merkeagoetan ahalmen ekonomiko mugatuko biztanle berriak bizi dira, bereziki atzerritar jatorrikoak, baina etxebizitza askoren egoera fisikoa eskasa da; horrek birgaitze-politiken garrantzia azpimarratzen du, bizigarritasuna, hiri-kohesioa eta bizikalitatea hobetzeko. Azkenik, 2019ko Lurralde Antolamendurako Gidalerroek Segurarentzat gehenez 212 etxebizitza berriko bizitegi-edukiera ezartzen dute, eta HAPO berriak muga hori errespetatu beharko du etorkizuneko hazkundera lurralde-antolamenduaren markora egokituz.

DAL HIRI-PLANGINTZAN AURREIKUSI BEHARKO DEN ETXEBIZITZEN AHALMEN MAXIMOAREN KALKULUA
EAEko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan ezarritako irizpideen arabera.

Udalerria:		SEGURA									
Udalerraren biztanleria EUSTATen arabera		Bertan dauden etxebizitzaren kopurua EUSTATen arabera	2026-203 eperako etxebizitzaren beharrak					Etxebizitzaren ahalmen maximoa			
			Etxebizitza nagusiak		Bigarren etxebizitzak	Etxebizitza hutsak		Etxebizitzaren beharrak Guztira	Biztanleriaren arabera Harrotze koefizientea	Etxebizitzaren beharrak bider harrotze koefizientea	Etxe hutsen berreskurapenaren ondorioz
2001	2021	2021	A1	A2	B1	C1	NR				
1.275	1.476	741	38	36	2	5	81	2,80	227	15	212

MUGATZAILE GEHIGARRIAK:

(*) Beti aurreikusi daitekeen egoitza-ahalmen minimoa (bertan dauden etxebizitzaren kopuruaren %10a)

(**) Onartutako Egoitza-ahalmen maximoa (Bertan dauden etxebizitzaren kopuruaren %50a)

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) arabera kalkulaturako gehieneko bizitegi-ahalmenaren fitxa espezifikoak.

Egungo planeamenduaren eta honi egindako aldaketak aztertuz gero, planteatutako proposamenak zein neurritan gauzatu diren ondorioztatu daiteke, hurrengo tauletan ikus daitekeen moduan:

Arau subsidiarioak / Normas Subsidiarias

Etxeb. Egin gabeko
Berriak etx. Viv. sin
Nuevas viv. ejecutar
Burututako %
% Ejecutado

Hiri lurzorua Suelo urbano

Eremuak Áreas

ÁREA 1. KASKO HISTORIKOA	56	52	93%
ÁREA 2. GERMAN ENEA	21	21	100%
ÁREA 3. AKELARRE	38	29	76%
ÁREA 4. MAGDALENA	KONTSOLIDATUTA		
ÁREA 7. ERBIOLA	33	33	100%
ÁREA 8.	8	8	100%
HIRI LURZORUA GUZTIRA TOTAL SUELO URBANO	156	143	92%

Plangintza aldaketak / Modificaciones de planeamiento

Etxeb. Egin gabeko
Berriak etx. Viv. sin
Burututako %
% Ejecutado

Urbanizatzeko lurzoru egokia Suelo apto para urbanizar

Sektoreak Sectores			
3. SEKTOREA	8	8	100%
4. SEKTOREA (XESTERI)	64	32	50%
Z. URBANIZAGARRIA GUZTIRA TOTAL S. URBANIZABLE	72	40	56%
GUZTIRA TOTAL	228	183	80%

Bestalde, kontuan hartu behar da, [etxebizitza atalean](#) aipatu den bezala herritarrei zuzendutako etxebizitza-inkestaren emaitzek udalerrian bizitzen jarraitzeko borondate handia dagoela erakusten dutela. Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitza-eskaria gauzatzeko aurreikusitako epearen arabera bi multzo nagusi bereizten dira. Alde batetik, epe laburreko eskari efektiboa identifikatzen da, datozen bost urteetan etxebizitza baten beharra izango dutela adierazi duten 44 pertsonen osatua. Bestetik, epe ertaineko eskari potentziala dago; gaur egun etxebizitza-aldaketa egiteko premia zuzenik ez duten arren, etorkizunean bizilekua aldatuz gero udalerrian bertan jarraitzeko asmoa duten 22 pertsonen osatzen dute talde hori. Bi multzoak batera aztertuta, udalerrian guztira 66 bizitegi-unitateko eskari potentziala identifikatzen da, eta horrek agerian uzten du bizitegi-eskaintza egokia eta udalerriarren beharretara egokitua planifikatzearen garrantzia.

II.4.8 INDUSTRIA ERABILEREN ANTOLAMENDUA

Seguran jarduera ekonomikoari lotutako tamaina txikiko industria-eremu bat dago gaur egun, bi pabiloi-ilarak osatua. Eremu horretako instalazioetako batzuk Segurako udal-mugartean kokatzen dira, eta beste ilarako eraikinak, berriz, Idiazabalgo udalerrian. Gaur egungo egoerari erreparatuta, ez da pabiloi industrial berrien premia berezirik identifikatzen, jarduera ekonomikoari lotutako lurzoru-eskaera une honetan asetutzat jotzen baita.

Hala ere, etorkizunean jarduera ekonomikoaren hazkundeak industria-lurzoru berriaren beharra sortuko balu, egokituz jotzen da dagoeneko urbanizatuta eta eraikita dauden pabiloi-ileren atzealdeko lursailak baliatzea, hedapen logika ordenatu eta jasangarri baten barruan. Estrategia horrek aukera emango luke lurzoru berrien okupazioa minimizatzeko eta lehendik dagoen hiri-eta azpiegitura-egituraren jarraitutasuna bermatzeko. Era berean, irizpide horrek ingurumen-inpaktua murriztea eta azpiegituren eraginkortasun funtzionala mantentzea ahalbidetuko luke, jarduera ekonomikoaren garapena udalerriarren egitura orokorrarekin modu integratuan uztartuz.

II.4.9 MUGIKORTASUNA

IGAROBIDE FUNTZIOA

Segura historikoki igarobideko udalerrria izan da, Errege Bideak Kale Nagusia zeharkatzen baitzuen Zegamarako noranzkoan. GI-2637 saihebidetua eraiki ondoren, trafikoa herrigunetik kanpora desbideratu zen, eta horrek erdiguneko trafiko-presioa murriztu zuen arren, udalerriarren pasabide-funtzio historikoa galduarazi zuen.

Parte-hartze prozesuan, mugikortasunari lotutako arazo nagusiak Kale Nagusian eta plazan identifikatu dira. Herritarren arabera, trafiko motordunaren presentziak gatazka funtzionalak eta segurtasun-arazoak sortzen ditu, batez ere oinezkoentzat, haurrentzat eta zaurgarritasun handiagoko erabiltzaileentzat. Horrez gain, espaloi estuak, oztopo fisikoak, zoladura irristakorrek, aparkalekuen antolaketa eta oinezkoen zein ibilgailuen arteko espazio-banaketa gabeziak ere arazo gisa aipatu dira.

BIZIKLETAREN ERABILERA

Sahiesbidearekin batera Zegamaraino luzatzen den bidegorria eraiki zen. Azpiegitura horrek erabilera handia du, baina irisgarritasun-arazo nabarmena dauka: ez da herrigunetik igarotzen eta bertara iristeko malda handiko arrapala bat gainditu behar da. Udal arduradunek herrigunea eta bidegorria lotuko dituen konexio zuzenago eta irisgarriago baten beharra azpimarratu dute.

Parte-hartze saioetan ere azpimarratu da bidegorria azpiegitura baliotsua dela, baina ez dagoela behar bezala lotuta herriko goialdearekin eta ez duela eguneroko desplazamenduetarako sare jarraitu eta eraginkorrik osatzen. Hala ere, zenbait bizilagunek lanerako joan-etorrietan bizikleta erabiltzen dute; horrek erakusten du erabilera-potentziala badagoela, baina sarearen konektibitatea, jarraitutasuna eta euskarri osagarriak hobetu behar direla.

HIRI LURZORUKO MUGIKORTASUNA

Seguraren tamaina txikiak eta egitura trinkoak eragiten dute herrigune barruko joan-etorri gehienak oinez egitea. Hala ere, udal-zerbitzu batzuk hegoaldeko muturrean kokatuta egoteak zenbait kasutan auto pribatuaren erabilera sustatzen du.

Parte-hartze prozesuak baieztatzen du oinezko mugikortasuna dela nagusi eguneroko desplazamenduetan. Hala ere, Laiotz Herri Eskolarako sarbideak ez ditu betetzen segurtasun, zuzentasun eta erosotasun baldintza egokiak, eta horrek oinezkoen eta bizikleten erabilera zailtzen du. Aldi berean, haurrekin egindako saioetan ikusi zen eskolara egiten diren joan-etorri gehienak oinez egiten direla, eta Akelarre zein Telefonika inguruan elkarguneak erabiltzen direla taldean eskolara joateko. Horrek erakusten du eskola-bideek garrantzi handia dutela udalerrriaren eguneroko mugikortasunean.

HIRI LURZORUTIK KANPOKO MUGIKORTASUNA

Landa-ingurunera eta naturaguneetara egiten diren joan-etorriak nagusiki oinez egiten dira, ingurune horiek aisialdi, osasun eta ongizatearekin lotutako espazio gisa erabiltzen direlako. Hala ere, naturaguneetarako irisgarritasuna baldintzatuta dago bideen egoera eta mantentze-lanen gabeziengatik.

Parte-hartze prozesuan arazo horiek modu errepikatuan identifikatu dira. Unamendin lokatza eta sasiak dira arazo nagusiak; Santa Barbarako sarbidean, berriz, ibilgailu astunen joan-etorriek eragindako narriadura azpimarratu da; eta Azpillan, Omiño baserri inguruko errepidearen egoera txarra, zuloak eta zoladuraren narriadura aipatu dira. Era berean, baserri-eremuetarako oinezko sarbide seguruagoak sortzeko beharra nabarmendu da. Diagnostikoaren arabera, arazoa ez da soilik mantentze-lanei lotua, baizik eta ibilgailu astunen eta oinezkoen arteko erabilera-gatazka estrukturala ere bada.

GARRAIO PUBLIKOA

Segurak autobus bidezko hiru linea ditu: GO01 (Zegama-Zaldibia), GO22E (Mutiloa-Zerain-Segura) eta GO41G larunbat gaueko linea. Lehen biek 30 minututik ordubetera bitarteko maizta-

sunak dute eta eskualdeko udalerriekin konektibitatea bermatzen dute; hirugarrenak gaueko zerbitzua eskaintzen du asteburuetan.

Parte-hartze saioetan garraio publikoaren erabilera mugatua dela identifikatu da. Auto pribatua da udalerritik kanpoko joan-etorrietan gehien erabiltzen den garraio-bidea, eta autobusa batez ere gazteek eta atzerritar jatorriko herritarrek erabiltzen dute. Era berean, Kale Nagusitik igarotzen den autobusaren pasabideak segurtasun-arazoak sortzen dituela adierazi da, eta ez dela ordezko ibilbide eraginkorrik aurkitu inguruko kaleen ezaugarriengatik.

MOTORDUN MUGIKORTASUNA

Foru Aldundiaren datuen arabera, GI-2637 errepidean 6.420 ibilgailuko batez besteko intentsitatea erregistratzen da N-1erako irteeran, eta Mutilorako sarreran 851 ibilgailukoa. Datu horien arabera, Seguratik igarotzen den trafiko erreala 5.000 ibilgailu ingurukoa dela kalkulatu da. Bestalde, Zegamako sarreran 1.942 ibilgailu zenbatzen dira, eta horrek adierazten du 2.500-3.000 ibilgailu inguruk dutela Segura jatorri edo helmuga gisa.

Guardi industriagunearekin lotutako joan-etorrietan auto pribatua da nagusi, baita Beasain eta Ordiziarako desplazamenduetan ere, batez ere merkataritza, zerbitzu espezializatu eta ekipamenduetara joateko.

Parte-hartze prozesuak baieztatzen du udalerritik kanpoko mugikortasunean auto pribatuarekiko mendekotasuna oso handia dela eta garraio publikoaren zein bizikletaren erabilera oso mugatua dela. Horrek mugikortasun-eredua automobil pribatuaren inguruan eraikita dagoela erakusten du.

APARKALEKUAK

Segurak alde zaharraren hegoaldean kokatutako aparkaleku nagusia dauka, bi eremutan banatua: autokarabanentzako 20 plaza inguru eta beste 70 plaza orokor. Aparkalekua Zurbano Jauregiaren jabetzakoa da, eta Udalak alokairua ordaintzen du erabilera bermatzeko. Horrez gain, Zeharkalde kalean 91 aparkaleku daude, batez ere alde zaharrari zerbitzua emateko.

Azterlanak udalerriko aparkaleku-beharrak berrikustea proposatzen du, Zurbano Jauregiaren lurzorua etorkizunean beste erabilera batzuetarako askatzeko aukera baloratzeko. Parte-hartze prozesuan, aparkalekuen antolaketak oinezkoen segurtasunean eta espazio publikoaren kalitatean sortzen dituen gatazkak aipatu dira, baita goialdeko aparkalekuaren jabetza pribatuak etorkizuneko berrantolaketa edo eraldaketa aukerak mugatzen dituela ere.

II.4.10 EKIPAMENDUAK

Hurrengo ekipamenduek osatzen dute sistema orokorreko zuzkidura sarea:

- **Hezkuntza ekipamendua.** Laiotz Herri eskola udalerraren hegoaldean kokatuta dago. Haur eskola berriz, erdigunetik gertuago kultur etxearen azpian kokatuta dago.
- **Ekipamendu adminitratiboak:** Udaletxea Lardizabal jauregian dago kokatuta.

- **Ekipamendu kulturalak:** 2011. urtean Kultur etxe beria eraiki zen, eta bertan, gaur egun Tobera musika eskola eta Haur eskola ere badaude. Horretaz gain, Zurbano etxearen beheko solairua ere erabiltzen da kultur instalakuntza moduan.

Parte-hartze prozesuan jasotako informazioak eta udal arduradunen ekarpenek erakusten dute kultur ekipamenduen eskaintza ez dela nahikoa udalerraren beharrei erantzuteko. Gabezia nagusi gisa kultur erabilera anitzeko areto edo antzoki egoki baten falta identifikatzen da. Herritarren balorazioaren arabera, ekipamendu sarearen ahulgune nagusietako bat da, eta kultura, ekitaldi sozialak eta komunitate jarduerak garatzeko espazio malguagoen beharra azaleratzen du.

- **Asistentzia ekipamenduak:** San Joan eta Magdalena nagusien egoitza udalerraren erdigunean eta komentuaren ondoan Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen Adingabeen aterpetxea dago.

Parte-hartze prozesuan, belaunaldi arteko harremanak sustatzeko espazio baten premia identifikatu da. Gaur egun gaztelekua badago 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzat, baina ez dago adin guztietako herritarrak elkarrekin egoteko, harremanak garatzeko eta komunitate bizitza indartzeko espazio ireki eta malgurik. Gabezia hori adinekoekin egindako tailerretan zein herritarren ekarpenetan behin eta berriz agertu da.

Bestalde, egunerokotasunari buruzko inkestan umetxearen egoerari lotutako hainbat ahulgune identifikatzen dira. Adierazitakoaren arabera, gaur egungo instalazioak tamaina alde-tik mugatuak dira, kokapenari dagokionez irisgarritasun-arazoak dituzte, eta erosotasun termiko eskasa eskaintzen dute. Horrez gain, ekipamenduaren funtzionamenduarekin lotutako zenbait disfuntzio ere nabarmentzen dira; besteak beste, asteburuetan erabilera mugatua edo ezinezkoa izatea, sarbidea ahalbidetzen duen giltza-sistemak sortzen dituen zailtasunak, eta espazioa une jakin batzuetan erabili ezin izatea bertan beste jarduera edo tailer batzuk egiten direlako. Egoera horiek guztiek ekipamenduaren erabilgarritasuna mugatzen dute, eta herritarren beharrei modu egokian erantzuteko duen gaitasuna baldintzatzen dute.

- **Kirol ekipamendu:** Frontoia eta alboko jolas-kantxak, Futbol zelaia, igerilekua, bolatokia...

Kirol-ekipamenduei dagokienez, udal arduradunen arabera, eskaintza zabala eta egituratua dago, eta komunitatearen beharrei erantzuteko gaitasun egokia du. Herritarrekin egindako parte-hartze prozesuan jasotako informazioak ere, oro har, balorazio hori berresten du. Hala ere, herritarrek adierazitako erabilera-datuek erakusten dute instalazio guztien aktibazio-maila ez dela homogenea, eta horrek agerian uzten du erabilera soziala dibertsifikatzeko eta ekipamenduen irisgarritasuna nahiz erakargarritasuna indartzeko tarte badagoe-la. Bestalde, herriko hurrek eta gazteenek skate park baten beharra adierazten dute.

- **Osasun etxea:** Gernikako Arbola plazan kokatua dago.
- **Ekipamendu erlijiosoak:** herriguneko Parrokia-eliza eta Gurutze Deunaren kapera irekia, bai eta baselizak ere, hala nola Santa Engraziarena, San Andresena, San Sebastianena eta Santa Barbararena. Era berean, Frantziskotarren komentua ere aipatzekoa da, ondare erlijiosoaren parte gisa eta erabilera sakratuaz gain bestelako jarduera kultural edo sozialetarako potentziala duen eraikin moduan.

Parte-hartze prozesuan eta udalaren hausnarketetan, komentua udalerraren etorkizuneko ekipamendu estrategiko gisa identifikatu da. Gaur egun erabilera mugatua edo zehaztu gabea duen arren, herritarrek eta udal ordezkariak birprogramazio komunitarioak aukera handiena duen eraikitzen jotzen dute. Bertan belaunaldi arteko bizitegi ereduak, jangela komunitarioak, zaintza sareak edo bestelako ekipamendu sozial eta komunitarioak garatzeko aukera ikusten da, udalerraren kohesio soziala eta auzolana indartzeko tresna gisa. Era berean, inguruko udalerrietara jo behar izaten den zerbitzu eta aisialdi eskaintza espezializatuaren zati bat bertan kokatzeko potentziala ere identifikatzen da.

Azkenik, **Segurako hilerria** udalerraren iparraldeko muga kokatua dago.

- **Hezkuntza ekipamendua:** Hezkuntza alorrean, eskola eraikina berri da eta egoera egozia du. Hala ere, irisgarritasunari dagokionez, trafikoaren eta oinezkoen segurtasunaren inguruko arazoak identifikatu dira. Zehazki, eskolara sarrera seguruago bat sortzea premiazko behartzen jotzen da.

Parte-hartze prozesuak diagnostiko hori indartzen du. Herritarrek adierazi dute eskola eraikina bera ondo baloratua dagoela, baina ingurune urbanoarekin duen harremanak arazo nabarmenak sortzen dituela. Oinezkoen eta trafiko motordunaren arteko gatazkak identifikatu dira sarbideetan, eta horrek arrisku egoerak eragiten ditu eguneroko joan-etorrietan.

II.4.11 ESPAZIO LIBREAK.

Sistema orokorreko egungo espazio libreak hurrengo eremuek osatzen dute:

- Lehenik eta behin, herriko plazak, bolatokiko gunea eta Elizaren inguruan antolatzen diren espazio publikoek osatzen dute multzo esanguratsu bat, herriguneko gune zentralen izaera soziala eta historikoa indartuz.

Parte-hartze prozesuak argi erakusten du Plaza Nagusia dela udalerriko zentralitate sozial eta funtzional nagusia. Adin guztietako erabiltzaileak biltzen dituen espazio publikoa da, eta erabilera maiztasun handiena duen gunea. Herritarren arabera, udalerriko benetako topagune integratzailea da, eta ekipamendu eta espazio publikoen sarearen erreferentzia nagusia.

- Bigarrenik, Udaletxearen aurrealdean kokatzen den Lardizabal jauregiaren lorategiek osatzen dute beste espazio ireki nabarmen bat, izaera bereziko paisaia-balioekin.
- Hirugarrenik, "Xesteri" izeneko 4. sektorea hirigintza plangintzan txertatu zenean, 1600m²-ko azalera duen Sistema orokorreko espazio libre bat ezarri zen hirigunearen ekialdean.

Hauek guztiak dagoeneko jabetza publikoko espazio libreak dira.

Aitzitik, badaude hirigintza plangintzan beste espazio libre batzuk, oraindik garatu ez direnak eta esku pribatuetan jarraitzen dutenak:


1. Zurbano etxearen hegoaldean dagoen aparkalekua hirigintza plangintzan Sistema Orokorreko espazio libre gisa sailkatua dagoen arren, oraindik esku pribatuetan jarraitzen du eta aparkaleku erabilera du. Gainera, espazio libre hau bi zatitan banatua ageri da, izan ere, Zer-

kalde kalearen amaieratik Zegamarako bidearekin lotura egitea aurreikusten duen bide berriak espazio librea zeharkatzen du.



Espaziolibrearen Zonakatzea - AASS 4. mod. 2008

2. Antzeko egoera bat gertatzen da Zerkalde kalea eta Laitz erreka arteko eremuarekin, non gaur egun baratzeak kokatzen diren. Eremu hau 1994an Kasko Historikoaren babes-eremu gisa kalifikatua izan zen, eta 2008ko AASSen Aldaketa Puntualaren bidez, berriz, 10.403,m²-ko azalera duen parke hiritar gisa, erabilera publikoko gune bihurtzeko helburuarekin. Horretarako, Zuzkidura Publikoetarako Egikaritzeko Jarduketa (AEDP/ZP-1) baten ezarpena aurreikusi zen, baina, gaur arte, ez da jarduketa hori gauzatu.



Datu hauek eta errealitatean egikaritua kontuan hartuta, sistema orokorreko espazio libreen estandarrak formalki betetzen diren arren, haien banaketa espaziala eta egungo erabilera kontuan hartuta, udalerrriak espazio libreen osagarri gehiago behar dituela irizten zaio.

Parte-hartze prozesuan jasotako informazioak diagnostiko hori osatzen du. Herritarrek espazio libreen sistemaren balorazio ertaina egin dute, baina gabezia nagusiak ez dituzte azalera edo kopuruarekin lotzen, baizik eta kalitatearekin, erabilgarritasunarekin eta ekipamendu osagarriekin. Bereziki nabarmena da estalitako espazio publikoen falta, eguraldi txarraren aurrean erabi-

lera publikoa bermatzeko zailtasunak sortzen dituena. Eskari hori modu errepikatuan agertu da inkestetan eta tailerretan, bereziki familien artean.

Erabilera handiena duten espazio libre eta ekipamenduen artean Plaza Nagusia bera, Konbentuaren ondoko haur-parkea, Baratze pilotalekua, eskolako patioa, Alustiza futbol-zelaia eta udako garaian Oxina igerilekua identifikatzen dira. Horrek erakusten du udalerriko espazio publikoen erabilera intentsitatea zenbait gunetan kontzentratzen dela.

Bestalde, mantentze-lanen eskasia, berdeguneen zaintza desegokia eta ekipamendu osagarrien urritasuna ere identifikatu dira. Herritarrek bereziki aipatu dituzte eserleku gehiago, itzal-gune gehiago eta komun publiko gehiago izateko beharra.

II.4.12 URBANIZAZIOA ETA AZPIEGITURAK

- Ur hornidura eta saneamendua

Gaur egun Ur Kontsorzioak kudeatzen ditu zerbitzu hauek, eta adierazi dutenez azpiegituren egoera Kasko Historikoan ez da ona. Sarearen zati handi bat zaharra da eta, gainera, ezagutza maila mugatua dago haren konfigurazioari buruz, azpiegitura asko aspaldikoak direlako. Horren ondorioz, sarearen ezaugarriak eta funtzionamendua hobeto ezagutzeko azterketa lanetan ari dira oraindik.

Ur hornidurak oro har ondo funtzionatzen badu ere, saneamenduari dagokionez sarearen zati handi bat unitarioa da, ez soilik Kasko Historikoan, baita komentuen inguruan ere. Hau da, euri urak eta ur zikinak ez dira bereizten.

Parte-hartze prozesuan jasotako informazioak diagnostiko hori berresten du. Azpiegitura hidraulikoetan identifikatutako arazo nagusia euri uren kudeaketarekin lotuta dago. Gaur egungo konfigurazioan euri ur guztiak saneamendu sarera bideratzen dira eta zuzenean araztegi iristen dira, eta horrek sistemaren gainkarga estrukturala eragiten du, bereziki prezipitazio handiko uneetan. Egoera horrek agerian uzten du sarearen bereizketa falta eta gaur egungo kudeaketa ereduaren mugak. Gipuzkoako Ur Kontsorzioak alternatibazko isurketa puntu bat bilatzeko beharra planteatu du, baina proposatutako konponbideek inbertsio ekonomiko handiak eskatzen dituzte eta, ondorioz, oraindik ez da behin betiko esku-hartzerik gauzatu.

Gainera, euri urei dagokionez, kaskoaren beheko zatian euri egiten duenean arazoak sortzen dira ur asko pilotzen delako eta azpiegituren gainkarga ekartzen du. Neurketak egiten ari dira, baina oraindik ez dag garbi ur jario handi hori nondik datorren.

Bestalde, Santa Barbaratik jaisten den 'erreka txiki'-k ur-goraldien garaian arazoak sortzen ditu: euri-jasen ondorioz gaineketa egiten du sarritan, eta horrek arrisku-egoerak eragiten ditu inguruko azpiegituretan eta lurzatietan.

Parte-hartze prozesuan jasotako informazioaren arabera, lurpeko uren presentziaK udalerriko obra zibilaren baldintza teknikoak baldintzatzen ditu, exekuzioaren konplexutasuna eta kostu ekonomikoak handituz. Bereziki azpimarratzen da egoera hori kontuan hartu behar dela etorkizuneko urbanizazio eta azpiegitura jarduketetan.

- Gasa

Energia-hornidurari dagokionez, herria propano-sarearekin hornituta dago, salbuespen batekin: eskola eraikinean oraindik gasolioa erabiltzen da, eta horrek eguneratze beharra adierazten du.

- Elektrizitate hornikuntza

Udalerrria, oro har, beharrezko oinarrizko azpiegituz hornituta dago. Energia berriztagarri dagokionez, gaur egun udalerrria energia komunitate bat sortzeko prozesuan murgilduta dago, eta epe laburrean udal-eraikinetan plaka fotovoltaikoak instalatzeko aurreikuspena dago, auto-kontsumoa eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko asmoz.. Zehazki, Udalean, kultura-etxean eta Herri Eskolan plaka fotovoltaikoak instalatzeko aukera aztertu da, urtean 15,2 MWh inguruko energia-sorkuntza ahalbidetuko lukeena.

- Argiteria publikoa

Inguruko udalerrri askotan argiteria-sistemaren LED teknologiarako trantsizio progresiboa egiten ari diren arren, Seguran adierazten da instalazio guztiek ez dutela teknologia hori erabiltzen eta, ondare- eta paisaia-balioekin lotutako irizpide estetikoak direla medio, ez dela aurreikusten luminaria guztiak LED sistemekin ordezkatzea. Hala ere, udalerrriak dagoeneko garatuta dauka argiteria publikoaren mapa luminikoa, eta sarea 5 aginte-koadrok eta 108 argi-puntuk osatzen dute.

Herritarrekin egindako saioetan argiteria publikoaren sareari lotutako hainbat kezka eta hobekuntza-premia identifikatu dira. Bereziki, udalerrriko zenbait eremu periferikotan eta kokaleku jakin batzuetan argiztapen-maila eskasa edo argiteriaren presentzia urria dagoela adierazi da. Herritarren iritziz, egoera horrek eragin zuzena du segurtasunaren pertzepzioan, batez ere gau-eko ordutegian, eta, aldi berean, espazio publikoaren erabilera eta irisgarritasuna baldintzatzen ditu.

- Telekomunikazioak

Azpiegitura digitalen alorrean, udalerrriak ez du gabezia nabarmenik: Interneteko estaldura orokorra ona da eta konektibitate-mailak egokiak dira gaur egungo eskakizun teknologikoei erantzuteko. Hala ere, udalerrriaren geografia dela-eta, baserri isolatu batzuetan konexio-arazo puntualak identifikatu izan dira, kokapenaren ondorioz.

- Berokuntza sistemak eraikin publikoetan

Segurako udal-jabetzako eraikin guztiek dagokien energia-auditoria eginga dute, eta horrek eraikinen portaera energetikoa ezagutzeko eta etorkizuneko hobekuntza-neurriak identifikatzeko oinarri teknikoa eskaintzen du. Bizitegi-sektorean, berokuntza indibidualeko sistemak dira nagusi (%68,7), eta ondoren datoz sistema puntualak (%19,2) eta zentralizatuak (%7,9). Ekipamendu publikoen kasuan, gaur egun gasolio-galdarak dituzten hainbat instalazio identifikatu dira, eta horien ordez biomasa bidezko sistemak ezartzea planteatzen da. Zehazki, Herri Eskolan, futbol-zelaian eta Udalean pellet-galdarak instalatzeko aukera aurreikusten da, energia-iturri berriztagarrien erabilera sustatzeko eta emisioak murrizteko helburuarekin.

Egindako azterketen arabera, eraikinen isolamendu termikoa hobetuz urtean 59,8 MWh-ko energia-aurrezpen potentziala lor daiteke. Era berean, udal-eraikin nagusietan energia-kontsumoen monitorizazio-sistemak ezartzea gomendatzen da, denbora errealean kontsumoen

jarraipena egin eta kudeaketa energetikoa optimizatzeko. Neurri hori bereziki Herri Eskolan, Udalean, futbol-zelaian eta kultura-etxean ezartzea proposatzen da.

- Zerbitzuen kudeaketa eta mantentzea

Parte-hartze prozesuan azaleratutako alderdi nagusietako bat ez dago zuzenean lotuta azpiegituren estatu fisikoarekin, baizik eta zerbitzuen kudeaketa eta mantentze mailarekin. Herritarren diskurtsoan maiz agertzen dira garbiketa eta mantentze lanekin lotutako gabeziak, hala nola hondakinen pilaketa, edukiontzien inguruko zikinkeria, animalien gorotzak edo espazio publiko batzuen mantentze egoera desegokia.

II.4.13 ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA

Segurak balio historiko eta kultural handiko ondare multzoa du, udalerriri nortasun bereizgarria eta izaera propioa ematen diona. Udalerraren erdigunean kokatzen den hirigune historikoa Monumentu Multzo izendapena duen eta zona arkeologiko gisa babestuta dagoen espazioa da, Euskal Herriko garai historiko desberdinen lekukotasun nabarmena osatzen duena. Kale estuek, harrizko eraikin monumentalek eta arkitektura tradizionalak osatutako hiri-egiturak paisaia urbano berezia eratzen du, eta, aldi berean, ondarearen transmisioa, interpretazioa eta kontserbazioa ahalbidetzen dituen espazio garrantzitsua da.

Partaidetza-prozesuan bildutako ekarpenek balio horren aitortza berresten dute. Herritarren ikuspegitik, ondarea ez da elementu historiko edo estetiko huts gisa ulertzen; aitzitik, memoria kolektiboarekin, tokiko identitatearekin eta eguneroko bizitzarekin estuki lotutako baliabidetzat hartzen da. Horrenbestez, alde zaharra udalerraren irudiaren eta nortasunaren osagai nagusietako bat bezala hautematen da.

Udalerriko eraikin adierazgarrienen artean daude Andre Mariaren Jasokundearen Eliza, babes bereziko elementu gisa katalogatua, eta Ardixarra-Garizarra, baita Balentziaga, Alustiza eta Lardizabal jauregiak ere, udalerraren bilakaera historikoa eta antzinako gizarte-egituraren adierazgarri diren eraikinak. Era berean, San Andres, San Bizente eta Gurutze Santuaren ermitak udalerriko erreferentzia sinboliko eta espiritual garrantzitsuak dira, eta horietako batzuk balizko interes arkeologikoko gune gisa ere identifikatuta daude.

Ondare arkeologikoari dagokionez, hainbat eremu nabarmentzen dira, hala nola San Andres ingurunea, Nagusia kaleko 7. zenbakiaren azpian egon daitezkeen aztarnak, edota Arabiola burdinola, Armaola eta Lesaka errota, Aldaola burdinola eta Arrizabalaga nahiz Eguskitza baserriak. Elementu horiek guztiek, alde batetik, jarduera industrial tradizionalaren aztarnak gordetzen dituzte, eta bestetik, udalerraren eta bere landa-ingurunearen garapen historikoaren lekukotasuna eskaintzen dute.

Beraz, Segurako Alde Zaharra babes ertaineko arkeologia gune eta babes bereziko Monumentu Multzo gisa katalogatuta dagoenez, bertan egiten diren esku-hartze urbanistiko eta arkitektoniko guztiek babes-araubide espezifikoko batek ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Araubide horrek ondarearen kontserbazioa bermatzen duen arren, herritarren diagnostikoan azaleratu den bezala, zenbait kasutan mugatu egiten ditu eraikinen egokitzapen funtzional eta teknikoarekin lotutako jarduketak. Bereziki nabarmentzen dira irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeak,

igogailuak instalatzeko aukerak eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak eguneratzeko beharrezko obrak, ondarearen babesaren eta gaur egungo bizi-estandarren arteko oreka bilatzea eskatzen dutenak. Testuinguru horretan, beharrezkotzat jotzen da birgaitze-prozesuak sustatzeko eta errazteko neurriak garatzea, bai laguntza ekonomikoen bidez, bai araudiaren aplikazioan malgutasun handiagoa ahalbidetuz, ondare-balioak zaindu eta, aldi berean, eraikinak egungo erabilera eta premietara egokitzeko. Azken urteotan alde zaharreko eraikin askotan birgaitze-jarduketak gauzatzen ari dira, eta horrek erakusten du eremu horrek bizitegi-erabilerarako duen erakargarritasuna eta bertan bizitzeko interesa mantentzen dituela.

Egoera horrek nolabaiteko tentsioa sortzen du ondarearen kontserbazio-helburuen eta bizigarritasun-baldintzen artean. Parte-hartze diagnostikoak ere joera hori agerian uzten du, izan ere, herritarren pertzepzioaren arabera, alde zaharreko biztanleria pixkanaka murrizten ari da, neurri batean udalerrriaren kanpoaldeko garapen berriek eskaintzen dituzten etxebizitza-baldintza ero-soagoen ondorioz

Bestalde, ondarearen inguruan dimentsio sozial eta instituzional nabarmena ere antzematen da herritarren diskurtsoan. Izan ere, herritarren zati baten iritziz, ondare-elementu jakin batzuen erabilera eta kudeaketa oraindik ere, neurri handi batean, izaera historikoa duten eragile pribatuen esku dago. Horren aurrean, erabilera irekiagoak, komunitateari lotuagoak eta herritarren behar eta interesetara egokituagoak sustatzearen aldeko jarrera agertzen da.

Azkenik, arestian aipatutako ondare multzo hori Santiago Bidearen presentziarekin osatzen da; alabaina, Done Jakue bideak Segura zeharkatzen du eta udalerrriaren izaera historiko eta espiritualari nazioarteko proiektzioa ematen dio. Ibilbide horrek balio erantsia ematen dio hirigune historikoari eta ondare-multzo osoari, eta, ondorioz, haren trazadura eta ezaugarriak kontuan hartzea funtsezkoa da etorkizuneko esku-hartze urbanistikoetan, ibilbidearen osotasuna eta ondare-balioen kontserbazioa bermatzeko.

Jarraian ondare arkitektonikoari dagozkion babes mailak eta elementuen zerrendak eranstean dira:

BABES BEREZIA

Fitxa Zbkia	Izendapena	Boletina
BB 01	ANDRA MARI JASOKUNDEAREN ELIZA	EHAA 218, 2000-11-14
BB 02	DONE JAKUE BIDEA	EHAA 106, 2022-06-02
BB 03	JAUREGIKO PORTALEA	EHAA 218, 2000-11-14
BB 04	MADALENA HAUNDI BASERRIA (OSPITALEA)	EHAA 19, 2012-01-27
BB 05	OXINAKO PORTALEA	EHAA 218, 2000-11-14
BB 06	SEGURAKO HIRIGUNE HISTORIKOA. MONUMENTU MULTZOA	EHAA 218, 2000-11-14
BB 07	ZERAINGO PORTALEA	EHAA 218, 2000-11-14

BABES ERTAINA

Fitxa Zbkia	Izendapena	Boletina
BE 01	ALUSTIZA JAUREGIA (KALE NAGUSIA 42)	EHAA 218, 2000-11-14
BE 02	ARMAOLA BURDINOLA ETA ERROTA	EHAA 19, 2012-01-27
BE 03	ARMAOLA ZUBIA	EHAA 19, 2012-01-27
BE 04	BALENZIAGA JAUREGIA (KALE NAGUSIA 4)	EHAA 218, 2000-11-14
BE 05	GURUTZE SANTUAREN BASELIZA	EHAA 218, 2000-11-14
BE 06	HARRESIZ KANPOKO KOMENTUA	EHAA 218, 2000-11-14
BE 07	JAUREGI JAUREGIA (KALE NAGUSIA 10)	EHAA 218, 2000-11-14
BE 08	KALE NAGUSIA 6	EHAA 218, 2000-11-14
BE 09	KALE NAGUSIA 21	EHAA 218, 2000-11-14
BE 10	KALE NAGUSIA 30	EHAA 218, 2000-11-14
BE 11	LARDIZABAL JAUREGIA (UDALETXEA. LARDIZABAL KALEA 5, 7)	EHAA 218, 2000-11-14
BE 12	ORNAGUSI ERROTA	EHAA 19, 2012-01-27
BE 13	SANTA MARIA MADALENA BASELIZA (EGITURARIK EZ)	EHAA 19, 2012-01-27
BE 14	UNZURRUNZAGA KALEA 1	EHAA 218, 2000-11-14
BE 15	UNZURRUNZAGA KALEA 17	EHAA 218, 2000-11-14
BE 16	ZURBANO JAUREGIA (KALE NAGUSIA 29)	EHAA 218, 2000-11-14
BE 17	ZURBANO KALEA 9	EHAA 218, 2000-11-14

OINARRIZKO BABESA (6/2019 legearen ondorioetarako)

Fitxa Zbkia	Izendapena	Boletina
OB 01	ARDIXARRA ETXEA (KALE NAGUSIA 12)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 02	ARRABIOLA BURDINOLA ETA ERROTA	EHAA 19, 2012-01-27
OB 03	ARRUE JAUREGIA (ZURBANO KALEA 27)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 04	BEHEKO ERREBALE KALEA 3	EHAA 218, 2000-11-14
OB 05	BEHEKO ERREBALE KALEA 4	EHAA 218, 2000-11-14
OB 06	BEHEKO ERREBALE KALEA 5	EHAA 218, 2000-11-14
OB 07	BEHEKO ERREBALE KALEA 7	EHAA 218, 2000-11-14
OB 08	BETI ALAI FRONTOIA	EHAA 19, 2012-01-27
OB 09	BUENA VISTA ETXEA (BEHEKO ERREBALE Z/G)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 10	GARIN JAUREGIA (KALE NAGUSIA 2 BIS)	EHAA 218, 2000-11-14

OB 11	GEBARA JAREGIA (KALE NAGUSIA 32)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 12	GOTZAINAREN JAUREGI ZAHARRA (KALE NAGUSIA 16)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 13	IMAZENEA (KALE NAGUSIA 27) HOTELA	EHAA 218, 2000-11-14
OB 14	JON DEUNAREN EGOITZA (KALE NAGUSIA 36)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 15	JON DEUNAREN ENPARANTZAKO IZKINA (K NAGUSIA 25)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 16	KALE NAGUSIA 1	EHAA 218, 2000-11-14
OB 17	KALE NAGUSIA 2	EHAA 218, 2000-11-14
OB 18	KALE NAGUSIA 3	EHAA 218, 2000-11-14
OB 19	KALE NAGUSIA 11	EHAA 218, 2000-11-14
OB 20	KALE NAGUSIA 14	EHAA 218, 2000-11-14
OB 21	KALE NAGUSIA 15	EHAA 218, 2000-11-14
OB 22	KALE NAGUSIA 19	EHAA 218, 2000-11-14
OB 23	KATARRETA BASERRIA	EHAA 238, 2023-12-15
OB 24	LARDIZABAL KALEA 1	EHAA 218, 2000-11-14
OB 25	LARDIZABAL KALEA 13	EHAA 218, 2000-11-14
OB 26	LATINETXE (KALE NAGUSIA 40)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 27	OSASUN ETXEA (KALE NAGUSIA 9)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 28	OXINA BASERRIA (LARDIZABAL KALEA Z/G)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 29	SAN ANDRES BASELIZA	EHAA 19, 2012-01-27
OB 30	SAN SEBASTIAN BASELIZA	EHAA 19, 2012-01-27
OB 31	SANTA ENGRACIA BASELIZA	EHAA 19, 2012-01-27
OB 32	TXABOLINPE (JON DEUNAREN ENPARANTZA Z/G)	EHAA 218, 2000-11-14
OB 33	UNZURRUNZAGA KALEA 3	EHAA 218, 2000-11-14
OB 34	UNZURRUNZAGA KALEA 6	EHAA 218, 2000-11-14
OB 35	UNZURRUNZAGA KALEA 15	EHAA 218, 2000-11-14
OB 36	ZUBIAUNDI ZUBIA	EHAA 19, 2012-01-27
OB 37	ZURBANO KALEA 11	EHAA 218, 2000-11-14
OB 38	ZURBANO KALEA 12	EHAA 218, 2000-11-14
OB 39	ZURBANO KALEA 19	EHAA 218, 2000-11-14
OB 40	ZURBANO KALEA 21	EHAA 218, 2000-11-14
OB 41	ZURBANO KALEA 22	EHAA 218, 2000-11-14
OB 42	ZURBANO KALEA 24	EHAA 218, 2000-11-14
OB 43	ZURBANO KALEA 26	EHAA 218, 2000-11-14

UDAL BABESA

Fitxa Zbkia	Izendapena
UB 01	ANGEL DE LA GUARDA ATERPETXEA
UB 02	ARGINETXE BASERRIA
UB 03	AZPAOTZA BASERRIA
UB 04	ERBIOLA BASERRIA
UB 05	ERROTABERRI ZUBIA
UB 06	KORRALA BASERRIA
UB 07	LESAKA ERROTA
UB 08	MARKEASAREN KAPEREA
UB 09	PAGAMUÑO BASERRIA
UB 10	SANTA BARBARA BASELIZA
UB 11	SEGURAKO BOLATOKIA
UB 12	SEGURAKO UDAL HILERRIA
UB 13	SEGURAKO UDAL HILERRIAREN AURREALDEA
UB 14	URASKA-ITURRIA
UB 15	ZUBIA

Hurrengo tauletan babes arkeologikoari dagozkion taulak eranstean dira:

BABES BEREZIKO ARKEOLOGIA GUNEAK

Fitxa Zbkia	Izendapena	Boletina
BBA 01	ALTZANIAKO ESTAZIO MEGALITIKOA	EHA 133, 2003-07-08
BBA 02	BRINKOLA-ZEGAMAKO ESTAZIO MEGALITIKOA	EHA 133, 2003-07-08
BBA 03	ZORROZTARRIKO TRIKUHARRIA	EHA 133, 2003-07-08

BABES ERTAINEKO ARKEOLOGIA GUNEAK

Fitxa Zbkia	Izendapena	Boletina
BEA 01	SEGURAKO HIRIGUNE HISTORIKOA. ESPARRU ARKEOLOGIKOA	EHA 106, 1998-06-09

BALIZKO ARKEOLOGIA GUNEA

Fitxa Zbkia	Izendapena	Tipologia
BAG 01	ALDAOLA BURDINOLA	E
BAG 02	ALDAOLAETXEA BASERRIA	A
BAG 03	ARMAOLA BURDINOLA (GAUR EGUN ETXEA) ETA ERROTA	D
BAG 04	ARRABIOLA BURDINOLA (EGITURARIK EZ)	E
BAG 05	ARRABIOLA ERROTA (GAUR EGUN BASERRIA)	D
BAG 06	ARRIZABALAGA BASERRIA	A
BAG 07	EGUZKITZA (EGUSKITZA) BASERRIA	A
BAG 08	ERROTABERRI ERROTA	E
BAG 09	LESAKA ERROTA	D
BAG 10	MADALENA ERROTA	D
BAG 11	MADALENA HAUNDI (OSPITALEA) BASERRIA	A
BAG 12	ONDARRA BASERRIA	A
BAG 13	SAN ANDRES TENPLUA	B
BAG 14	SAN ANDRESKO HERRIXKA	E
BAG 15	SAN BIZENTE BASELIZA (EGITURARIK EZ)	E
BAG 16	SAN MIGEL BASELIZA (EGITURARIK EZ)	E
BAG 17	SANTA ENGRAZIA TENPLUA	B
BAG 18	SANTA MARIA MADALENA BASELIZA (EGITURARIK EZ)	E

BALIZKO ARKEOLOGIA GUNEA (PROPOSAMENA)

Fitxa Zbkia	Izendapena	Tipologia Prop.
BAGP 01	KORTABERRI TEILERIA	
BAGP 02	ZEPADIA MENDIKO BURDINOLA	

III. PLANO ZERRENDA

Dokumentu hau ondoko plano hauekin osatzen da:

I. INFORMAZIO OROKORRA		
Zbkia	Izena	Eskala
I01	KOKAPEN PLANOA LURRALDE HISTORIKOAN / EAE-N	1/100.000
I02	KOKAPENA GOIERRI EREMU FUNTZIONALEAN	1/50.000
I03	UDALERRIAREN MUGAKETA. TOPOGRAFIA. TOPONIMIA	1/8.500
I04	ORTOARGAZKIA. UDALERRIA	1/8.500
I05	PARTZELARIOA. UDALERRIA	1/8.500

II. INGURUMEN-AZTERKETA		
Zbkia	Izena	Eskala
II01	KOKAPENA	1/23.000
II02	OROGRAFIA	1/23.000
II03	GEOLOGIA - LITOLOGIA	1/23.000
II04	GEOLOGIA - BALDINTZA GEOTEKNIKOAK	1/23.000
II05	HIDROLOGIA - LURRAZALEKO URAK	1/23.000
II06	HIDROLOGIA - LURRAZPIKO URAK	1/23.000
II07	HIDROLOGIA - AKUIFEROEN ZAURGARRITASUNA	1/23.000
II08	HIDROLOGIA - HIDROGEOLOGIA	1/23.000
II09	HIDROLOGIA - EREMU BABESTUEN ERREGISTROA	1/23.000
II10	HIDROLOGIA - UHOLDE ARRISKUA	1/23.000
II11	LANDAREDIA - LANDAREDI POTENTZIALA	1/23.000
II12	LANDAREDIA - EGUNGO LANDAREDIA	1/23.000
II13	LANDAREDIA - BATASUNAREN INTERESEKO HABITATAK	1/23.000
II14	FAUNA	1/23.000
II15	NATURA 2000 SAREA	1/23.000
II16	KORRIDORE EKOLOGIKOAK	1/23.000
II17	AZPIEGITURA BERDEA	1/23.000
II18	PAISAIA	1/23.000
II19	INGURUMEN ARRISKUAK - HIGADURA	1/23.000
II20	INGURUMEN ARRISKUAK - KUTSATUTAKO LURZORUAK	1/23.000
II21	INGURUMEN ARRISKUAK - SUTE ARRISKUA	1/23.000
II22	LURRALDE PLAN SEKTORIALA (LPS) - BASOGINTZA ETA NEKAZARITZA	1/23.000

II23	LURRALDE PLAN SEKTORIALA (LPS) - IBAIAK ETA ERREKAK	1/23.000
II24	LURRALDEAREN ZATIKO PLANA (LZP) - GOIERRI	1/23.000

III. EGUNGO HIRIGINTZA PLANGINTZA

Zbkia	Izena	Eskala
III01	LURZORUAREN SAILKAPENA	1/4.500
III02	ZONAKATZE OROKORRA	1/4.500
III03	ZONAKATZE XEHAKATUA	1/2.000

IV. EGUNGO EGOERA

Zbkia	Izena	Eskala
IV01	ERAIKINEN ERABILERAK	1/8.500

V. MUGIKORTASUNA

Zbkia	Izena	Eskala
V01	KOMUNIKAZIO SAREA	1/8.500

VI. ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

Zbkia	Izena	Eskala
VI01	UR HORNIDURA	1/8.500
VI02	SANEAMENDUA	1/8.500
VI03	SARE ELEKTRIKOA	1/8.500
VI04	GAS HORNIDURA	1/8.500
VI05	TELEKOMUNIKAZIOAK	1/8.500

VII. ONDAREA

Zbkia	Izena	Eskala
VII01	BABESTUTAKO ELEMENTUAK	1/8.500

VIII. EGUNGO HIRIGINTZA PLANGINTZA

Zbkia	Izena	Eskala
VIII01	PLANAREN GARAPEN MAILA	1/8.500

IX. BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK		
Zbkia	Izena	Eskala
IX01	ARRISKU NATURALAK	1/8.500
IX02	AZPIEGITURA BERDEA	1/8.500
IX03	EREMU BABESTUAK	1/8.500
IX04	ARAUDI SEKTORIALA	1/8.500